



Hezkuntza ekimenak **1** Iniciativas educativas

IKASTETXEAREN AUTOEBALUAZIOA

Ebaluazio-lantegia. EK-Rs kudeaketa-eredua



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Ikastetxearen autoebaluazioa

Ebaluazio-lantegia. EK-Rs kudeaketa-eredua

Jesús Rul eta Nélida Zaitegi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

RUL, Jesús

Ikastetxearen autoebaluazioa : ebaluazio-lantegia, EK-Rs kudeaketa-eredua / Jesús Rul eta Nélida Zaitegi. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003 or. ; cm. – (Hezkuntza ekimenak = Iniciativas educativas ; 1)

Badu gainera atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: "Autoevaluación del centro educativo ..."

ISBN 84-457-2061-9

1. Ikastetxeak-Ebaluazioa. I. Zaitegi, Nélida. II. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Izenburua. IV. Izenburua (gaztelania). V. Bilduma. 373.012

Argitaraldia	1.a, 2003ko abendua
Ale-kopurua	1.500 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntzaz, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet	www.euskadi.net
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Egileak	Jesús Rul eta Nélida Zaitegi
Fotokonsosizioa eta inprimaketa	Itxaropena, S.A. – Araba kalea, 45 – 20800 Zarautz
ISBN	84-457-2061-9
Lege gordailua	S.S. – 1.514/03





Aurkezpena

Hezkuntza-sistema aspalditik aztertu da hainbat ikuspegitatik: ikuspegi filosofikoa, ideologikoa, soziologikoa, psikologikoa, politikoa... Duela gutxi hasi gara ezagupenen corpus bat lantzen, hain zuzen, eskolaren baitan eta eskola-testuinguruan gertatzen denari buruzko corpusa. Jakin badakigu eskolak eskaintzen duela hezkuntza-mailako esku-hartzea egiteko lehentasuna duen esparrua, eta behin eta berriro galdetzen diogu geure buruari nolakoa den eskolaren eguneroko funtzionamendua, zein garapen duen, eta denborarekin nola aldatzen eta egokitzen den. Lehenengo galderari erantzuteko, eskolaren eraginkortasuna aztertu behar da: eskolan gertatzen dena deskribatzea da helburu nagusia eta irudi idealekin edo kalitatezko irudiekin erkatu. Eta hezkuntza-sistema hobetzeko eta garatzeko abiapuntu egokia jardunaren protagonistek landutako perzeptzioa eta esanahia dira. Bigarrenari dagokionez, eskola hobetzeko esperientziak biltzen dira, eta aldaketa eta garapena islatzen dituzten esperientziak azaltzen dira.

Eguneroko ahalegin horretan, sarritan, eskolak mugatuta egoten dira bi alderdi desberdinetatik. Lehenik, sistemak ikastetxeetan mendekotasuna sortzen du. Etengabe zeregin berriak sorten dira eta etengabe lana eteten da, eta ondorioz, testuinguruaren araberrako erantzunak mugatu edo baztertzeko dira. Sarritan egiten diren eskaerak zentzugabeak eta osatu gabeak dira, eta askotan, ideia bikainenak baztertu eta uneko modaren araberrako erantzunak nahiago izaten dira. Bigarrenik, teoriak eta estrategiak ditugu; teoriak eta estrategiak berehalako konponbideak proposatzen dituzte, egunean egoteko jarraitu beharrekoak. Baina, jakin badakigu, egun bizi ditugun egoera korapilatsuak konpontzeko kanpoko konponbideak ez dira aproposenak.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Administrazioak baldintzak ezartzearen, gogo bizia piztearen eta zentroen talde-ikaskuntza eta horien garapena ahalbidetuko duten prozesuak erraztearen aldeko apustua egin du. Abiapuntu bezala, argi eta garbi ulertu dugu ikaskuntza-emaizak hobetzea eta zentroen funtzionamendua irakaskuntza-ekintzaren protagonisten esku dagoela, hain zuzen, *ikasleengan, irakasleengan eta familiengan*, bai eta hezkuntza-mailako esku-hartzearen ardura duten unitate berezien esku ere, alegia, *ikastetxeengan*. Zentroen berrikuntza eta garapena ez dute adituek bakarrik garatzen, baizik eta prozesuaren protagonistek pentsatu eta aplikatzen dute. Zeregin horretan Hezkuntza Administrazioen hezkuntza-politikaren babesa garrantzitsua da. Eskolak aurrera egiteko funtsa eskolaren baitako egoera hobetzeko gaitasuna da. Eta kultura hori elkarrekin erlacionatutako hiru alderditan islatzen da:

- Planteatutako hobekuntzen ebaluazioa, plangintza, ezarpena eta instituzionalizazioaren prozesu ziklikoak.
- Aurreko prozesuak martxan jartzeko erabiltzen diren teknikak eta estrategiak.
- Modu jarraituan eta elkarlanean lan egiteko gaitasuna eta jarrera irekia.

Ebaluazioa garatu beharreko oinarritzko jarduera da, eta horren eskutik hobekuntza-prozesuak sortzen dira. Egin eta lortzen denaren arteko ikuspegi zehatza bilatzen du. Bideari ekin baino lehen, zein egoeratan gauden zehazten du, hots, abiapuntua. Talde-orientazio baten baitan hainbat prozesu eta teknika aplikatzea eskatzen du. Ebaluazioa egiteko informazioa modu sistematikoan eskuratu behar da. Eta zeregin nagusia beharrezkoa den informazioa zehaztean eta informazio hori nola lortu zehaztean datza. Informazio zehatza lortu eta bertan oinarrituta erabakiak hartzea egokiagoa da egoeraren ezagupen mugatu batean oinarrituta erabakiak hartzea baino. Lortzen den informazioa oso lagun-garria da eskola-antolamenduaren ikuspegitik, eta arazoak eraginkortasun handiagorekin konpontzeko ahalmena ematen dio. Lehiakortasun indibiduala areagotu egiten da pertsonen arteko erlaziotan ikastea eta profesionalen arteko elkarreragina ahalbidetzen duen gizarte-testuinguruan, taldeko adimena garatuz. Eskolak, ezagupen berriak sortu eta erabili ahal, arazoak konpontzea lortzen du. Eta lanabes egokiak erabilia errazago da gure helburuak betetzea. Esperientzian oinarrituta ikasten duten eskolen ezaugarri bereziak dira, ebaluazio-lanabes asko dituztela, une bakoitzean egokiena aukeratzen jakitea eta gainera, horien erabilera egokia egitea.

Oraingo honetan atsegin handiz aurkezten dut EBALUAZIO LANTEGIA, hain zuzen, ikastetxetan erabiltzeko sortu dugun lanabes bakun baina berariazkoa. Liburuan proposatzen den bezala, ikastetxeak erakunde adimentsu bihurtu behar dira, eta zentroari berari buruzko informazio sistematikoa taldeko ezagupen bihurtu behar da. Eredu honek, kontzeptuzko oinarri landua duena, autoebaluazioaren fase desberdinen baitako ibilaldia proposatzen du eta teknika eta lanabes zehatzak eskaini. Ondoren Katalunia eta Euskadiko ikastetxetan garatutako hainbat esperientzia agertzen dira. Autoebaluazioa egiteko ideia eskola-erkidegoak berak sustatzen duen heinean abiapuntutzat baldintza egokiak hartzen dira, izan ere, autoebaluazioa eskolak berak nahi duen eta onartu duen jarduera bat da.

Eta amaitzeko, egileak zoriontzeko eta euskal hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko egindako ahalegin izugarria eskertzeko aprobetxatu nahi dut okasio hau.

2003ko urria
Abel Ariznabarreta Zubero
Hezkuntza sailburordea





Aurkibidea

SARRERA	14
EBALUAZIOA: FUNTZIOA ETA KONTZEPTUA	18
EBALUAZIOA GIZAKIAREN BALORAZIO-GAITASUNEAN DAGO OINARRITUTA	19
EBALUAZIOA BALORAZIO KUALIFIKATUEK EDO EBALUAZIO-JUDIZIOEK OSATZEN DUTE	20
EBALUAZIOAREN KONTZEPTUAREN BILAKAERA XX. MENDEAN	21
NEURKETA, BALORAZIOA ETA EBALUAZIOAREN ARTEKO BEREIZKETA	22
EBALUAZIOAREN KONTZEPTUAREN ETA ESANAHIAREN INGURUMARIAK	23
"EK-Rs" EREDUAREN EBALUAZIO-ESTATUTA	25
EBALUAZIO-FUNTZIOAREN AZTERKETA: BERARIAZKO FUNTZIOAK ETA FUNTZIO ERATORRIAK	27
<i>Berariazko funtzioak</i>	28
<i>Funtzio eratorriak</i>	29
AUTOEBALUAZIOA ETA ERAKUNDE-IKASKUNTZA	30
EBALUAZIOAREN KONTZEPTUAREN LABURPENA	34
"EK-Rs" AUTOEBALUAZIO-EREDUA	36
"EK-Rs" EREDUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA	37
<i>Ebaluazioaren plangintza: "ED-Rs" autoebaluzio-diseinurako eredia</i>	38
<i>Ebaluazioaren garapena</i>	40
<i>Metaebaluazioa</i>	44
"EK-Rs" EREDUAREN ESKEMA OROKORRA: "HIRU ISPILUEN" METAFORA	46
EBALUAZIOAREN PLANGINTZA: "ED-Rs" AUTOEBALUAZIO-DISEINUAREN EREDUA 48	
"ED-Rs" AUTOEBALUAZIO-DISEINUAREN EREDU FORMALAREN AURKEZPENA	52
"ED-Rs" AUTOEBALUAZIO-DISEINUAREN FAKTOREEN AZTERKETA	55
<i>Ebaluazioaren objektoa</i>	55
<i>Ebaluazioaren helburuak</i>	74
<i>Ebaluazio-lanabesak</i>	78
<i>Ebaluazio egiteko baliabideak</i>	92
EBALUAZIOAREN GARAPENA	96
EBALUAZIO-INFORMAZIOA SORTZEA	97
<i>Kontzeptua</i>	97
<i>Ezaugarriak</i>	98
<i>Egitura formala</i>	101

BALIO-JUDIZIOAK ETA EBALUAZIOA-TXOSTENA	105
<i>Balio-judizioak</i>	107
<i>Ebaluazioaren-txostena</i>	110
METAEBALUAZIOA	118
AZTERKETA METAEBALUATZAILEAREN FAKTOREAK	121
EBALUAZIOA TESTUINGURUAN KOKATzea	123
<i>Zona ezagunean kokatutako ebaluazio-estrategia</i>	126
<i>Zona ezagunaren eta zona ezezagunaren artean kokatutako</i> <i>ebaluazio-estrategia</i>	127
<i>Zona ezezagunean kokatutako ebaluazio-estrategia</i>	128
EBALUAZIO PLANGINTZAREN ADIBIDEAK	132
EBALUAZIO-PLANGINTZA: "ED-Rs" EREDUA	133
EBALUAZIOAREN GARAPENERAKO FITXAK	141
EBALUAZIO-KUDEAKETAKO HAINBAT ESPERIENZIA	144
KATALUNIAKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEAK:	145
1. <i>kasua: Irakasleen bileren funtzionaltasuna</i>	
A. Ebaluazio-plangintza. "ED-Rs" eredia	145
2. <i>kasua: Aritmetika-problema ebazpena lehen hezkuntza</i>	
A. Ebaluazio-plangintza. "ED-Rs" eredia	155
EUSKADIKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEAK	165
3. <i>kasua: Hizkuntzaren metodologia ikasleen arteko aniztasuna lantzeko</i>	
A. Ebaluazio-plangintza. "ED-Rs" eredia	171
4. <i>kasua: Urteko aurrekontua egitea</i>	
A. Ebaluazio-plangintza. "ED-Rs" eredia	180
ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA	184
ESKER ONAK	190





Sarrera

Erakunde-mailan ebaluazio-kudeaketako prozesuak garatzea erronka izugarria da eta ondorio pertsonalak eragiten ditu. Barne-funtzionamendua kontrolatzeko ebaluazioa garatzen duten mota orotako erakundeek —ekoizpenarekin lotutakoak eta zerbitzuekin lotutakoak— nolabaiteko autonomia izan ohi dute erakunde-mailako zeregin esanguratsuenak aztertzeko eta neurtzeko, erantzukizunen garapena egiaztatzeko, bai eta proposatutako helburuen betetze-maila zehazteko ere.

Erakundeen funtzionamenduan ebaluazio-kudeaketa egitea ez da gauza erraza. Funtsean, garatuko diren ekintzen baitan *informazioa-egagutzaren* sistemak gehitzean datza, berauek atzeraelikatzeko. Hau da, ekintza jakin batzuk aukeratu eta horiek aztertuko dira ekintzak berak ematen dituen datu eta informazioetatik abiatuta, eta hartara etorkizuneko ekintzak antolatzeko eta optimizatzeke egagutza-baliabide erabilgarri bat eskuratuko da. Zentzu honetan, ebaluazioa erakunde-mailako kalitatearekin lotutako baliabide bat da.

Arestian aipatutako planteamendua ebaluazioaren inguruko kontzeptu eta praktika jakin batzuen aurka doa, *erredukzionistak eta neurrigabeak* direnen aurka, hain zuzen ere.

Erredukzionista izango litzateke ebaluazioa, neurketa ez oso zehatzen bitartez lortutako datuekin edo balorazio subjektiboetan oinarritutako zenbait estatistika-datuekin nahastea.

Horrez gain, "ebaluazio-estrategia" —ebaluazioaren objektua eta helburuak—, eta "ebaluazio-lanabesak" eta lortutako informazio esanguratsua eta egindako "balio-judizioak" bat ez badatoz eta egokiak ez badira, lortutako ebaluazioa ez da zuzena izango.

Ebaluazioak edo ebaluazio-lanak honako funtsezko ezaugarri hauek ditu:

- a) Ebaluazioaren objektuari dagokionez: objektuaren garrantzia eta esangura. Ikerketatik eta esperientzia baieztatutik lortutako datuetatik abiatuta, ebaluazioaren objektu esanguratsuak eta garrantzitsuak bereiztea. Neurketa eta balorazioari dagokienez, erredukzionismoa gainditzea.
- b) Ebaluazioaren lanabesei dagokienez: hartutako estrategiaren arabeko barne-egokitasuna eta kanpo-kongruentzia, hau da, objektu eta helburuen arabera. Lanabesen formalismoa gainditu behar da; zuzenean objektua aztertu behar da, hau da, lanabesak erabilia objektuari eta helburuei buruzko informazio esanguratsua, anitza eta desberdina lortu behar da.

- c) Ebaluazioaren ekintzari dagokionez: ebaluazio-ekintza bere osotasunean hartuta, egokia eta proportzionala izatea. Oinarrizko hiru alderdien arteko harreman eraginkorra: *estrategia* —objektua eta helburuak—, *lanabesak* —ebaluazioaren informazioa—, eta *balio-judizioak* —objektuaren gaineko ezagupen berriak.

Gaur egun arte egindako ebaluazio-lan gehienen kasuan ikus daitekeen desberdintasun endemikoa gainditu behar da, hau da, "objektu" oso zabalak aztertzen dira, hala nola, ikastetxearen ebaluazio orokorra, hezkuntza-sistema osoa, eta abar— baina nabaria da lanabesen urritasuna, bereziki objektuen inguruko judizioak egiteko orduan.

Horretarako, ezinbestekoa da jarraian aipatzen diren hiru faktoreak sakonkiago lantzea:

- a) Ebaluazioaren kontzeptua eta funtzioa norbereganatzea, gaitasun teknikoak (ebaluazio-diseinuak lantzea eta ezartzea) eta gizarte-trebetasunak (informazioa-egutzaren prozesuetan parte hartzea, balioak partekatzea, eta abar) garatzen diren bitartean.
- b) Ebaluazio-kudeaketa garatzeko eredu egokiak eta praktikoak aukeratzea, aldi berean erakunde-mailako hazkundera sustatzeko baliabide egokia gerta daitekeena. Aukeratutako ereduak teorian eta praktikan erabiltzen jakitea (entsegua-errorea eta zuzentzeko oharrak). "Burokratizazioa" gainditzen saiatzea, hau da, ebaluazioa eduki errealik eta ondorio praktikorik ez duen izapide izatea saihestu behar da.
- c) Ebaluazioaren aldeko jarrerak garatzea. Hasieran sustapen-nukleo bat beharrezkoa da, eta pixkanaka-pixkanaka ebaluazioa zeregin profesional arrunten baitan integratuko duten giroa eta kultura sortu behar da.

Honako EBALUAZIO LANTEGI honetan autoebaluazio-kudeaketako "EK-Rs" ereduak garatzen da. Ebaluazioaren teorian oinarrituta dago, eta praktikara eramateko oso lanabes funtzionala da bi irizpide desberdinei esker: alde batetik, *sinpletasuna* (ebaluazio-egitura gutxienekoa da) eta bestetik *berezitasuna* (ikastetxeak zehaztuko ditu ebaluazioaren edukiak, ikastetxearen helburuen eta baliabideen arabera).

Lan honetan hainbat ideia, eredu, teknologia, prozedura eta adibide aurkezten da laburbilduta, eta ebaluazio-ereduaren egituraren arabera antolatuta dira guztiak.

Lehenengo zatian ebaluazioaren kontzeptua eta funtzioa aztertuko dira. Ebaluazioaren funtzioa mugatu behar da, kontzeptuaren beraren ezaugarri deskribatzaileetatik abiatuta.

Bigarren zatian "EK-Rs" autoebaluazio-ereduaren deskribapen zehatza egiten da; kudeaketa-prozesua osatzen duten hiru faseetan egituratu da aipatutako deskribapena: plangintza edo diseinua, garapena eta metaebaluazioa. Ebaluazio-eredua laburtzeko eta horren adibideak jartzeko "hiru ispiluen" metafora erabiltzen da.

Lan hau osatzen duten hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren zatietan egiten den ebaluazio-ereduaren deskribapenean hainbat ideia, eredu, teknika eta adibide biltzen dituen lantegi bat aurkezten zaigu, hartara praktika erraztu eta ikasteko.

Hirugarren zatia ebaluazioaren plangintzari buruzkoa da. "EK-Rs" autoebaluazio-diseinuaren eredia proposatzen da, eredia osatzen duten lau faktoreak bilduz: "objektua", "helburuak", "lanabesak" eta "baliabideak".

Lanaren laugarren zatia ebaluazioaren garapenari buruzkoa da, eta hain zuzen, bi une desberdin bereizten dira: ebaluazio-informazioa sortzen den unea, horretarako ebaluazio-lanabesak erabiltzen eta ebaluazioari buruzko informazioa prozesatzen denekoa, eta balio-judizioak egin eta txosten batean idazten direnekoa.

Bosgarren zatia metaebaluazioari buruzkoa da, alegia, ebaluazioa burutu ondoren, berau aztertzeko ekintzari buruzkoa. Metaebaluazioa garatzeko prozedura bakun bat proposatzen da.

Lanaren seigarren zatian, landutako ebaluazio-diseinuaren eredia erabiltzen duten hainbat adibide aurkezten dira. Horietako zenbait ikastetxe jakin batzuei buruzkoak dira. Hain zuzen, autoebaluazio-kudeaketa arruntaren ereduak aplikatu eta izandako esperientzia argitaratzeko baimena eman duten ikastetxei buruzkoak.

Lanaren amaieran zenbait bibliografia-erreferentzia eta egileen eskeronekin labur egiten da.



Ebaluazioa:
funtzioa eta kontzeptua

Honako kapitulu honetan ebaluazioaren funtzioa eta kontzeptua aztertuko dira. Giza jarduera intentzional honek pertsonen balorazio-gaitasun komuna edo nor bere iritzia emateko gaitasun komuna kualifikatzeko balio digu. XX. mendearen amaiera aldera ebaluazioaren izaeraren eta esanahiaren artean nahasketa zegoen, eta ondorioz, garatzen ziren ebaluazio-praktiketan helburu, teknologia eta erabilera oso desberdinak biltzen ziren, eta horren aurrean sortzen zen galdera nagusia zen praktika guztiak ebaluazioaren estatutuaren barrukoak ote ziren edo bestelakoak ote ziren.

Ebaluazioaren jarduera *mugatzea* proposatu zen, ebaluazioaren estatutua giza jarduera moduan definitzeko eta zehazteko, eta bide batez, ebaluazio-praktiken¹ ebaluazio-estatutua mugatuko zuen marko bat lortzeko.

Ikuspegi eta marko horretatik abiatuta ebaluazioaren kontzeptua ezagutuko eta deskribatuko da, eta horrela ebaluazioak bete beharreko funtzioa ezagutuko dugu.

Jarraian ebaluazioaren funtzio orokorra eta berriazko funtzioak aztertuko dira.

Eta azkenik, koadro batean, ebaluazio-funtzioaren ezaugarri garrantzitsuenak laburtuko dira.

EBALUAZIOA GIZAKIAREN BALORAZIO-GAITASUNEAN DAGO OINARRITUTA

Ebaluazio-funtzioa gizakiak gauzak eta gertaerak epaitzeko duen gaitasunean oinarrituta dago. Gizakiok prozesu jakin batean garatzen den ekintza-multzoa epaitzeko gaitasuna dugu. Gure bizimodu pertsonalean eta profesionalean behin eta berriro egiten ditugun

¹ XXI. mendearen hasieran ebaluazioaren inguruan hiru oinarritzko jarrera aurkituko ditugu:

- a) *eszeptizismoa*, ebaluazioa egiteko aukera ukatzen duena, hau da, ezin da iritziaren subjektibotasunaz haraindi joan, eta ondorioz, balorazioak biltzeko eta estandarizatzeko makina bat galdeketa bete behar izaten da.
- b) *Kreditazionismoa* edo *elitismoa*. Ebaluazio-jardun hau (sasiebaluazioa) barra-barra erabiltzen dute kreditatzeke, homologatzeke eta zigortzeko ahalmena duten erakunde eta pertsonak. Horien balio-judizioak estatistikaren —neurri batean edo bestean zorrotz bai, baina sinplista direnen— bidez justifikatu ohi dituzte, baita politikak eta interesak legitimatzeko tresna gisa ustez ebaluatzea helburu duten jardunak erabiltzea ere. Horrek ondorengo ustea du oinarri: gauzen errealitatea, horien balioa eta egokitasuna aginte-irizpidearen mendeko dira.
- c) *mugak jartzea*, ebaluazioa egiteko aukera beti dagoela dioen jarrera, beti ere jarduera *a priori* zehaztu beharreko hainbat arazoizko irizpidetara egokitzen bada (mugatzea).

balorazioek aipatu gaitasuna adierazten dute. Adierazten ditugun balorazioetan hamaika faktorek parte hartzen du —esplizituak eta implizituak—, hala nola, nortasuna, motibazioak, unean bertako egoera, eta abar. Ondorioz, egiten diren balorazioek karga subjektibo handia dute, izan ere, faktore pertsonal, emozio-mailako faktore, egoeraren araberako faktore, kultur faktore, eta abarren eragina dute.

Gizarte-mailako elkarreraginetan, esate baterako komunikazioa, elkarrizketa, eztabaida, kritika, eta abar, hainbat balorazio adierazten dira iritzi, sinesmen, ideia eta mitoen bitartez. Hartzen diren erabaki asko alde aurretik egindako balorazioetan oinarrituta daude. Soziologiaren zientziak hainbat gairen inguruan *talde* jakin batzuen lagin esanguratsuen iritziak bildu eta estandarizatzen ditu, hartara politika, kultura, ohiturak, eta gisako gaien inguruan gizarte-joera jakin batzuk zehaztu ahal izateko.

EBALUAZIOA BALORAZIO KUALIFIKATUEK EDO EBALUAZIO-JUDIZIOEK OSATZEN DUTE

Ebaluazio-funtzioa balorazioetatik abiatzen da, eta horiek gaingiditu egiten ditu. Ebaluazioa egiten da egindako balio-judizioa datu eta informazio zehatzetan oinarritzen denean. Ebaluazioa judizio subjektiboak balio-judizio bihurtzen dituen eraldaketa-prozesu bat da, betiere gai jakin baten (ebaluazioaren objektua) inguruan erabilgarri dagoen informazio objektibatura egokituta badago.

Hortaz, ebaluazio-funtzioaren garapenak baloraziotik ebaluaziora egiten den aldaketa kualitatiboa adierazten du. Banakakoa eta/edo taldekoa izan daiteke. Lehenengoa pertsona batek informazioa eta datuak lortu ondoren adierazten duten balio-judizioak dira; esate baterako, sendagileen kasuan, diagnostikoa egin baino lehen —balio-judizioak— gaixoari buruzko informazioa lortzen da —elkarrizketa, behaketa, analitika, eta abar—, hartara emango duen diagnostikoa lortutako informazioan oinarritzeko. Bigarrena intersubjektibotasun-prozesuak dira, hau da, ebaluazioari buruz hitz eginez, eta ebaluazio-prozesuak emandako informazioa oinarrian hartuta, hainbat lagunek balio-judizioak partekatzen dituzten prozesuak.

Ondorioz, ebaluazioaren gai nagusia da, kasu zehatz bakoitzean, informazioa interpreta-tuz eta pertsonen arteko komunikazioari esker lortutako ezagutzari ematen diogun balioa.

Laburbilduz: ebaluazioa osatzen dute, ebaluatutako errealitatearen ezagupenak (datuak eta informazioa), iritziak (balorazioak), eta batez ere datu objektibatu eta zehatzetan egokitutako eta oinarritutako ebaluazio-judizioek (ebaluazioa).

EBALUAZIOAREN KONTZPTUAREN BILAKAERA XX. MENDEAN

XX. mendean ebaluazioa hainbat helbururekin burutu izan da, eta gizarte-bizitzaren, zientziaren eta ekonomiaren arabera, batzuetan helburu kontrajarriak izan dira.

Funtsean, bi ikuspegi izan dira nagusi, gaur egun ere oraindik erabiltzen direnak:

- a) Ikuspegi *positibista*, orientazio arrazional-teknologikoa duena eta emaitzak eta alderdi kuantitatiboa azpimarratzen dituena. Ebaluazioa, izandako sarrerak edo erabilitako baliabideak eta amaieran lortzen diren emaitzak erkatzera mugatzen da. Ebaluazio-eredua "kutxa beltzarena" da, alegia, "sarrerak" eta "irteerak" kontrolatzen ditu "prozesuen" abstrakzioa eginez. Orientazio hau izan zen nagusi XX. mendearen lehenengo erdian, baina ondoren indarra galdu zuen erredukzionista zelako, eta errealtatea itxuraldatzen zuela eta. Laurogeiko hamarkadatik aurrera berriro ere indarra hartu zuen ikuspegi honek, bizimodu sozioekonomikoan neoliberalismoak izandako bultzada izugarriaren eta horrek gizarte-bizimoduan izandako eragin itzelaren ondorioz.
- b) Ikuspegi *gizatiarra*, orientazio sistemikoa duena eta gizarte-gertaerako prozesuak eta eraikuntza ideologikoa azpimarratzen dituena. Abiapuntutzat gizarte-mailako fenomenoaren konplexutasunaren ulermena hartzen da, eta, bereziki, hezkuntza-mailako fenomenoena, eta estatistika-datuetan laburtzea ezinezkoa denez, sarreren eta irteeren arteko konparazioak egiten dira. Prozesuak zehaztasunez aztertzeke orduan, metodologia kualitatiboen ezarpena da azterketaren xede nagusia, hala nola behaketa, deskribapena, elkarreraginak, eta abar.

Azaldutako ikuspegiak indar handia bereganatu zuen hirurogeiko hamarkadan. Orduetik hona ikuspegia indartu egin da Sistemen Teoriak hainbat azterketa-esparrutan, bereziki Biologia, Soziologia, Zibernetika, Hezkuntza, eta abarretan, azaltzen diren fenomeno konplexuen azterketara eta ulmenera egindako ekarpenei esker.

Azken boladan ikuspegi guztien arteko osagarritasuna bilatzea da indartu den joera. Hala ere, ikuspegi eklektikoak hainbat arazo eragiten ditu, funtsean helburuak, ikuspegiak, teknologiak eta baita hizkuntzaren nahasketak eraginda. Osagarritasuna lortzeko bideak aurkitu behar dira, betiere azterketak eta ikerketa egiteko ikuspegi eta prozeduren berariazotasunaren kaltean izan gabe.

NEURKETA, BALORAZIOA ETA EBALUAZIOAREN ARTEKO BEREIZKETA

Orokorrean, gizakiok gertaerak, fenomenoak eta egoerak epaitzeko balorazio-gaitasuna dugu eta erabili egiten dugu.

Baloratzea zerbaiten balioa zehaztea, adieraztea eta aurreikustea da. Balorazio oro gauza bati buruzko balio-judizio bat da, eta bertan nahasten dira balorazioa egiten duen subjektuaren alde aurretiko esperientzia, egoera eta interesak. Gaitasun praktikoa bat da eta ezagupen-taula baten antzera jokatzen du, eta berari esker "baloratutako errealitatea geure" bihurtzeko aukera dugu: autofinkatzea, egoerak kontrolatzea, jarreraren gida, eta abar. Balorazioa ezagupen pertsonalerako sistema erabilgarri eta eraginkor bat da, baina izandako esperientzia gogoan hartuta esan daiteke, egiten diren balorazio asko eta asko hainbat faktorek eragiten dituztela, hala nola balorazioa egiten den unea, balorazioa egiten duen pertsonaren interesa, informazio gutxi erabiltzea, akatsak eta abar, eta ondorioz, ezagutza objektibatu eta pertsonen arteko ezagutza eskasa eta desegokia eskuratzen da.

Neurtzea. Magnitude baten kantitatea zehaztu behar da, unitatetzat hartzen den beste magnitude batekin erkatuz.

22


Neurketak balorazio-gaitasuna nolabait mugatzea dakar. Hain zuzen, subjektuek pertzepzio desberdinak adierazten zituzten magnitude zehatz bat kuantifikatzeko orduan, eta neurketa-unitateak zehaztu eta onartu zirenean lortu zen arazoari konponbidea ematea. Adibidez, bi pertsona pareta baten aurrean eztabaidan ari dira paretaren metro-kopurua zehaztu nahian. Arazoari konponbidea emateko ez da eztabaidarik behar (balorazioa), baidarik eta neurketa. Lehenik eta behin metro batekin neurtu behar da pareta, eta ondoren, datua lortu ondoren, balorazioa egin.

Hala ere, errealitate jakin batzuk bakarrik neur daitezke. Neurketa-unitateak erabakitzeko orduan bi aukera ditugu: alde batetik konbentzioaren bitartez, hau da distantziak neurtzeko metroa erabiltzea; eta bestetik, frogapena eta fidagarritasuneko prozedura konplexuak jarrai daitezke, hartara neurketa-unitatea neurtu beharreko errealitatearekiko esan-guratsua izateko, hala nola, adimena neurtzeko test bat lantzea.

Ebaluatzea gertaerei balioak ematea da, betiere datuak eta informazioa oinarrian hartuz. Horrela bada, ebaluazioa informazioak kualifikatutako balorazio bat da.

Ondorioz, ebaluatzeak objektu jakin batzuen inguruan objektibatu diren datu eta informazioetara egokitutako balioak sortzea edo eraikitzea da.

Laburbilduz: balorazioa gauzak ezagutzeko modu praktiko bat da, baina subjektiboa eta partziala da eta akatsak izan ohi ditu. Ezagupena objektibatzen beharri neurketaren eta ebaluazioaren bitartez erantzun ahal zaio. Neurketaren kasuan, neur daitezkeen berariazko errealitate guztiak azter daitezke, eta bigarrenaren kasuan, orokorragoa, deskriba daitezkeen errealitate guztiak, hau da, neurketaz haraindi objektiba daitezkeen informazioa sor dezaketen errealitateak.



1. IRUDIA. Balorazioa, neurketa eta ebaluazioaren arteko desberdintasunak eta erlazioak.

EBALUAZIOAREN KONTZPTUAREN ETA ESANAHIAREN INGURUMARIAK

Jarraian, ebaluazioaren kontzeptuaren inguruko hainbat informazio eskaintzen da.

Ebaluatzea ezagupena sortzeko prozesu sistematiko bat da; alde aurretik objektu jakin batzuk estrategikoki aukeratu eta objektu horiei hainbat balio ematen zaizkie, eragile ebaluatzaileek egindako ekintza subjektibo-objektiboen ondorioz, betiere ezagupenaren helburuak (ikaskuntza), erabakien orientazioa eta kultur sormena kontuan hartuz.

Ondorioz, honako hauek dira ebaluazioaren elementu deskribatzaileak:

- a) *Subjektua*: ebaluatzailea edo ebaluatzaileak eta ekintza *subjektiboak* burutzen dituzten parte-hartzaileak, hala nola, haztapenak, hipotesiak, suposizioak, balorazioak, eta abar, eta ekintza *objektiboak* burutzen dituztenak, informazioa lortzeko eta erabiltzeko prozesu sistematiko bat garatuz.
- b) *Objektua*: ebaluatzeko aukeratu den gaia, berez duen garrantzi edo interesagatik, eta ebaluazio-ekintza justifikatzen duten *helburuak*.
- c) *Ezagupena*: objektuaren inguruan sortutakoa; eta informazio hori ebaluazio-informazio moduan adieraztea.
- d) *Balioa*: informazio objektibatuan oinarritutako objektuari esleितutako judizioa.

Azaldutako ideiek ebaluazioaren esparrua giza jarduerara mugatzen dute. Eta hori oso garrantzitsua da, izan ere, sarritan, ebaluazioaren funtzioari ematen zaizkion erabilerei dagokienez kontzeptuzko, helburu-mailako eta teknologia-mailako nahasketak izan ohi dira.

24

Ebaluazio-funtzioa berriro ere ezagupenaren esparrura mugatzea proposatzen dugu. Hortaz, alde batetik, neurketaren murrizketa kuantitatiboa gáinditu behar da, eta bestetik, jolasaren eta iritzien estandarizazioaren eskutik iritziazen Soziologiara (balorazioa) iritsi behar dugu. Administrazioko ebaluazio-institutuek garatutako neurketa-proben eta iritzi-galdeketen estatistikei dagokienez sarritan egiten diren interpretazioak, eta antzina orakuluek egiten zituzten interpretazioak antzekoak izan ohi dira; eta antzeko ondoriotara iritsiko gara, ebaluatu nahi denaren eta azkenean ebaluatzen denaren arteko proportziorik eza izugarria ikusita.

Horrela bada, ebaluazioa neurketara eta baloraziora bakarrik mugatzen ez den fenomeno moduan ulertzea eta kudeatzea lortu nahi dugu, eta gainera, mugaketa epistemikoari dagokienez, honako deskribatzaile hauek hartu beharko dira kontuan:

Ebaluazioa mugatzea

- Adierazitako baldintza eta ezaugarrien arabera garatzen den ebaluazioa Gizarte Zientzien esparruko sistematika zientifiko bat da eta helburu nagusitzat du ebaluatutako errealitateak, gertaerak, eta fenomenoak "ulertzea" eta horretarako gizabanakoen arteko komunikaziorako prozesu metodiko bat garatzen da, eta praktikan oso erabilgarria den "jakinduria" aditzera ematen da.
- Ebaluazioak, Gizarte Zientzia den neurrian, honako berariazko alderdi hauek ditu:
 - a) Ebalua daitezkeen objektu jakin batzuei buruz informazio objektibatua sortzea, hau da, deskriba daitezkeen objektuei buruzko informazioa, eta,
 - b) Ebaluatu den objektuari buruz, objektuaren inguruko informaziotik abiatuta (informazio landua), balio-judizio egokituak esleitzea.

Ebaluazioaren adibideak dira, esate baterako, Medikuntzan egiten den diagnostiko sistematikoa, edo Zuzenbidean egitateak onestea.

1. KOADROA. Ebaluazioa, jarduera zientifikora mugatzea.

"EK-Rs" EREDUAREN EBALUAZIO-ESTATUTUA

Ebaluazioaren kontzeptua deskribatzen duten ezaugarriak gogoan hartuta, eta ebaluazioa jarduera zientifikora mugatzen duten irizpideak kontuan hartuta, zera aztertu nahi dugu: honako lan honetan proposatzen eta aztertzen den EK-RS eredia ebaluazioaren estatuaren barruan ote dagoen.

Jarraian agertzen den koadroan ebaluazioa definitzen duten ezaugarrien eta lan honen xede den ebaluazio-eredua definitzen duten ezaugarrien arteko konparazio labur bat egiten da.

	FAKTOREAK		
	INFORMAZIOA - EZAGUPENA		
	FENOMÉNICO MEDIATO	FENOMÉNICO INMEDIATO	AXIOLÓGICO INMEDIATO
Ebaluazioa jarduera zientifiko bezala deskribatzen duten elementuak	<p>- Ebaluatuko den gaiari dagokionez:</p> <p>a) Ebaluatuko den gaia zehaztea, bai eta ekintzaren orientazioaren helburuak ere</p> <p>b) Gaiari buruzko informazioa eta datuak emango dizkiguten lanabesak eta baliabideak zehaztea</p> <p>→ Bitartezko ezagupena, alde zurretik egindako ikerketan eta/edo baieztatuko esperientzian oinarrituta</p>	<p>- Honako baldintza gauen ondorioz sortua:</p> <p>a) Aztertutako errealtatearen gainean lanabesak eta baliabideak erabiltzea</p> <p>b) Informazioa prozesatzea</p> <p>c) Informazioaren interpretazio profesionala</p> <p>→ Ebaluatu den objektuari buruzko berehalako ezagupena. Ezagupen ebaluatzailearen sormena</p>	<p>- Lanabesei esker lortutako informazioa neur-tzea, gaiari buruzko ezagupenen bitartez, eta:</p> <p>a) Lanabasen bitartez lortutako informazioarekin isomorfikoki egokitutako balio-judizioak egitea</p> <p>b) Ebaluatu den kasuari buruzko informazioaren eta ezaugarrietan oinarritutako proposamenak formulatzea</p>
EK-Rs eredu osatzen duten faktoreak	<p>EBALUAZIO DISEINUA</p> <p>-Ezagupen estrategikoak:</p> <p>a) Xedea</p> <p>b) Helburuak</p> <p>- Ezagupen instrumentala:</p> <p>a) Lanabesak</p> <p>b) Baliabideak</p>	<p>EBALUAZIOAREN GARAPENA</p> <p>-Conocimiento evaluativo:</p> <p>- Informazioa sortzea:</p> <p>a) Ebaluazio lanabesak erabiltzea</p> <p>b) Informazioa prozesatzea</p> <p>c) Informazioa interpretatzea</p>	<p>- Balio-judizioak eta txostenak sortzea:</p> <p>a) Banakako informazioa eta/edo elkar-subjektiboa neurtzea</p> <p>b) Informazioara egokitutako balio-judizioak egitea</p> <p>c) Balio-judizioak txosten batean idatziz adieratea</p> <p>d) Ebaluatu den objektura eta testuingurura egokitutako proposamenak formulatzea</p>


2. KOADROA. "EK-Rs" ereduaren ebaluazio-estatutua.

EBALUAZIO-FUNTZIOAREN AZTERKETA: BERARIAZKO FUNTZIOAK ETA FUNTZIO ERATORRIAK

Hurbilketa orokor bat eginez esan daiteke antolakuntzen bizitzan ebaluazioak betetzen duen funtzioa, erakunde-mailako ekintza jakin batzuei buruz berariazko informazioa sortzean espezializatuta dagoela, eta behar bezala arrazoituta ekintza horiei balio-judizioak esleitzen zaizkie; horren guztiaren helburua ezagupen praktikoa eskuratzea, erabakiak behar bezala orientatzea eta erakunde-mailako kudeaketaren atzeraelikadura lortzeko balio partekatuak sortzea da.

Antolamendu-mailan kudeaketa-estilo hau erabiliz, garatutako ekintzen itsutasuna eta berehalakotasuna gaintzea lortzen da. Hain zuzen, erakunde-mailako funtsezko ekintzak garatu baino lehen, plangintza eta antolamendua baten bitartez aurreikusten direnean, ekintzak kuantifikatu egiten dira. Modu berean, ekintza horiekin guztiekin batera ekintzen informazioa eta ezagutza ematen bada, eta ekintzei balioa eta esanahia ematen bazaie, ekintzak berbideratu egiten dira balorazioaren eta ebaluazioaren bitartez.

Kudeaketa-estiloak garapen-ekintzei garrantzi handia ematen die plangintzaren eta ebaluazioaren bitartez, eta "informazioa eta ezagutzaren arteko lotura" bat osatzen da, jarraian agertzen den irudian ikus daitekeen bezala.



2. IRUDIA. Kudeaketa-begizta: "Informazioa-ezagupena" izeneko sistema.

Horrela ulertutako ebaluazio-kudeaketa banakako eta antolamendu-mailako lanabes boteretsua da eta lau berariazko alderditan du eragina:

BERARIAZKO FUNTZIOAK

Ebaluatu den errealitateari buruzko ezagupen praktikoa areagotzea

Ebaluazio-kudeaketaren prozesuaren barruan bi faktore dira beharrezkoak aipatutako helburua lortzeko:

- a) Ebaluatu den gaiaren inguruan ikerketaren eta/edo esperientzia baieztatuaren bitartez eskuratutako ezagupenetik abiatuta *ebaluazio-diseinuak* lantzea, bereziki "helburuak" eta "ebaluazio-lanabesak" kontuan hartuz.
- b) Ebaluazio-diseinuaren baitan biltzen diren *ebaluazio-lanabesen* bitartez ebaluatutako errealitateari buruzko informazio zuzena lortzea, eta ondoren informazioa prozesatzea.

Aipatutako bi faktoreak integratuz objektuari buruzko informazio esanguratsua eta erabilgarria lortuko dugu, betiere objektuari buruzko berehalako ezagupenaren esparruan. Eta horretarako, ebaluazio-estrategia integratu behar da, baieztatutako esperientziaren eta/edo ikerketaren (berehalako ezagupena) arabera garrantzitsuak diren ebaluaziorako objektu eta helburuak argitzen dituen, eta gainera ebaluazio-lanabesak erabili behar dira, objektuari buruzko berariazko informazio eta datuak "berehalakoan" ematen baititu.

28

Ebaluazioa informazio-ezagupenerako sistema gisa

Ebaluazioa egiteko balio duten ekintzak ebaluazioa jarduera zientifikora mugatzeko baliagarriak izango dira jarraian aipatzen diren bi baldintzak betetzen badituzte:

- a. Ebaluazio-diseinuen bitartez gaiari buruzko ikerketaren ezagupen eguneratua adieraztea, hau da, *helburuak* eta *lanabesak* (bitartezko ezagupena).
- b. Ebaluazio-lanabesak erabiliz ebaluazioaren objektuari eta helburuei buruzko informazio esanguratsu gehigarria eskuratzea (berehalako ezagupena).

3. KOADROA. Ebaluazioa informazio-ezagupenerako sistema gisa.

Erabilgarri dagoen ezagupenari esanahia emango dioten balio-judizioak esleitzea

Sortutako informaziora egokitutako balio-judizioek giza esanahia ekartzen dute, balio instrumentalaz haraindi, eta esanahiaren eta zentzuaren arteko lotura intersubjektiboak

ahalbidetzen dira. Hain zuzen, ebaluazio-diseinuak esanahia eta zentzua ematen die ebaluatzeko interesgarriak diren alderdi desberdinei, eta ebaluatu daitekeena bereizten eta zehazten du; eta ebaluazio-lanabesak erabili ondoren eskuratzen den informazioak eta datuak, berriz, oso aberatsak dira esanahiari dagokionez, hau da, zentzu instrumental eta gizatiar handiko ezagupena eskura daiteke.

FUNTZIO ERATORRIAK

Banakako eta taldeko erabakiak hartzeko orientatzea, ebaluazio-informazioan oinarrituta

Jakin badakigu ebaluazioak ebaluatzen den errealitateari buruzko datuak eta informazioa eskaintzen dituela; ebaluazioaren objektuarekin erlazionatutako ekintzei buruzko informazioa ematen du. Eta ezagupena ekintza jarraituak gidatzeko baliabide gisa erabiltzen denean atzeraelikadurazko funtzio bat betetzen du, hau da, zuzenketa-funtzioa (atzeraelikadura negatiboa) edo errefortzu-funtzioa (atzeraelikadura positiboa). Ebaluazio informazioak alderdi eta erlazio berriak azaleratzen ditu, eragileen ikuspegitik begi-bistakoak ez direnak, eta ondorioz, ekintzarako estrategia berriak eta eraginkorrak lan daitezke. Horrela ebaluazioari esker banakako eta erakunde-mailako erabakiak hartzeko orduan orientazioa lortzen dugu, erabakiei esanahia, balioa eta zentzua ematen zaielarik.

Balio partekatuen sortzea eta/edo azpimarratzea

Giza ikuspegitik, ebaluazio-ekintza komunikazio-ekintza bat da funtsean; hau da, ebaluazioa garatzen duen taldeak esperientzia, ikuspegi, itxaropen eta balorazioei buruzko informazioa partekatu behar du. Komunikazio-informazio pilari esker giza elkarreraginak testuinguru batean kokatzen dira eta balioen ikaskuntza partekatua ahalbidetzen da. Zentzu honetan, ebaluazio-funtzioa erakunde-mailako kultur sormeneko baliabide garrantzitsu bat izatera irits daiteke.

Ebaluazioaren funtzioak aztertzeko orduan baieztatu ahal izan dugun bezala, ebaluazio-ekintza ezagutza-mailakoa da, lehen definitu dugun mugaketa epistemikoarekin bat etorritik. Hain zuzen, lehen deskribatu ditugun funtzioak, —orokorra eta berariazkoak—, profil horren menpe daude.

Modu honetan ulertutako ebaluazioa mugatua eta ez oso praktikoa dela esan daiteke. Baliteke ekintzarekin konpromiso-maila handiagoa duten funtzioak espero izatea, ekintza ebaluazioaren eta hobekuntzarako erabakien arteko irtenbiderik gabeko *continuum* bat

dela interpretatzen badugu. Bestalde, ebaluazioa eta erabakia gizakiaren ekintza intenzionalaren alderdi desberdinak dira. Lehenengoaren kasuan, jakinduria eskuratu nahi da, eta bigarrenaren kasuan, erabakiak hartu, gauzatu, antolatu eta praktikara eramaten dira. Horren adierazlea da, erabaki bat hartzeko orduan alde aurretik ez dela beti ebaluazio bat egiten, eta jakin badakigu makina bat erabaki hartzen dela behar bezalako arrazoiketarik egin gabe.

Egindako bereizketa bereziki esanguratsua da ebaluazioaren terminoak hezkuntza-mailan duen okerreko erabilerei begira, hain zuzen, ebaluazioa kalifikazioarekin (notak jartzea) edo egiaztapenarekin (gainditzea edo ez gainditzea) erlazionatzea. Kalifikazio bat edo nota bat jartzea ez da ebaluazio bat egitea, baizik eta erabaki bat hartzea. Adibidez, ikasle bati zazpi bat jarri zaio eta positiboki egiaztatzea lortu du, baina horrek ez du esan nahi ebaluazio-ekintzak garatu direnik, baizik eta administrazio-mailako erabakiak hartu direla kalifikazioari eta ziurtapenari dagokienez. Kontuan hartu beharreko alderdia da hartzen diren erabakiak informazio eta datuetan behar bezala oinarritu ote diren.

AUTOEBALUZIOA ETA ERAKUNDE-IKASKUNTZA

30

AUTOEBALUAZIOAK ESKOLA-ERAKUNDEEN IKASKUNTZARI EGITEN DION EKARPENA

Barne-ebaluazioa oso baliabide sendoa izan daiteke esparru komunak eta ikaskuntza kolektiboa sortzea sustatuko duen analisi, gogoeta eta elkarrizketa kolektiboko prozesu honi hasiera emateko. Kasu honetan ikaskuntza kolektiboa adimen-mapa partekatuen sorrera gisa ulertu beharko da.

Ebaluazioak ikaskuntza lagun dezake, baldin eta lanbide-ekintza burutsua errazten badu, irakasleen premia eta nahien emaitza bada –eta ez zuzendaritza-taldearena soilik–, erantzukizun partekatuan oinarritzen bada –guztiak dira ebaluatzaile eta ebaluatu– eta auto-ebaluazio-prozesuen emaitza gisa sortzen den ezagutza guztion jabetzakoa bada.

Barne-ebaluazioak gizarte, eskola, ikaskuntza eta abarri buruz irakasleek dituzten ikuskerak zehazteko aukera emango du eta, hala, ikuskera hauek modu kolektiboan eta partekatuan berreraikitze aukera izango da.

Antolamendu-ikaskuntza barne-eztabaidako eta barne-gogoetako prozesuen bidez garatuko da, ez da kanpoko orientabide, aholku eta norabideen bidez garatuko, hauek bikainak badira ere.

Ikastetxeetan ebaluazio-kultura garatzeko prozesua makala da eta behar-beharrezkoak dira kanpoko laguntza sendoak. Laguntza hauetako bat zuzendaritza-taldeei eta irakasleei zuzendutako autoebaluazio-gaitasunak garatzeko prestakuntza da; beste bat ebaluazioaren alderdi zehatzei buruzko kanpoko aholkularitzaren laguntza izango da –kasu hauetan kanpoko espezialisten laguntza jasoko den arren, ez zaie barruko eragileei protagonismorik kenduko–. Kanpoko laguntza beste ikastetxe batzuekin koordinatzeko bileren bitartez bidera daiteke; izan ere, bilera hauetan esperientziak truka daitezke eta administrazio-arloko laguntza eskaini daiteke beharrezko baliabideak lortzeko, baita autoebaluazioa egiteko behar den denbora hartzeko ere. (San Fabián, J.L. 1996).

Autoebaluazioa ikaskuntzarako lagungarria izan dadin etengabe azaldu behar da autokritika egiteko jarrera. Erakundearen autoebaluazioaren oinarria lankidetzakritikoa izango da. Prozesua zorrotza izango da, baina autoebaluazio-sistema baten bitartez gertatzen diren aldaketei errazago eutsiko zaie kanpotik sustatzen diren aldaketei baino.

Ebaluazio-kudeaketako prozesuak garatzea erronka handia da erakundeentzat, eta eragin zuzena izango du pertsonengan. Barne-funtzionamenduan ebaluazioa aintzat hartzen duen edozein motatako antolakundek autonomia bereganatuko du erakunde-mailako zeregin esanguratsuenen analisi eta balorazioan, erantzukizunak betetzearen egiaztapean eta proposatutako helburuen lorpen-mailan.

ZEIN EBALUAZIO?

Kanpoko ebaluazioak ahalmen handiak ditu eta barne-ebaluazioaren alde onak aipatzeak ez du esan nahi barne-ebaluazioa soilik erabili behar denik. Eskolaren eraginkortasuna lortzeko eta hobetzeko mugimenduak erreferentziatzat hartuta, eta horien osagarritasuna abiapuntu izanik, ebaluazioak elkartu egin beharko lituzke, batetik, eraginkortasuna –baliabideen eraginkortasuna zein emaitzak lortzeko eraginkortasuna– eta, bestetik, hobekuntza –antolakundearen beraren ezagutza eta optimizazioko prozesu gisa erabilia.

Horrenbestez, funts publikoekin eusten den ikastetxe batek bere emaitzen *berri eman* beharko du eta, gainera bere aurrerapenen *kontu eman* beharko dio bere buruari; horrela, bere alderdi sendoei eta ahulei buruzko datuak eskuratuko ditu eta erakundea hobetzeko erabakiak hartu ahal izango dira (Bolívar, 2001).

Hori dela-eta, barne-ebaluazioa ez da kanpo-ebaluazioaren antonimotzat hartu behar; bi ebaluazioak batera egin daitezke, eta hala egitea desiragarria izango da. David Nevo-k ondokoa adierazi zuen (1997:167): "Ikastetxe baten ebaluazioa kanpokoa eta, aldi berean, barrukoa baldin bada, ebaluazioa hobekuntzarako elkarrizketa bihurtuko da eta kanpoko salaketak eta barruko erantzunak gaingidituz."

Bi ikuspegi hauek optimizatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da erakundearen ezagutza hobea sortuko duen elkarrizketa finkatzea. Haatik, kanpoko ebaluatzaileen eta erakundearen artean komunikazioa finkatu aurretik, komeni da erakundeak barne-ebaluazio-ko prozesuak egitea, hala elkarrizketa aberatsa eta eraikitzailea sortu ahal izango baita. Hala egiten ez bada, kanpoko ebaluazioak ezin izango du eragin nabarmena izan erakundearen hobekuntzan, eta kontroltzat hartuko da nagusiki.

Ebaluazioak ezagutza praktikoa sortzeko funtzio zehatza du, eta ezagutza praktikoa hau beharrezkoa izango da eskola-erakundeek komunikazioaren eta aldakuntzen arloan hartu beharreko erabakietan orientatzeko. Izan ere, ebaluatutako jarduerak atzeraelikatzen dituen baliabide baten moduan funtzionatzen du, eta esanahia, balioa eta zentzua gaineratzen du. Hori dela-eta, erakundeen kultur sormenerako eta ikaskuntzarako baliabide garrantzitsua da.

Irakasleentzat ebaluazioa prestakuntzarako eta hobekuntzarako aukera paregabea da. Informazioa aztertzeak eta iritzi arrazoitua sortzeko beharrezkoa den gogoeta egiteak hezkuntza-praktikaren izaera eta zentzua ulertzea eskatzen du; gainera, hezkuntza-praktikari buruzko ikuskerak batera eraikitzeko aukera emango du. Hezkuntza-praktika optimizatzeko aukera emango du.

ERAKUNDE-AUTOEBALUAZIOARI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA

Ebaluazioa hezkuntza hobetzeko erabili behar da beti: helburuak berriro definitzeko; ikastetxearen lanbide-praktika, antolamendua eta kudeaketa optimizatzeko; eta abar.

Ez dira emaitzak soilik ebaluatu behar; irakatsi eta ikasteko prozesua, erabakiak hartzeko prozesua, harremanetarako giro egokia sortzeko prozesua, baliabideak eta beren erabilera ere ebaluatu beharko dira.

Ebaluazioak prestakuntza-funtzioa bete beharko du (hobetzera orientatu eta lagundu beharko du) eta gaineratze-funtzioa ere bete beharko du (ebaluatutako objektuak beste alternatiba edo aukeren aurrean duen meritua erakutsiko duten emaitzen informazioa eman beharko du). Barne-ebaluazioa kanpoko bano sendoagoa izango da prestakuntza-funtzioa betetzeko.

Barne-ebaluazioa irakasleen ekimenaren ondorioz abiarazi baldin bada, barne-ebaluazio hau antolakundeko goi-mailak edo kanpoko eragileek ezartzen duten ebaluazioa baino onuragarriagoa izango da aldaketen kasuan.

Barne-ebaluazioa ikastetxerako eta irakasleentzat onuragarria izan dadin ebaluazio-prozesuaren kontrolak eta, batez ere, iritzien burutzapenak ebaluatutako pertsonen esku egon beharko du; hala, ebaluatutako objektuari buruzko ezagutza partekatua eraikiko da.

Kanpoko ebaluazioa eta barne-ebaluazioa eginez gero, eskola hobeto ulertzeko aukera emango duen elkarrizketa eraikitzailea sortuko da.

Santos Guerra-k (1996) ondokoa adierazi zuen "pertsonenganako errespetua, txostenen isilekotasuna, ebaluatutako pertsonen anonimotua eta profesionalen pribatutasuna bermatuko duten arau etikoek gidatuko dute ebaluazioa. Ebaluatuko direnekiko edo ebaluazioaren ondorioen eraginpean egon daitezkeenekiko errespetua izan beharko da".

Ikastetxearen errealitatea eta bertan gertatzen diren prozesuak konplexuak direnez gero, testuinguru zehatz batera egokitutako metodo sentikorrek –konplexutasuna jasotzeko– eta askotarikoak –zorrotasuna bermatzeko– erabili beharko dira.

Nolanahi ere, autoebaluazioa egiten duen ikastetxeak bere gain hartu beharko du ebaluazioaren eta bere erabileraren ondorioen erantzukizuna eta eskola hobetzera bideratuko diren beharrezko erabakiak hartu beharko ditu.

Barne-ebaluazioa abiarazteak ekintza zehatz batzuk eskatzen ditu ebaluazioa arrakastatsua izan dadin, hala nola ebaluazioak txarrak direlako kexatzeari uztea eta ebaluazioak egiten eta hobetzen hastea. Era berean, ebaluazioaren deskribapenen eta iritzien hartzaille pasibo izateari utzi behar zaio, parte-hartze aktiboa eduki beharko da eta ikuspegi eta iritzi arrazoituak gaineratu beharko dira.

Barne-ebaluazioari ekin aurretik, hezkuntza-elkarteak eta, batez ere, irakasleek argi eta garbi izan beharko dute ebaluazioa beharrezkoa dela hobekuntzarako eta ebaluazioak ahalmen handiak dituela. Ondoren, antolamendu-testuinguru egokia finkatu beharko da: *Nahi izatea*, jarrera ireki, malgu eta positiboak izan behar dira hasi nahi den ebaluazio-prozesuari dagokionez. *Jakitea*, oinarrizko prestakuntza izan beharko da ebaluazioa arrakastatsua izan dadin bermatzeko. *Ahal izatea*, antolamendu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide materialak eduki beharko dira.

Prozesua planifikatzeko faseak eta ebaluazioa diseinatzeko faseak ahalegin handia eskatzen dute eta ahalegin hau aurrerago egingo da errentagarri. Ebaluazioa burutzen denean parte hartzeko espazioak eduki beharko dira, ebaluazio-bilerak egin beharko dira, informazioa aztertzeko eta iritzi partekatutako sortzeko espazioak eduki beharko dira.

EBALUAZIOAREN KONTZEPTUAREN LABURPENA

Ebaluazioaren inguruko oharrak

1. Ez dira neurketa eta ebaluazioa nahastu behar. Neurketa oro datuen bitartez adierazten da. Neurketa-lanabesak, hala nola probak, galdeketak, eta abar, errealitate kuantifikagarriak ebaluatzeko erabilgarriak dira, betiere baliagarriak eta fidagarriak badira. Kuantifika ezin daitezkeen errealitateak neurtzean ikuspegi murriztua geureganatzen dugu, eta kasu askotan, gainera, ez da egiazkoa izaten.
2. Ebaluatzea ez da gogoeta egitea bakarrik.
3. Balorazioa ez da ebaluazioa. Balorazioak osagai subjektibo handia duten iritziak dira. Iritzi askoren estandarizazioa ere ez da ebaluazioa. Iritzi-galdeketen bidez egiten diren balorazio-ekintzak iritziaren Soziologiaren multzoan sartuko lirateke ebaluazioaren multzoan baino gehiago.
4. Ebaluazioa, ekintza objektibo-subjektiboen bitartez, hala nola elkarrizketak, probak, galdeketak eta elkarreraginak, lortutako datuetan oinarritutako balio-judizioa da.
5. Ebaluazioa eta hobekuntza ez nahastea oso garrantzitsua da. Bata bestearen osagarri badira ere, giza ekintza intenzionalaren esparru desberdinekoak dira. Ebaluazioak ez ditu beti hobekuntzak ekartzen. Hobekuntzak, ebaluazioaz gain, beste zenbait faktoreren beharra du, hala nola baliabideak, aldeko jarrerak, konpromisoa, lidergoa, eta abar.
6. Hezkuntza-mailan garrantzitsua den alderdi oro ez da beti ebaluatu ahal izaten. Deskriba daitekeena bakarrik ebalua daiteke; informazio objektibatua emango diguten alderdiak bakarrik.
7. Edozein pertsonak ezin du ebaluazioa berak nahi bezala garatu. Eragile ebaluatzaileak, banakakoa edo taldea, hiru baldintza bete behar ditu: a) ebaluazio-prozesuak garatzen jakitea, hau da: ezagupen teknikoak eta gizarte-trebetasunak edukitzea, b) ebaluatzen den gaiari buruzko ezagupenak edukitzea eta c) legitimitatea edukitzea.
8. Ebaluazio-prozesuak eraginkortasunez garatzen ikastean prozesu heuristiko bat lortzen dugu (entsegua-errorea). Ebaluatzen ikasteko ebaluatu egin behar da, 7. puntuan aipatutako baldintzak betetzeaz gain.
9. Ebaluazioa burokratizatzeke benetako arriskua dago: ebaluazioa dokumentaziora murriztea, alferrikako galdeketak erantzutea, denbora galtzea.
10. Pertsona eta erakundeei begira ebaluazioa kalitatezko faktore izateko hainbat baldintza gogoan hartu behar dira: a) ebaluazioaren kontzeptuari eta teknikei dagokienez prestakuntza, b) antolamendu-mailako baldintzak kontuan hartuta ebaluazio-eredu egokiak erabiltzea, c) prozedura teoriko-praktikoei jarraituta ebaluatzen ikastea, ikasleak modu autonomoan eta eraginkorrean egiten ikasi arte, d) ebaluazioaren inguruko ezagupen teoriko-praktikoak dituzten profesionalengandik ikastea, e) ebaluazio-kudeaketako zirkuitu oso bat behin baino gehiagotan baieztatzea ikaskuntzak sendotzeko, f) zuzendaritza-taldearen eta beste-lan profesionalen lankidetzaren lortzea.

4. KOADROA. Ebaluazioaren esanahiaren inguruko oharrak.





**“EK-Rs”
autoebaluazio-eredua**

Jarraian, "EK-Rs" autoebaluazio-ereduaren deskribapena eta azterketa egingo da. Lanaren metodologiari jarraituz, informazioa hainbat kapitulutan antolatu da, hartara, alde batetik informazio guztia errazago ulertzeko, eta bestetik, aurkeztutako informazio guztia ebaluazio-lantegi batean erabiltzeko egokia izateko; horrela, prozedura praktikoa bat jarraitu beharko da, eta horrekin lotuta, informazio interesgarriak, teknika erabilgarriak, fitxa praktikoak, eta abar bildu dira lanean.

Honako kapitulu honetan, proposatutako ebaluazio-ereduaren deskribapen orokorra egingo dugu, eta eredu osatzen duten faktoreak zehaztuko ditugu. Ikusiko dugun bezala, ebaluazio-kudeaketako eredu hau kudeaketa-prozesuaren hiru fase logikoen arabera antolatuta dago: plangintza, garapena eta metaebaluazioa. Horrez gain, ebaluazio-eredua azaltzeko metafora bat erabili da, "hiru ispiluen" metafora hain zuzen.

Ondorengo kapituluetan zehazkiago aztertzen dira ebaluazio-kudeaketako prozesua osatzen duten hiru faseak eta horiekin lotuta hainbat baliabide eta adibide aurkezten dira, guztiak honako lantegi hau garatu ahal izateko aproposak.

Azkenik, ereduari buruzko adibideak aurkezten dira; bi ebaluazio-diseinu desberdin landu dira, hezkuntzaren munduan oso esanguratsuak diren "objektuetatik" abiatuta, eta adibide bakoitza aztertzeko eredu nagusiaren jarraibideak hartuko dira kontuan, bereziki alderdi formalei eta teknologikoei dagokienez.

"EK-Rs" EREDUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

"EK-Rs" autoebaluazio-eredua *ebaluazioaren kudeaketa* egiteko prozedura sistematiko bat da, erakundeen barne-antolamenduaren ebaluazioaren ezaugarriak kontuan hartuta landu eta egokitu dena.

Aipatutako prozedura hiru fasek osatzen dute:

- a) *Plangintza*. Ebaluazio-ekintza prestatzea; ebaluazio-diseinu bat lantzen da, eta normalean, ebaluazioaren garapena baino lehen egiten da.
- b) *Garapena*. Ebaluazio-aurreikuspenak ezartzea.
- c) *Metaebaluazioa*. Garatutako ebaluazioaren analisi kritikoa.

EBALUAZIOAREN PLANGINTZA: "ED-Rs" AUTOEBALUAZIO-DISEINURAKO EREDUA

Ebaluazio-ekintza bat prestatzeko, plangintza-mailako ezagupenak eta trebetasunak martxan jarri behar dira. Ebaluazioari dagokionez, plangintza prestatzeko prozesuan funtsezko bi elementu hauek kontuan hartu behar dira: alde batetik, "ideazio estrategikoa", hau da, ebaluazioaren helburuak zehaztea, eta horretarako "Zein da ebaluazioaren xedea? galderari erantzun beharko zaio, bai eta ebaluazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren datuak eta informazioak lortzeko "zein lanabes" behar izango ditugun zehaztu ere. "Nola beteko ditugu helburuak?" eta "Zein bitarteko erabiliko ditugu...?" galderak dira ebaluazioaren instrumentazioaren inguruko funtsezko galderak.

Ondorioz, ebaluazioaren plangintza, oinarrian, elkarrekin erlazionatuta dauden bi faktorek osatzen dutela esan daiteke, hain zuzen:

a) *Ebaluazioaren estrategia*. Bi elementu erlazionatu behar dira:

– *Ebaluazioaren objektua*. Interesgarria eta garrantzitsua delako ebaluatzeko aukeratu den gaia zehaztea.

– *Ebaluazioaren helburuak*. Ebaluatzeko aukeratu den objektuarekin lortu nahi diren helburuak zehaztea.

b) *Ebaluazioaren instrumentazioa*. Bi elementu biltzen ditu:


– *Ebaluazioaren lanabesak*. Ebaluazioaren helburuei buruzko "informazioa" (datuak eta balorazioak) aukeratzeko eta/edo sortzeko ebaluatzaileak hartutako edo landutako gailu teknologikoak.

– *Baliabideak*. Ebaluazioa burutu ahal izateko beharrezkoak diren bitartekoak.

Jarraian aurkezten den irudian, "ED-Rs" ereduaren araberako autoebaluazio-diseinuaren egitura eta edukiak adierazten dira.

Ebaluazioa egiteko orduan, plangintzaren prozesuan zehazten den edukia funtsezkoa da, izan ere, gainontzeko ebaluazio-prozesuak eduki horren kalitatearen araberakoak izango dira. Berezik,

a) Ebaluazioaren objektua aukeratzeko eta zehazteko orduan asmatzea, eta ebaluazioaren helburuak zehaztea.



1. IRUDIA. "ED-Rs" autoebaluazio-diseinurako eredua osatzen duten faktore desberdinak.

- b) Ebaluatzaileek landutako eta/edo hartutako ebaluazio-lanabesak eta ebaluazioa ezartzeko beharrezkoak diren baliabideen aurreikuspena egokiak eta zorrotzak izatea.
- c) Erakunde-mailako premiak eta lan-giroa ebaluatzeko aukera izatea.

Aldi berean, plangintza lantzeko orduan, ebaluatzaileen eta parte-hartzaileen profila kontuan hartu behar da. Edonola izanda ere, ebaluatzaileek ebaluatu behar den gaiaren inguruan eta ebaluazioaren kudeaketaren inguruan gaitasunik ba ote duten baieztatu behar da, beharrezkoak izan daitezkeen aholkularitza espezializatuak aurreikusi behar dira, eta protagonista guztien parte-hartzea ziurtatu behar da bereziki, hartara informazio egjazioa, esanguratsua eta anitza eskuratu ahal izateko.

Hirugarren kapituluan ebaluazio-diseinuen lantze-prozesua aztertzen da, "ED-Rs" autoebaluazio-diseinuaren eredua proposatzen da, eta zehazki eta sakonki aztertzen dira aipatutako eredua osatzen duten lau faktoreak, lantegiaren formatu praktikoari esker.

Seigarren kapituluan ED-Rs ereduaren arabera egindako ebaluazio-plangintzen ezarpenari buruzko hainbat adibide ikus daitezke.

EBALUAZIOAREN GARAPENA

Ebaluazioa egiteko, aldez aurretik landutako ebaluazio-plangintza garaiz eta behar bezala ezarri behar da, eta ebaluazioaren helburuak lortu ahal izateko beharrezkoak diren funtzioak, trebetasunak eta elkarreraginak aktibatu behar dira.

Ebaluazioaren garapena desberdina izango da ebaluazioaren tipologiaren arabera, bertan nahastutako pertsonen arabera, eta abar. Edonola izanda ere, ebaluazioa egiteko, hainbat alderdi tekniko eta sozial hartu behar dira kontuan. Hau da, ebaluazioaren ezarpen-prozesuak koherenteak izan behar dira plangintzaren ezaugarri teknikoekin eta metodologikoekin, eta aldi berean, ebaluazioa egingo den erakundeen ezaugarriak kontuan hartu behar dira, bai eta talde eta pertsonen erritmo eta ezaugarri desberdinak ere. Ezin dugu ahaztu, ebaluazioa komunikazio-prozesu bat dela eta "objektu" garrantzitsuei buruzko informazio zehatza sortzera bideratzen dela, hartara ezagutzak zabaltzeko, erabaki optimizatzaileak orientatzeko eta balioak partekatzeko.

Azaldutako ikuspegi teknikotik, ebaluazio-ekintza garatzeko orduan gogoan hartu beharreko oinarrizko eragiketak honako hauek dira:

Ebaluazio-informazioa sortzea

3 une desberdin bereiz daitezke:

- a. *Ebaluazio-lanabesen ezarpena* ebaluazio-diseinuan esplizituki zein implizituki egindako aukera metodologikoen arabera. Ebaluazioaren informazioa biltzea.
- b. *Ebaluazioaren informazioa prozesatzea*, informazio kualitatiboa eta/edo kuantitatiboa. Teknika kuantitatiboak erabili beharko dira, hala nola estatistika deskribatzaileak, edo teknika kualitatiboak, esate baterako, matrize deskribatzaileak, kategorien sistemak, eta abar, lanabes bakoitzaren izaeraren arabera. Aipatutako alderdiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, gai honi buruzko hainbat liburu aurkituko duzue.

- c. *Ebaluazioaren informazioaren laburpena*, prozesatu diren lanabesen bitartez lortutako datuen laburpen deskribatzailea, esate baterako proben emaitzak, estatistika-datuak, behaketarako jarraibideak, galdeketak, elkarreraginak, eta abar.

Balio-judizioak sortzea eta horiek txosten batean adieraztea

Ebaluazioa egin eta lortu den informazioaren haztapen-prozesu konplexu bat garatu ondoren sortzen dira balio-judizioak. Honako hauek dira balio-judizioen ezaugarri azpimarragarriak:

- a) Ebaluazioaren prozesuan lortutako ebaluazio-informazioa ezagutzea.
- b) Ebaluazio-prozesuak emandako informazioaren banakako haztapena eta/edo haztapen intersubjektiboa.
- c) Eskura dugun informaziora egokitutako balio-judizioak egitea.
- d) Egindako balio-judizioak ebaluazio-txosten batean idatziz adieraztea.
- e) Ebaluatu den objektuaren eta testuinguruaren arabera, proposamenak formulatzea. Egingo diren proposamenak ebaluatutako gaira egokitu behar dira, eta errealistak izan behar dute, eta proposamen berriek izango duten eragina aurreikusi beharko dute.

Ebaluazio-kudeaketako ekintzen inguruan, bi mota desberdinetako balio-judizioak aurkitu ditugu: balorazioa egiten dutenak eta ebaluazioa egiten dutenak. Beste ikuspegi batzuetatik, berriz, balio-judizioei dagokienez, beste hainbat tipologia azpimarra daitezke, hala nola, etikoak, moralak, estetikoak, eta abar. Aurreko kapituluan aipatutako mugak gogoan hartuta, ebaluazio-funtzioa informazioa-ezagupenarekin lotutako jardueretara eta horren haztapen egokira mugatuta dagoela onartzen badugu, egin daitezkeen judizio-mota esanguratsuak izaera deskribatzailea dutenak bakarrik dira, eta ebaluatu den errealitateari eta ebaluazioa garatu den erakundeari buruz lortutako ezagupena datuen bitartez bereganatutako ezagupena adierazteko balio dute.

Balio-judizioak ebaluazioan

Bi motatakoak izan daitezke:

- *Balorazio-judizioak*: banakako ikuspegiak eta interesak adierazten dituzten iritziak eta balorazioak dira (eduki subjektiboa). Estatistikak erabiliz normalizatu daitezke.
- *Ebaluazio-judizioak*: ebaluazio-ekintza garatu ondoren eskuratu den informaziora egokituta-ko predikazio-perpauak dira. Banakakoak zein intersubjektiboak izan daitezke. Lehenengoen kasuan, gai jakin bati buruzko informazioa behar bezala haztatu ondoren pertsona batek adierazten dituen judizioak dira. Bigarrenak, hain zuzen intersubjektiboak, ebaluazio-objektu jakin baten inguruan lortutako informazioari buruz pertsona-talde batek egiten dituen balio-judizioak dira.

Oharra: Ebaluazio-txostenaren baitan bi motatako judizioak ager daitezke, baina bereizi egin behar dira. Txostenean ebaluazio-judizioak agertzen badira esango dugu ebaluazioa egin dela.

1. KOADROA. Balio-judizioen tipologia ebaluazioan.

Balio-judizioak sortzeko prozesua "*ebaluazio-bilkuren*" esparruan garatzen dute ebaluatzaileek. Gizarte-esparru jakin batzuetan balio-judizioak sortzeko elkarreraginezko harremanak izaten dira ebaluatzailearen, ebaluazioan parte hartuko duten lagunen eta beste-lako eragileen artean.

Ebaluazio-batzorde desberdinetako kideak zehaztean nolabaiteko norabide teknikoa ematen zaio ebaluazioari. Orohar esan daiteke, ebaluazio-batzordeetako kideak aukeratzeko gogoan hartu behar direla ebaluazioaren tipologia, erabilitako metodologiak, helburu desberdinak, eta abar.

Ebaluazio-bilkura, berez, pertsonen arteko komunikazioa gauzatzeko eszenategi bat da, eta helburu nagusizat ebaluazio-prozesuan eskuratutako informazioa ezagutzea, aztertzea eta baloratzea ditu.

Jarraian agertzen den koadroan ebaluazio-bilkura baten oinarritzko ekintzak aipatzen dira; hiru fase desberdinetan antolatu dira:

- a) Prozesatutako ebaluazio-informazioa ezagutzea. Bilkuran parte hartzen duten kideek informazioa trukatu behar dute.
- b) Ezagutzen den informazioaren araberako balio-judizioak adieraztea.
- c) Lortutako informazioaren eta egindako judizioen arabera, proposamen arrazoituak eta arrazoizkoak formulatzea.


EBALUAZIO-BILKURAREN FASEAK ETA EKINTZAK	
1. Ebaluazioaren objektuari buruz lortutako informazioa ezagutzea	<p>a. Lortutako informazioa erabilgarri edukitzea. Ebaluazio-bilkuran parte hartu duten kide guztien artean ebaluazioaren informazioa jasotzen dokumentua banatzea, datuen prozesamendua eta laburpena barne.</p> <p>b. Informazioa aztertzea. Hainbat prozedura jarrai daitezke, hala nola, dokumentuari buruzko iruzkinak egitea, informazioa gardenkien bidez azaltzea, eta abar.</p> <p>c. Informazioa neurtzea, datu eta informazio garrantzitsuak neurtuz, ikuspegi desberdinak erkatuz, kanpoko informazioa eta barruko informazioa erlazionatuz, informazioa kasu bakoitzaren erakundearekin, testuinguruarekin, eta abar erlazionatuz.</p>
2. Informaziora egokitutako balio-judizioak adieraztea	<p>d. Banakako balio-judizioak adieraztea: ebaluazioaren helburuekin erlazionatutako berariazkoak, eta orokorrak, ebaluazioaren objektuari buruzkoak.</p> <p>e. Balio-judizio intersubjektiboak egitea, horretarako elkarrizketaren bitartez parte-hartzaileen artean elkarreraginak sortu eta balorazio partekatutako, ikuspegi komunak, eta abar lortzeko; guztiak ad hoc landutako hizkuntz adierazpenetan zehaztuko dira.</p>
3. Proposamen arrazoizkoak eta gauzagarriak formulatzea	<p>f. Ebaluazioaren ondorioz, banakako ekintza-proposamenak adieraztea: berariazkoak, ebaluazio-diseinuaren helburuekin erlazionatutakoak, eta orokorrean, ebaluazioaren objektuarekin erlazionatutakoak.</p> <p>g. Ekintzarako proposamenak ebaluazioa burutuko duen taldeko kideekin partekatzea.</p>

2. KOADROA. Ebaluazio-bilkuraren faseak eta garatu beharreko ekintzak.

Azkenik, *ebaluazio-txosten* batean balio-judizioak eta horien oinarrian dagoen informazioa zehaztuko dira. Ebaluazio-txosten hori erakundeko eskumeneko organoari edo organoari jakinarazi behar zaie.

Ebaluazioaren plangintza egiten hasten denetik txostena idazten denera garatzen den ebaluazio-prozesuan islatzen da erakundeak eta bertan nahastutako lagunek ebaluazioa egiteko duten gaitasuna. Behar bezala garatutako ebaluazio baten ondorioz honako elementu hauek eskura daitezke:

- Erakundeari buruzko ezagupenak. Berariazko ezagupenak ebaluatu den objektuari dagokionez, bai eta erakunde-mailako alderdi desberdinekiko harremanei buruzko ezagupenak ere.
- Ebaluatu den gaiaren inguruan erabakiak hartzeko orientabideak.
- Balioak partekatzearen ondorioz, antolamendu-mailako kohesioa.
- Giza garapena eta antolamendu-mailako garapena.



2. IRUDIA. EBALUAZIO-GARAPENAREN FASEKO FAKTOREAK.

44

Liburuaren laugarren zatian lantegi bat garatzearekin batera, lanabesetatik abiatuta, "ebaluazio-informazioa sortzen" ikasteko, "balio-judizioak lantzeko" eta "ebaluazio-txostenak" formalizatzeko beharrezkoak diren elementuak aurkezten dira.

METAEBALUAZIOA

Metaebaluazioa egiteak garatutako ebaluazioaren kritika egitea esan nahi du eta helburu nagusia ebaluazioaren alderdi sendoak eta ahulak zeintzuk diren antzematea da.

Metaebaluazioaren baitan garatzen diren ekintzak oso garrantzitsuak dira ebaluazio-ekintza bera orientatzeko, azal daitezkeen akatsak edo aukera daitezkeen okerreko bideak zuzentzen dituztelako.

Garatutako ebaluazio-ekintza atzetik aurrera aztertu behar da eta bertan izandako akatsak eta ondo egindako gauzak azpimarratu behar dira, hartara aurrerago egingo diren ebaluazio-prozesuetan akats berak ez errepikatzeke.

Metaebaluazio-ekintza orotan honako elementu hauek bereizi ahal dira:

Kontuan hartu beharreko alderdiak

Ebaluazio-kudeaketako prozesuaren baitan aztertu eta kritikatu daitezkeen elementuak, bai elementu teknikoak bai gizarte-mailakoak. Bestek beste, honako hauek aipa daitezke,

- a) Objektuaren egokitasuna eta eraginkortasuna.
- b) Jarraituko den estrategia aukeratzeko orduan asmatzea, helburuak kontuan hartuz.
- c) Landutako eta erabilitako lanabesen egokitasuna eta zorrotasun teknikoak.
- d) Baliabideen egingarritasuna eta nahikotasuna.
- e) Lanabesak behar bezala erabiltzea.
- f) Informazioa prozesatzeko orduan, fidagarritasuna.
- g) Balio-judizioen isomorfismoa ebaluazio-informazioarekiko.
- h) Ebaluazio-txosten argiak eta zehatzak.
- i) Ebaluazio-txostenen gardentasuna.
- j) Proposamenen egingarritasuna eta zehaztasuna.
- k) Ebaluazio-ekintza talde desberdinei jakinaraztea.
- l) Ebaluazio-prozesuetan parte hartzea.
- m) Garatutako ebaluazioaren erabilgarritasuna.
- n) Erabilitako baliabideen eta lortutako emaitzen arteko proportzioa.

45

Eragile metaebaluatzaileak

Garatutako ebaluazioarekiko inplikazioa, ezagutza edo interesa dela eta ebaluazioari buruzko iruzkinak egiten dituzten pertsonak dira. Ebaluazio-prozesu bereko barne-eragi-leak izan daitezke, edo kanpokoak. Erakunde berekoak izan daitezke, baina ez dute zuzenean ebaluazio-ekintzan parte hartu, edo erakundetik kanpokoak izan daitezke.

- a) Ebaluazio-prozesuaren barrukoak: ebaluatzaileak eta parte-hartzaileak.
- b) Ebaluazio-prozesuaren kanpokoak: erakunde berekoak, hala nola zuzendariak edo profesionalak, edo erakundetik kanpokoak, esate baterako ebaluazioaren esparruko adituak edo ebaluatu den gaiaren adituak.

Metaebaluazioa egiteko kanalak eta eszenategiak

Metaebaluazio-informazioa igortzeko gailuak eta metaebaluazio-mezuak gauzatzen diren komunikazio-esparruak dira.

- a) Ahozko kanalak. Pertsonen arteko komunikazio-modu oro, euskarri magnetikoko ahozko informazioa barne.
- b) Idatzizko kanalak. Txostenak, erabakiak, eta abar.
- c) Elkarrekintzarako markoak. Bilerak egiteko modu oro.
- d) Idatzizko informazioa jasotzeko markoak: postaz, posta elektronikoz, eta abar jasotako informazioa irakurtzeko modu desberdin oro.

Metaebaluazio-ekintza jakin batekin proposatutako gai guztiak edo zenbait azter ditzake, aukera egokia bada eta hala egitea zilegi bada, noski.

Bosgarren kapituluan metaebaluazioa garatzeko prozesu bakun bat proposatzen da. Prozesu hori ebaluazio-prozesu bat garatu duen erakundeak erabiltzeko egokia da.


Prozesu bakun hau fitxa batek osatzen du, eta bertan, garatutako ebaluazio-ekintzari buruzko informazioa jaso daiteke.

"EK-Rs" EREDUAREN ESKEMA OROKORRA: "HIRU ISPILUEN" METAFORA

Kapitulu honetako aurreko ataletan deskribatu den EK-Rs ebaluazio-kudeaketako eredu bere osotasunean azter daiteke; eredu honetan alderdi eta elementu guztiak erlazioan eta islatzen dira metafora baten bitartez. "Hiru ispiluen" metafora, hain zuzen; ispilu bakoitzak ereduaren bi faktore erlazioan ditu: *objektua helburuekin, lanabesak baliabideekin, ebaluazio-informazioa balio-judizioekin*.

Ispiluak gorputzak islatzeko gaitasuna du, eta islatzen den gorputzaren eta islatzailearen artean erlazio bat ezartzen da. Hortaz, ispiluari esker, objektuaren —edukiaren eremua— eta ebaluazioaren helburuen —edukiaren ezagupenaren helburuak— edukien arteko halabeharrezko erlazioa islatzen du eta, horrela, objektua helburuen baitan kontuan hartzea, eta alderantziz, lortzen da. Modu berean, ebaluazioan erabiliko diren lanabesen eta baliabideen artean ere *proportziozko erlazioa* egotea ezinbestekoa da. Azkenik, ebaluazio-informazioaren eta balio-judizioen artean *isomorfismo-erlazioa* izatea lortu nahi da.

Aipatutako ideia guztiak jarraian azaltzen den irudian islatzen dira grafikoki. Ebaluazio-ereduaren faktoreak ispiluaren zatien bitartez bereizten dira, eta metaforikoki horien arteko erlazioa islatzen da (edukia, proportzioa eta isomorfismoa). Adierazitako elementuak ebaluazio-kudeaketaren oinarriko faseen arabera antolatu dira.



3. IRUDIA "EK-Rs" eredua: "Hiru ispiluen" metafora.



Ebaluazioaren plangintza:
"ED-Rs" autoebaluazio-
-diseinuaren eredia

Orokorrean, plangintza egiteko orduan kontuan hartu beharreko alderdiak dira: etorkizuneko ekintzak aurreikusteko eskumeneak aktibatzea, beharrezkoak diren baliabideen antolamenduarekin eta edozein esparru edo arlotan kudeaketaren prozesu orokorra eraginkorra egiteko hartu beharreko erabakiak.

Horrela, plangintza oro etorkizuna aurreratzea da eta gizakiak ekintzarako duen ahalmena adierazten du. Hala ere, eragina duten faktoreak anitzak eta asko dira eta ezinezkoa da guztiak plangintza honetan aurreikustea, hortaz, gizakiak plangintza batean zehazten dituen helburuak ere ez dira ziurtzat jotzen.

Hala eta guztiz ere, plangintzen bitartez ekintza garrantzitsuak aurreikusi behar dira, eta joera hori da, hain zuzen, gizakiaren ekintza intentzional orotan gailentzen ari dena. Esate baterako, ezinezkoa izango litzateke etxe bat eraikitzea aldeztatik inolako plangintzarik egin gabe, hala nola, planoak egitea, memoria teknikoak lantzea, lurrun bertako azterlanak egitea, kostuen azterlanak prestatzea, eta abar, nahiz eta jakin badakigun etxea eraikitzen den bitartean aldaketak egingo direla, berrikuntzak sartuko direla, aurrekontuak egokituko direla, eta abar. Eta horrek guztiak ez du hasierako plangintza indargabetzen, aitzitik, indartu egiten du.

Ondorioz, arazoa ez da zenbait jarduera garrantzitsuren edo konplexuren plangintza egitea, baizik eta aldeztatik egindako aurreikuspenak jarduera-esparru bakoitzean giza parametro eta parametro tekniko jakin batzuetara egokitzea, hala nola, ekoizpena, gizar-te-esparrua, ikerketa, eta abar; eta horien baitan, berariazko arlo bakoitzean, arloen ezauzgarrien arabera.

Hortaz, plangintzaren balioa ez dago plangintza eta ekintzaren arteko erabateko elkarrekotasunaren arabera neurtuko da (lehen esan dugun bezala, ikuspegi hori ez da errealista), baizik eta kudeaketa-prozesu orokorraren baitan duen funtzionaltasunaren arabera.

Plangintzaren funtzionaltasunaren bi oinarritzko adierazleak honako hauek dira:

- a) Plangintzaren egokitasun-maila. Jarduera-arlo bakoitzaren plangintza garatuko da eta ekintzak garatzeko orduan lagungarriak ote den ikusi. Denborak aurrera egin ahala, plangintza eta beraren garapena atzeraelikadurazko prozesuen bitartez egokitzen joango dira, probabilitate-maila onargarri batera iritsi arte, eta horrela, plangintza garatzeko lanabesetan egindako inbertsioa orekatzen da.
- b) Kostuak/etekinak erlazioa. Ekintzen garapenean eta azkenean lortzen diren emaitzetan plangintzak duen eragina aztertu behar da. Hainbat jarduera-arlotan egindako ikerketek aipatutako erlazioa neurtzen duten datuak islatzen dituzte.

Gizartean esku-hartzeko arloetan zailagoa da aipatutako erlazioa neurtzea, izan ere, kudeaketaren emaitza asko kuantifikatzea ezinezkoa da.

Gaur egun, plangintzaren funtzionaltasuna kudeaketa-prozesuarekin berarekin erlazionatutako faktoreekin dago lotuta. Faktore garrantzitsuenak honako hauek dira:

- a) Denbora. Epe laburrera, ertainera eta luzera egiten diren plangintzak bereizi behar dira. Epe luzerako plangintza da gutxien egiten dena, baina ekonomia-jarduerako eta ekoizpen-jarduerako erabaki-esparru orokorretan oso interesgarria izan ohi da, fluxuak modelatzeko eta erregulatzeko duen gaitasunagatik. Probabilitateak gora egiten du epe ertainera egiten diren plangintzetan erabaki estrategikoak hartzeko tarteko esparrutan. Epe laburrera egiten den plangintza da probabilitate gehien duena, baina errentagarritasun-mailako arazoak sor ditzake (kostuak/etekinak erlazioa) emaitzen ikuspegitik funtsezkoak diren alderdiei plangintzak berariazko garrantzirik ematen ez badie.
- b) Esperientziatik abiatuta atzeraelikadurazko gaitasunak garatzea, garapen-ekintzen eta plangintza-ekintzen artean. Garapen-zereginetara bideratutako energiak berriro elikatu behar ditugu aurreikuspenetarako eta antolamendurako energiekin, eta azken hauek garapen-zereginetan eragina izatea lortu behar da.
- c) Lidergoa emaitzak lortzera bideratua, erakunde-mailako proiektuak (plangintza) sustatuz, erresistentziak gaindituz edo trebetasun bezala erabiliz. Lidergoak, alde batetik ekintza eraldatzaileak sustatuko ditu, eta bestetik, proiektuen lorpena aurreikusiko eta osatuko du. Elkarreragin horrek etengabe berrelikatzen ditu ekintza eta ideiak.

Plangintzaren zereginari buruz egindako sarrerarekin amaitu ondoren, ebaluazioaren plangintza aztertuko dugu, eta zehazkiago autoebaluazioaren plangintza edo diseinua.

Hain zuzen, lehenengo kapituluan aipatu dugun bezalaxe, ebaluazio-zereginak, antolamenduetan garatzen diren ekintza jakin batzuei balioa, esanahia eta zentzua emateko funtzioak betetzera orientatzen dira. Hortaz, autoebaluazioaren funtzionaltasuna ebaluatu diren ekintzen esanahi, bideragarritasun eta arrakastari buruzko informazio haztatuak ematean datza, erakunde-mailako ekintza bera berriro elikatzeko.

Ondorioz, ebaluazioaren plangintza egiteko orduan lehentasuna eman behar zaie ebaluatzea merezi duten alderdiei, lortu nahi diren ebaluazio-helburuak zehazteari eta burutu

nahi den ebaluazio-ekintzak beharrezkoak dituen lanabes eta bitartekoak hornitzeari. Horiek dira, hain zuzen, plangintzaren oinarritzko zereginak.

Hori bai, ebaluazioaren plangintzan faktore horiek zehaztu nahi baditugu, edozein kasutan, ebaluazioa, erakunde-mailako aukera eta ebaluatzaile-taldearen gaitasuna hartuko dira kontuan, hartara, garatuko den ebaluazio-ekintzak funtzionaltasun-maila onargarri bat lortzeko, betiere lehen aipatutako probabilitatea eta kostua/etekinak erlazioaren adierazleetatik abiatuta.

Plangintza bat egiteko orduan eragina duten hainbat faktore aipatu ditugu lehen, bestea beste, denbora, alde zurretiko esperientzia eta lidergoa. Autoebaluazioaren baitan, honako alderdi hauek gogoan hartu behar dira:

- a) Autoebaluaziorako diseinuen plangintza normalean epe laburrera egiten da, hau da, hiru hilabete eta urtebeteko epean garatzeko.
- b) Autoebaluazioan aurretiko esperientzia arrakastatsua izateak, autoebaluazioa funtzionala dela adierazten du. Hortaz, gero eta gehiago erabiltzen da autoebaluazioa erakunde-mailako kudeaketa-prozesuetan: autoebaluatzean ikasi behar da, giro egokia sortu behar da, ebaluazioaren kulturaren gutxieneko baldintzak garatu behar dira, hau da, gaitasun teknikoak eta gizarte-trebetasunak garatu behar dira, eta abar. Azken finean, autoebaluazioa garatzera zuzendutako energiaren eta komunikazioaren etaa eraldaketaren gauzatzea zuzendutako energiaren artean eraginkortasuna lortu behar da.
- c) Erakunde-mailako lidergoa autoebaluazioaren kudeaketa egin ahal izateko eragina duen faktore bat da. Honako hauek dira lortu beharreko helburuak:
 - Autoebaluazioaren kultura azalertzeko eta ezartzeko antolamendu-mailako baldintza egokiak sortzea. Zehazkiago, ebaluazioaren eta teknologien esparruko profesionalak lortu eta prestatu behar dira, autoebaluazio-ekintzak garatzeko erakunde-mailako energiak (baliabideak) bideratu, erakunde-mailako zenbait ekin-tzen eta horietatik ondorioztatutako informazioaren arteko erlazioak sustatu, profesionalen artean esperientziak eta komunikazioa partekatzen erraztu, ebaluaziori buruzko balio partekatuar garatzea sustatuko duen diskurtso bat indartu, eta abar.
 - Proiektuen urteko kudeaketarekin lotutako autoebaluazio-ekintzak sustatzea. Bereziki garrantzitsua da ebaluazio-taldeak izendatzea, ebaluazio-diseinuak burutzeko baldintzak eskaintzea, eta horiek ezartzen laguntzea.

- Autoebaluazioak ematen duen informazioa erakunde-mailako kudeaketa atzeratikatzeko baliabide bezala erabiltzea.
- Barruko eta kanpoko ebaluazioaren arteko erlazioak ezartzea, edukiak alderatzeko eta elkarren osagarri bezala.

Honako kapitulu honetan erakundeen barne-ebaluazioaren ezaugarrietara egokitutako autoebaluazioko plangintzarako eredu bat aztertuko dugu. Kontzeptuaren inguruko lehenengo irakurketa batean ulertzeko zaila dirudi, baina ebaluazioa garatzeko prozedura bakundu bat besterik ez da; hots, Gizarte Zientzien esparruan jarduera zientifiko izateko ebaluazioaren estatutuak eskatzen dituen gutxieneko baldintzak betetzen ditu.

Diseinuaren faktoreak lau dira funtsean: objektua, helburuak, lanabesak eta baliabideak.

Lehenik eta behin, ebaluazio-diseinuaren eredu formalak aurkeztu behar da, hain zuzen "ED-Rs" izena duena, eta ondorengo ataletan ebaluazio-diseinua osatzen duten faktore guztiak azaltzen dira; horien garapena lantegiaren erritmoaren arabera izango da.

"ED-Rs" AUTOEBALUAZIO-DISEINUAREN EREDU FORMALAREN AURKEZPENA

Plangintza bat lantzeko orduan egiten den lana normalean dokumentuetan islatzen da. Gaiaren arabera, dokumentu desberdinak aurkituko ditugu. Esate baterako, ez da formatu bera erabiliko plangintza ekonomiko bat egiteko edo arkitekturako plangintza bat egiteko.

Horrela, plangintza orotan edukiak eta horiek adierazteko erabiltzen diren formatuak edo teknologiak bereizi behar dira. Begi-bistakoa denez, funtsezko elementua edukiak dira, baina edukiak ulertzeko oso garrantzitsua da formatuan behar bezala adieraztea. Plangintza baten edukiak hobeto komunikatzen dira espezialitate bereko plangintza-egile guztiak formatu bera erabiltzen dutenean.

Lan egiteko orduan erabilgarriak diren edukiak eta teknologiak adostu behar dira; hori lortzean, edonolako jarduera-arlo sendotzea lortuko dugu.

Autoebaluazioaren plangintzaren edukiak, "EK-Rs" ereduaren finkatutakoak, aipatu ditugun lau faktoreetan biltzen dira. Orain eredu formal bat proposatu behar da faktore horiek teknologia erraz, praktikoa eta erabilgarria baten bitartez adierazteko. Ereduari "ED-Rs" izena eman zaio eta bi fitxek osatzen dute: "laburpen-fitxa", diseinuaren faktore guztiak biltzen dituena, eta "ebaluazio-lanabesaren fitxa", lanabes desberdini buruzko azalpenak biltzen dituena.

OBJEKTUA	
HELBURUAK	
LANABESAK	
<i>Zk. (Helburua)</i>	<i>Mota</i>
1 ()	
2 ()	
3 ()	
4 ()	
5 ()	
BALIABIDEAK	
<i>A. Pertsonalak:</i>	
a. Ebaluatzaileak:	
b. Parti-hartzaileak:	
Lanab. 1:	_____
Lanab. 2:	_____
Lanab. 3:	_____
<i>B. Materialak:</i>	
a. Ondasunak:	_____
b. Zerbitzuak:	_____

B. EBALUAZIO-LANABESAREN FITXA: "FI-___".

"ED-Rs" AUTOEBALUAZIO-DISEINUAREN FAKTOREEN AZTERKETA

Honako atal honetan ebaluazioaren plangintza osatzen duten lau faktoreak aztertuko dira. Liburuko kapitulu praktiko hauen bitartez lantegian erabiltzeko metodologia bat eskaini nahi da; eta xede horrekin, EK-Rs ereduaren arabera, autoebaluazioaren plangintza bat egiteko kontuan hartu beharreko alderdiak aurkeztuko ditugu. Plangintzaren sekuentziaren arabera antolatu dira:

- a) Lehenik eta behin, ebaluazioaren objektua zehaztea.
- b) Bigarren, ebaluazioaren helburuak zehaztea.
- c) Hirugarren, ebaluazio-lanabesak aukeratzea, ebaluazioari buruzko informazioa lortzeko.
- d) Laugarren, eta azkenik, ebaluazio-ekintza martxan jartzeko behar diren baliabideak erabiltzea.

Aipatutako sekuentziak hurrenkera logiko baten arabera antolatu da, baina plangintzaren prozesua ez da beti lineala izaten. Adibidez, ebaluazio-estrategia finkatu ondoren —objektua eta helburuak zehaztu—, lanabesak lantzean baliteke finkatutako estrategian aldaketak egin behar izatea, eta ondorioz, helburuen objektua edo kopurua, izaera eta adierazpena formulatzeko orduan aldaketak egin beharko dira.

Prozesu honen alderdi garrantzitsuena dugu lau faktoreak elkarrekin lotuta daudela eta informazio-ezagupenaren sare bat osatzen dutela.

EBALUAZIOAREN OBJKTUA

Ebaluazioaren objektua aztertzeko, ebaluazioaren diseinuko hainbat faktore kontuan hartu behar da. Hain zuzen: kontzeptua, ezaugarriak eta eredu formala.

Ebaluazioaren objektuak, diseinuaren lehenengo faktore bezala hartuta, zenbait ezaugarri berezi ditu eta horiek berariaz aztertu behar dira. Esate baterako, ebaluatzeko garrantzitsuak diren objektuak bereizteko irizpideak. Honako atal honetan elementu horiek guztiak aztertuko ditugu.

Kontzeptua

"Gaiaren garrantzia, ebaluatzeko aukera, praktikotasuna eta zehaztasuna kontuan hartuta, ebaluatzeko aukeratu den gaia da —edo elkarrekin erlazionatutako gai—multzoa."

Ezaugarriak

Jarraian aipatzen diren lau ezaugarrien baitan laburbiltzen dira:

- a) *Garrantzitsua*: Kualitatiboki esanguratsua. Erakunde-mailako funtzionamenduari buruzko informazio esanguratsua identifikatu behar da. "Informazio kualitatiboko noduluak" (IKN) izenez ezagutzen ditugu. Hau da, esperientziaren bitartez jardue-ra profesional orotan garatzen den ekintza-multzoaren ezaugarri esanguratsuak bereizi behar dira.

IKNak elkarrekin erlazionatuta daude eta zentzuzko sareak osatzen dituzte, eta sare horiek egunero garatzen diren gainontzeko ekintzetatik desberdinak dira.

Zenbait informazio garrantzitsu baliteke egindako ikerketetan antzematea. Kasu honetan "kalitatearen adierazleak" (KA) izenez ezagutzen ditugu.

- b) *Ebaluatu daitekeena*: Ebaluagarritasuna zehazteko irizpideak honako hauek dira:

- *Objektibazioa*: ebaluazioaren objektuari dagokionez informazio objektibatua sortu behar da.

- *Egingarritasuna*: arrazoi teknikoak (ebaluazioaren objektuaren tamaina, erabilgarri dauden baliabideak...) eta gizarte-mailako arazoak (erakunde-mailako giroa, aukera...), kontuan hartuta egin behar da ebaluazioa.

- c) *Testuinguruan kokatua*: Ebaluazioaren objektuaren pertzepzio orokorra, zeregin funtzionala ematen dioten faktoreen eraginpean. Erlazio horiei esker objektuaren elementu deskribatzaileak zehaztea lortzen da, bai eta ebaluatzeko helburuak bereiztea ere.

- d) *Zehatza*: Zehazpen-irizpideak honako hauek dira:

- *Mugatzea*: objektuaren berriazkotasuna (ebaluatzeko interesgarria dena), eta objektuaren "tamaina" (ikuspegi errealista batetik ebaluatu daitekeena).

- *Zehaztasuna*: hizkuntz deskribapen argia eta erraza, ahalik eta ulergarriena.

Ebaluazioaren objektuaren ezaugarriak

Garrantzitsua: Ikerketatik edo esperientziatik abiatuta esanahi kualitatibo baieztatua.

Ebalua daitekeena:

- Irizpideak:
 - a) Objektibazioa
 - b) Egingarritasuna

Testuinguruan kokatua: Objektuak erakunde-mailako hainbat errealitaterekin duen erlazioa.

Zehatza:

- Irizpideak:
 - a) Mugatzea
 - b) Zehaztasuna

1. KOADROA. Ebaluazioaren Objektuaren ezaugarriak.

Egitura formal

Honako elementu hauek zehaztuko dira:

- *Gaia.*
- *Zehaztasunaren deskribatzaileak.*
- *Kokapenaren deskribatzaileak.*

<i>Gaia (garrantzitsua, ebalua daitekeena, testuinguruan kokatuta...)</i>	<i>Zehaztasunaren deskribatzaileak</i>	<i>Kokapenaren deskribatzaileak (denbora, espazioa, antolamendua...)</i>
---	--	--

Adibideak:

- IKN sarearekin erlazionatuta:

i01-"Ikastetxearen urteko planaren kudeaketa-helburuak ikasturtea: 98/99"
 i02-"Ikastetxearen ikasketa-programa ikasturtea: 99-00"
 i06-"Ikastetxeko erakunde-mailako giroa ikasturtea: 99-00"
 i03-"Ikastetxeko alorretako irakasle-taldeak ikasturtea: 00-01"
 i07-"Ikastetxearen zuzendaritza ikasturtea: 00-01"
 i08-"Baliabideen kudeaketaren eta curriculumaren arteko erlazioa . ikasturtea: 01-02"

- Beste zenbait:

n01-"1. DBHko ikasleek irakurketagatik duten zaletasuna ikasturtea: 99/00"
 n02-"Aurrekontuaren inbertsio-gastua ikasturtea: 00/01"
 n03-"1. DBHko geletako lan-giroa ikasturtea: 99/00"
 n04-"Irakurtzeko eta idazteko metodologia
 Haur Hezkuntzako 1. Mailan ikasturtea: 00/01"

1. Gai garrantzitsuak aukeratzea


Edozein motako fenomeno edo gertaera bat ebaluatzeko orduan, dugun informaziora jo behar dugu, hau da, gertaerari edo fenomenoari buruz dakiguna edo jakin daitekeena hartu behar da abiapuntutzat. Hortaz, gertaera edo fenomeno oro informazio-sare konplexuek osatzen dute. Eta ezinezkoa da den-dena hartzea.

Ebaluazio-kudeaketa martxan jartzeko informazio garrantzitsuenak bereizi behar dira. Helburua da ebaluazio-ekintza alderdi garrantzitsuenetara hurbiltzea, baina, nola jakin zein den garrantzitsuena? Nola bereizi? Jarraian, ikastetxeko informazio garrantzitsuak bereizteko eredu bat eta zenbait estrategia azaltzen ditugu.

2. Informazio garrantzitsuak: IKN

IKN bat, edozein erakundek edozein alor edo esparrutan egiten dituen eragiketa funtzionalen sareko informazio kualitatiboaren deskribatzaile bat da. IKNek sareak osatzen dituzte eta sare horiek grafikoki eta/edo modu deskribatzailean isla daitezke.

IKNak "v" sinboloaren bidez bereizten dira (ny: alfabeto grekoko 13. hizkia). Kalitatearen adierazleak, berriz, ikerketen bitartez adierazten direnak, "i" sinboloaren bitartez bereizten dira (yota: alfabeto grekoko 9. hizkia).



1. IRUDIA. Informazio garrantzitsua: IKN eta IKen arteko erlazioa.

- 1. *adibidea*: Informazio kualitatibo bat da ikastetxeak "helburu eta xede argiak, komunak eta partekatuak edukitzea". IKN hori Purkey eta Smith adituek egindako ikerketa enpirikoek baieztatzen dute (1983). Ezaugarri hori ikastetxe jakin baten funtzionamenduan antzematen bada, kalitatearen adierazle bat (i) duela esango dugu.
- 2. *adibidea*: Informazio kualitatibo bat da "curriculumak finantza-laguntza egokia eta baliabide material nahikoak edukitzea". IKN hori AEBko eskolen estandarretan aipatzen da. Eskola-zuzendarien ikuspegitik, informazio garrantzitsua adierazten da. Ezaugarri hori ikastetxe baten funtzionamenduan deskriba daitekeenean informazio kualitatiboko nodulu bat duela esango dugu (n).

3. IKNen adierazpena

INKK bi prozeduren bitartez adieraz daitezke, eta biak elkarrekin osagarri dira: deskribatzailea eta grafikoa.

a) *Adierazpen deskribatzailea*. IKNen multzo baten antolamendua da.

Edukiaren ikuspegitik berariazko gai bati buruzkoak izan daitezke. Esate baterako, kalkulatzen ikastea, ikasketa-plana, erakunde-mailako giroa, eta abar.

Ikuspegiaren aldetik, gai desberdinak erlazionatzen dituen arloak biltzen dira. Esate baterako, baliabideen eta curriculumaren kudeaketaren arteko erlazioa, erakunde-mailako ospearen eta zuzendaritzaren arteko erlazioa, kalitatearen eragina eta erakunde-mailako helburuei dagokienez ikasleen lorpen-maila, eta abar.

IKNEN ADIERAZPEN DESKRIBATZAILEA

- *IKNak. Prozedura erraz honi jarraituta modu deskribatzailean adieraz daitezke. "Erregeleta" batean antolatzen dira eta honako elementu hauek ikus daitezke:*

Zbk.(1)	IKN (2)	DESKRIBAPENA (3)	ERREFERENTZIAK (4)

- (1) Hurrenkeraren zenbakia. Zenbakien jarrai arrunta.
- (2) IKN. Informazio kualitatiboko nodulua. Bi aukera: esperientziatik datorrena (n), edo ikerketatik datorrena (i).
- (3) Esaldi sintetikoa, nodulua definitzen duten funtsezko deskribatzaileekin.
- (4) Ikerketa bereiztea (egitea eta argitaratu zen urtea), eta IKNen kasuan, proposatu duten ikastetxeak edo profesionalak zehaztea (erakundea, egilea/k, urtea).

- *Adibidea:*

01	i	"Irakasleak ikaskuntzaren eduki berrien aurkezpen zuzena egiten du"	Rosenhine, 1983
02	n	"Curriculumak finantza-laguntza egokia eta baliabide materialak ditu"	Estandarrak Excel. EUA

2. KOADROA. IKNen adierazpen deskribatzailea egiteko prozedura.

- b) *Adierazpen grafikoa.* IKNak egitura grafiko batean adierazten dira, kontzeptuzko mapa baten edo sinopsi-koadro baten antzera, edo erakundeetako arlo funtzionaletako eredu analitikoak erabiliz.

IKNen adierazpen grafikoa

Adibidea:

- Jarraian IKNen sare baten adibidea agertzen da, ikastetxearen antolamendu—azterketarako eredu batera gainjarritakoa.
 - a) Lehenik eta behin, ikastetxearen analisi-eredu bat deskribatu behar da, arlo desberdinak eta erlazionatuak bereiziko dituenak. "KA5+3" ikastetxearen kudeaketa-arloen eredua hartuko dugu abiapuntu bezala. Eredu horri esker nolabaiteko *plano* bat lortuko dugu eta horrekin funtzionamenduko arlo bereiztuak zeintzuk diren jakingo dugu.
 - b) Bigarrenik, Yorke-k erakunde-mailako eraginkortasunaren azterlanean (1987) proposatutako IKNen sarea kontuan hartuko dugu.

Adierazpen grafikoa IKNen sarea adierazten du, arlo funtzionalen gainean marraztuta eta, horrela, informazio garrantzitsuen sare osoa ikus daiteke, erakundeko egituraren eta antolamenduaren elementuak integratzen dituzten arloekin erlazioan.

3. KOADROA. IKNen adierazpen grafikorako prozedura.

4. Ikastetxeko kudeaketa-arloen "KA5+3" ereduaren deskribapen laburra

Proposatzen dugun ereduak eskaintzen duen ikuspegiak islatzen ditu "*praktikan esanguratsua diren ikastetxearen egitura eta funtzionamendurako unitate orokorrak*". (Rul, 1990)¹. Unitate horien baitan hainbat elementu eta erlazio dago lotuta eta espezializazio-prozesua aurrera doala kontuan hartuta, xedea da antolamenduaren helburu orokorrei erantzun egokia ematea. Eskola-sistemaren egitura-unitateak (organoak eta baliabideak) "*kudeaketa-arlo integraletan edo funtzionamendu-espezializatuko esparrutan*" integratzen dira ikastetxeen eguneroko lanean. Eskola-errealitatea arretaz begiratzuz gero, honako kudeaketa-arlo edo -esparru hauek bereizi ahal izango ditugu: 5 barne-arlo (eskola-sistema), eta hiru kanpo-arlo (ingurunea).

¹ RUL, J. (1990): *El Projecte de Gestió del centre educatiu*: Generalitat de Catalunya, Departament d'Ensenyament, Barcelona, 37-56 orr.

<p>IKASTETXEA (barruan)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 1. Arloa: Antolakuntza-kudeaketa orokorra. - 2. Arloa: Curriculum Kudeaketa (Irakas./ikas. garapena). - 3. Arloa: Curriculum Kudeaketa (plangintza eta ebaluazioa). - 4. Arloa: Ekonomia eta Administrazio Kudeaketa. - 5. Arloa: Eskola Zerbitzuak.
<p>IKASTETXEA (ingurunearekiko erlazioa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 6. Arloa: Familia-ingurunea (ikasleen gurasoak). - 7. Arloa: Ingurune naturala eta berehalako gizarte-ingurunea. - 8. Arloa: Ingurune naturala eta bitarteko gizarte-ingurunea.

4. KOADROA. Ikastetxearen kudeaketa-arloak. KA5+3 eredu.

Esta clasificación de áreas de gestión obedece, como todas, a una representación racional de la realidad escolar con una doble finalidad, a) tener una mejor comprensión de la realidad representada y, b) disponer de un modelo instrumental que facilite la gestión (planificación, desarrollo y evaluación).

–1. Arloa: Antolakuntza kudeaketa orokorra

62

Aginte-organoek osatzen duten arloa, pertsona bakarrekoak eta kolegiatuak,; horrez gain, koordinazio orokorreko arloa ere bada eta bertan garatzen da ikastetxearen estrategia orokorra: ikastetxearen proiektua, etorkizuneko aukeren artikulazioa, giza taldea prestatzea, barne-antolakuntzako kultura lantzea.

"Oinarrizko funtzioa" "erakunde-mailako helburuak lortzea" da eta, horretarako, "ikasleen bizi-kalitatea eta gaitasun-maila hobetuko dira".

"Berriazko funtzioak" dira: koordinazio-sistemak, kontrola, parte-hartzea, erabakiak hartzea, erakunde-mailako harremanak eta ikastetxea sustatzeko harremanak, giza harremanak, langileen zuzendaritza, zuzendaritza tekniko-pedagogikoa, administrazio- eta ekonomia-zuzendaritza, gainbegiraketa-sistemak, erakunde-mailako ebaluazioa, komunikazio-politikak, komunikazio-informazioko kanalak eta zirkuituak, eta abar.

Eskola kultura, eskolakoa izatearen sentimena, balioak eta itxaropenak bertan garatzen dira, eta horiek dira, hain zuzen, zuzendarien eta eskola-bizitzan eta eskolaz kanpoko bizitzan eragina duten irakasleen jarrera profesionalaren mugarriak.

Ondorioz, honako esparru honek islatzen du "erakundearen ospea", eta ospea, "erakunde-mailako helburuak betetzean" lortuko da.

–2. Arloa (A2): Curriculum-kudeaketa (irakatsi eta ikasteko prozesuen garapena)

Irakasleek ikasleekin dagokien lana garatzeko arloa (akademikoa, tutoretza-mailakoa, eta abar).

"*Oinarrizko funtzioa*" "ikasleen gaitasunaren kalitatean eta mailan" eragin positiboa lortzea da, bai eta "giro txukun eta segurua, esfortzua eta nor bere burua gainditzea sustatuko dituen" lortzea ere. Oinarrizko funtzio hau geletan garatzean lortuko dugu lehenengo arloan aipatu ditugun erakunde-mailako helburuak betetzea.

"*Berariazko funtzioak*" dira: irakasleen curriculum-mailako esku-hartzea, metodologia-lerroa, teknika didaktikoak, irakatsi eta ikasteko prozesuen garapena, orientazio- eta tutoretza-sistemak, ikasleen antolamendu-sistemak (homogeneoa edo malgua), taldeen dinamika gelan, ikaskuntzako prozesuak eta emaitzak ebaluatze-sistemak eta teknikak aplikatzea, ikasleek curriculumean parte hartzeko ereduak eta teknikak, eta abar landuz.

Irakatsi eta ikasteko prozesuen bitartez irakasleak ikasleekin erlazionatzen dira eta helburu nagusiak dira ikasleak karrerari begira prestatzea, afektibitate-maila, gizarte-harremanak, eta abar.

–3. Arloa (A3): Curriculum-kudeaketa (plangintza eta ebaluazioa)

Irakasleek ikaslerik gabe lan egiteko arloa; lan profesionala garatuko da, banakakoa zein taldekkoa. Zikloko eta/edo arloko irakasle-taldeak (arloak, mintegiak, batzordeak).

"*Oinarrizko funtzioa*" "ikasketa-programa" bat sortzea da, "ikasleen gaitasun-mailako kalitatean eta mailan" eragin arrakastatsua izango duena, bai eta "ikaskuntzarako aldeko giro" bat sortzea eta horri eustea ere.

"*Berariazko funtzioak*" dira: hezkuntzaren eta curriculumaren arteko koordinazioa, curriculum-unitateen koordinazioa (programazio-unitateak, unitate didaktikoak, kredituak, eta abar), hainbat arloren arabera curriculum-baliabideak kudeatzea (curriculum-materialak, teknika didaktikoak, berariazko metodologiak), ebaluazio-sistemak eta –teknikak erabiltzea, ebaluazioaren plangintza (ebaluazio-diseinua: ebaluazioaren helburuak eta irizpideak, lanabesak hartzea eta/edo lantzea,

ezarpen-arauak zehaztea), ebaluazio-bilkuretan parte hartzea, curriculum-ikerketan parte hartzea, curriculum berritzea, eta abar.

Eskolak prestatzeko arloa da, ikertzeko eta irakasleen artean erlazioak finkatzeko, ikerketak egiteko eta eguneratzeko, eta abar. Horrez gain, ikasleen lanaren inguruko ebaluazio gogoetatsua egiteko arloa ere bada, bai eta irakasleen lana autoebaluzatzeko ere.

Laburbilduz: irakasle-taldeek une oro eguneratuta eduki behar dute "ikasketa-programa" *ikerketa-ekintzarako* estrategien bitartez. Horrek guztiak argi adieraziko du "irakasleen kalitatea eta maila".

2. eta 3. arloen artean lotura estua dago. Hezkuntza-mailako ikerketak behin eta berriro azpimarratzen duenaren arabera, irakasleek errazten dituzten "irakaskuntzako" erlazioen kalitatea eta "ikasleek egiten duten ikaskuntza", neurri handi batean, irakasleak eta irakasle-taldeek "geletako ekintza" eta "ekintzari buruzko gogoetarekin" erlazioatuko dituen zirkuituak ixtearen mende dago. Irakasleek geletan garatzen duten lanaren kalitatea hainbat elementuren mende egongo da, hala nola, irakaslearen ideiak, programa, lehentasunak, ikasleei eta irakaskuntzari buruzko ebaluazio-informazioa, ikasleen gaitasunetara egokitutako baliabide materialak eta instrumentalak, teknologiak, eta abar; eta gainera, aipatutako elementu guztiei eutsi behar zaie ikasleak ikastetxean dauden bitartean.

–4. Arloa (A4): Ekonomia eta administrazio-kudeaketa

Zentroko aginte-organoen ekonomia- eta administrazio-kudeaketako arloa. Zentroko hezkuntza-ekintza errazteko baliabideen kudeaketa: proiektuen finantzaketa, instalazioen mantentze-lanak eta kontserbazioa, zerbitzuen finantzaketa, pizgarriak ematea, eta abar.

"*Oinarrizko funtzioa*" da "baliabideak lortzea eta kudeatzea" "ikasketa-programaren" lanabes bezala, bai eta irakasle-taldeen *ikerketa-ekintzarako* estrategien lanabes bezala ere.

"*Berriazko funtzioak*" dira: ekonomia-mailako kudeaketa (plangintza, programaketa, gauzatzea eta ebaluzioa), administrazio-kudeaketa (plangintza, gauzatzea, jarraipena eta ebaluzioa).

Zentroaren finantzaketarako eta ekonomia- eta administrazio-mailako kudeaketa garatzeko arloa da; erabilitako baliabideak eta prozesuen eta emaitzen kalitatearen arteko erlazioak. Administrazio-mailako kudeaketa garatzen den arloa da: zen-

troko artxibategien eta ikasleen dokumentazioaren kudeaketa dokumentala. Informazioa kalitatezkoa izatea da helburu nagusia, hartara, ikasleak prestatzeko orduan hezkuntza-prozesuak orientatu ahal izateko.

–5. Arloa (A5): Eskola-zerbitzuak

Zentroak eskaintzen dituen eskola-zerbitzuak kudeatzeko arloa, hala nola: jangela, garraioa, udalekuak, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak, eta abar.

"*Oinarrizko funtzioa*" zerbitzuak kudeatzea da: plangintza, gauzatzea eta ebaluazioa.

Eskola-erkidegoari eskaintzen zaizkion zerbitzuak eta ikasleen garapenean eskainitako aukeren eragina biltzen dira honako arlo honetan.

–6. Arloa (A6): Familia-ingurunea (ikasleen gurasoak edo lege-ordezkariek)

Ikastetxeko ikasleen gurasoak edo lege-ordezkariek biltzen dira arlo honetan, bai eta eskolarekin izaten dituzten harremanak ere, hala nola bilerak, aginte-organotan partaidetza, elkarrizketak, bisitaldiak, eta abar.

"*Oinarrizko funtzioa*" "familiaren eta ikastetxearen arteko harreman anitzak izatea eta gurasoak edo lege-tutoreak beren seme-alaben hezkuntza-zereginetan nahastea" lortzea da.

"*Berariazko funtzioak*" dira: eskolak ikasleen gurasoekin dituen erakunde-mailako erlazioak, bilerak, elkarrizketak, txostenak, ikasleen gurasoen elkarteak, eta abar.

Familia-eskolaren arteko erlazioen eta ikasleen etorkizunean erlazio horiek eragiten dituzten ondorioen arloa da.

–7. Arloa (A7): Ingurune naturala eta berehalako gizarte-ingurunea

Eskolaren eta ingurune hurbilaren arteko erlazioen arloa. Ingurunea ezagutzeko berariazko curriculum-arlo jakin batzuk garatu behar dira eta ingurunean parte hartu (natur ingurunekeo bizipenak eta gizarte-gertaeretan nahastea).

"*Oinarrizko funtzioa*" ikastetxearen eta ingurune hurbilaren arteko erlazioa da.

"Berariazko funtzioak" dira: ingurunearen erabilera didaktikoa (arloan curriculum-lana), eta zentroa inguruneke bizitzan ezagutzera ematea (erakunde-mailako ospea), horretarako: gizarte-mailako harremanak, kultur identitatea, ospakizunak, eta abar gogoan hartuko dira.

Eskolaren eta ingurunearen arteko elkarmentetasunezko arloa da. Inguruko kultur faktoreek eta gizarte- eta ekonomia-faktoreek eskolaren zeregina baldintzatzen dute: gizarte-maila, hizkuntz kodeak, kultur ereduak, balioak, etorkizuneko aukerak, eta abar.

–8. Arloa (A8): Bitartezko natur ingurunea eta gizarte-ingurunea

Honako arlo honetan natur ingurunea eta gizarte-ingurunea nahasten dira: a) "bitartezko" natur ingurunea, goranzko eskalan, hau da, eskualdea, herrialdea, kontinentea, planeta, eta abar, eta b) "bitartezko" kultur ingurunea eta gizarte-ingurunea; horren baitan, i) gizarte-erakundeak behetik gora: hiria, udala, nazioa, estatua, nazioaz haraindiko erakundeak eta estatuz haraindiko erakundeak, planetarioak, ii) ezagupen eta aukera historikoak, juridikoak, zientifikoak, izpirituzkoak, ekonomikoak, teknologikoak, militarrek, osasun-mailakoak, artistikoak, hezkuntza-mailakoak, etikoak, erlijiosoak, eta abar, eta iii), komunikazioa eta teknologiak (mass media), eta abar.

"Oinarrizko funtzioa" ikastetxearen eta bitartezko ingurunearen arteko erlazioa da.

"Berariazko funtzioak" dira: bitartezko ingurunea ezagutzera eta ulertzea (berariazko curriculum-arloan bitartez) eta bitartezko erlazioak zehaztea, bidaiak eginez, nazioarteko programetan parte hartuz (adibidez: baso tropikalak babestea, desgertzeko arriskuan dauden espezieen kontserbazioa, giza eskubideen defentsa, eta abar), eta teknikak zehaztuz eta kulturantzatasuna ulertuz.


Une historiko bakoitzean hezkuntzan eragina duen arlo orokorra edo testuinguru orokorra da: hezkuntzak gizartean pizten duen interesa, etorkizuneko helburu orokorrak, aukerak, trukeak, erabilgarri dagoen ezagupena, interes orokorreko zentroak, balio nagusiak, eta abar.

Jarraian azaltzen den eskemaren bitartez ikastetxearen kudeaketa-arloak zeintzuk diren adierazten da grafikoki. "Antolamendu-egitura osatzen duten organoak" eta ikastetxearen "funtzionamendurako berariazko eszenategiak" aurkezteko marko egokia da. Antolamendu-mailako zereginetan oso erabilgarria gerta daiteke, esate

baterako organigrama lantzeko, bai eta balorazio-zereginetan ere (diagnostikoa), hala nola denbora mugatu batean ikastetxearen funtzionamenduaren alderdi "sendoak" eta "ahulak" bereizteko, baliabideen banaketa aztertzeke (denbora, organoak, funtzioak), kostuak zehazteko eta antolamendu-mailako eraginkortasuna lortzeko.

Gainera, goian azaldutako markoa -oinarrizko lau barne-arloak aipatu dira- ikastetxearen informazio-ezagupenaren sareak aurkezteko erabil daiteke, ikastetxearen barruko funtsezko lau arloei dagokienez, hartara eskola-egiturarekin eta -funtzionamenduarekin lotutako informazio esanguratsuak lortzeko.

Sare horietatik informazio esanguratsua lortzen da eta, horrela, barne-diagnosiak azaleratutako ikastetxearen alderdi ahulak/sendoak eta aukeratutako "informazio kualitatiboko noduluak" (IKN) alderatzeko aukera ahalbidetzen da. Aipatu erlazioa interesgarria da errealitatea ezagutzeko ikuspegitik, bai eta kudeaketa-zereginak garatzeko, esate baterako lehentasunezko zereginak, plangintzaren inguruko erabakiak hartzeko, behaketa eta ebaluazioa egiteko.



2. IRUDIA. Ikastetxeko kudeaketa-arloen KA 5+3 eredu.

A-1: ANTOLAKUNTZA-KUDEAKETA OROKORRA	
Zuzendaritza Estrategikoa: Pedagogikoa, Ekonomikoa, Administrazio-mallakoa	Estrutura. Recursos: Personales, materiales, formales
Koordinazio-kudeaketa: plangintza, garapen-kontrola, ebaluazioa	Proyecto de centro: gestión organizativa y curricular
Informazio-Komunikazioa. Erlazioak	Cultura. Valores
Erabakiak hartzea. Parte-hartzea	Desarrollo y Promoción centro

C-I	C-II	IRAKASLE-TALDEAK
Taldeak-Gela (sozializazio-afekt.)	Taldeak-Gela (sozializazio-afekt.)	Koordinazio-ekipo horizontala
Irakatsi eta ikasteko prozesuak	Irakatsi eta ikasteko prozesuak	Orientazio Arloa. Tutoretza
Irakatsi eta ikasteko baliabideak	Irakatsi eta ikasteko baliabideak	Hizkuntzen arloa
Ikasleak (banakako karrera)	Ikasleak (banakako karrera)	Matematika arloa
Taldeak-Gela (sozializazio-afekt.)	Taldeak-Gela (sozializazio-afekt.)	Natur Zientzien arloa
Irakatsi eta ikasteko prozesuak	Irakatsi eta ikasteko baliabideak	Gizarte Zientzien
Irakatsi eta ikasteko baliabideak	Ikasleak (banakako karrera)	Teknologia arloa
Ikasleak (banakako karrera)	Irakatsi eta ikasteko baliabideak	Arlo Artistikoa: Plastika, Bisuala, Musika
	Irakatsi eta ikasteko baliabideak	Heziketa fisikoaren arloa. Kiroak
	Irakatsi eta ikasteko baliabideak	Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak

ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA	A-2. CURRÍCULUM-KUDEAKETA (ekintza, garapen, erlazioak)	A-3. CURRÍCULUM-KUDEAKETA (plangintza-ebaluazioa)
Ikastetxearen Kudeaketa Dokumentala Sistemak. Software (aktak, txostenak eta abar)		
Ikasleen Kudeaketa Dokumentala Sistemak. Software (txostenak, ebaluazioa eta abar)		
A-4. EKONOMIA- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA		

3. IRUDIA. Ikastetxearen kudeaketa-arloen ereduaren ezarpena.


INKAK ADIERAZTEKO TXANTILIOIA		
A-1: ANTOLAKUNTZA-KUDEAKETA OROKORRA		
A-4: EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA	A-2: CURRICULUM-KUDEAKETA (ekintza, garapen, erlazioak)	A-3: CURRICULUM-KUDEAKETA (plangintza-ebaluazioa)

4. IRUDIA. KA5+3 ereduaren arabera, INK ak adierazteko plantila.

5. IKNen adierazpena Yorke-k egindako ikerketatik abiatuta (1987)

Yorke-k ikerketa bat egin zuen eskolaren erakunde-mailako eraginkortasunean eragiten zuten faktoreen inguruan, "erakunde-mailako helburuak lortzearekin" eta "ikasleen kalitatea eta mailarekin" erlazioan.

Bere lana faktore kualitatiboen kausazko sare baten antzera irudika daiteke.




5. IRUDIA. Erakunde-mailako eraginkortasunaren adierazle kualitatiboen kausazko eredua.

01	i 01	Erakundeak lortu dituen helburuak kualitatiboak dira ikasleen bizi-kalitatea eta maila hobetzen duten neurrian.	<i>Yorke, 1987</i>
02	i 02	Ikasleen kalitatea eta maila ikastetxearen ikasketa-programaren eta giroaren mende dago.	<i>Yorke, 1987</i>
03	i 03	Ikerketak eta kontsultak eragin zuzena du helburuen loperari, baliabideak eskuratzeko politikei eta ikasketa-programari dagokienez.	<i>Yorke, 1987</i>
04	i 04	Ikasketa-programak eragin zuzena du ikasleen kalitatean eta mailan.	<i>Yorke, 1987</i>
05	i 05	Irakasleen kalitateak eta mailak eragin zuzena du ikerketa-eta kontsulta-mailan, ikasketa-programan, ikastetxeko giroan eta erakundearen ospean.	<i>Yorke, 1987</i>
06	i 06	Ikastetxeko giroak eragin zuzena du ikasleen kalitatean eta mailan, bai eta irakasleen kalitatean eta mailan ere.	<i>Yorke, 1987</i>
07	i 07	Erakundeko zuzendaritzak eragin zuzena du ikastetxeko giroan, irakasleen kalitatean eta mailan, ikerketan eta kontsultan, baliabideak eskuratzeko orduan eta kanpoko erakundeekiko erlazioetan.	<i>Yorke, 1987</i>
08	i 08	Baliabideak eskuratzek eragin zuzena du ikerketa eta kontsultan.	<i>Yorke, 1987</i>
09	i 09	Erakundearen izenak eragin zuzena du baliabideak eskuratzeko orduan, kanpoko erakundeekiko harremanetan eta irakasleen kalitatean eta mailan.	<i>Yorke, 1987</i>
10	i 10	Ingurunera irekitzeko gaitasunak eragin zuzena du erakundearen zuzendaritzan.	<i>Yorke, 1987</i>
11	i 11	Kanpoko erakundeekiko harremanek eragin zuzena dute ingurunera irekitzeko gaitasunean.	<i>Yorke, 1987</i>

Oharra: Honako ikerketa hau hezkuntzaren inguruan anglosaxoitarrek duten administrazio-kulturaren arabera garatu da. Zenbait erlazioetan hezkuntza-sistema horren eragina ikus daiteke, bereziki zuzendaritzaren eta irakasleen arteko harremanetan.

Jarraian aipatu adierazleak grafikoki adieraziko ditugu KA5+3 ereduari jarraituta; aipatu erdua lehen deskribatu dugu.



6. IRUDIA. KA5+3 ereduaren Yorke-n kalitatearen adierazpen grafikoa.

EBALUAZIOAREN HELBURUAK

Ebaluazioaren objektua zehaztu ondoren, ikuspegi metodologiko egokiena aukeratu behar da, objektuaren beraren ezaugarrien eta ebaluazioaren helburuen arabera. *Ebaluazio-helburuak* tipologia desberdinekoak izan ohi dira ebaluazio-ekintzaren helburuen arabera.

Objektu baten inguruko helburuak zehazteko orduan hainbat prozedura desberdin jarrai daitezke, baina prozedura guztien ezaugarri komuna da ebaluazio-ekintzaren helburu esplizituak bereizten dituztela, helburu espliziturik gabe funtzionatzen duten metodologia prozesualen kasuan izan ezik.

Ebaluazio-helburuak zehazteko prozedura komun bat galdeketa da, hots: ebaluatzaileak bere helburuak eta objektua ondo aztertu eta baieztatu beharko ditu: objektuaren zein alderdi ezagutu nahi da? Objektuaren zein alderdik du garrantzia? Zer ezagutu daiteke objektuari buruz?

Honako atal honetan ebaluazio-helburuen kontzeptua, ezaugarriak eta egitura formala aztertuko ditugu eta, batez ere, hainbat adibide eta teknika aurkeztuko ditugu.

74

Kontzeptua

“Ebaluazio-ekintzaren xede den ebaluazio-objektuaren lehentasunezko alderdiak deskribatzen dituzten helburu zehatzak eta esanguratsuak dira”.

Sor daitezkeen nahasteak saihesteko, lehenik eta behin “ebaluazio-helburuak” eta “laneko helburuak” bereizi behar dira.

- a) *Lanerako helburuak*: Orokorrean, jardueraren edozein esparrutan, gauzek behar bezala funtzionatzeko egin beharrekoa egingo dela lortzea xede duten helburuak dira. Gainera, komunikaziora orientatutako laneko helburuak ere diseina daitezke.
- b) *Ebaluazio helburuak*: Ebaluatutako errealitatei buruzko ezagupena lortzera orientatzen diren helburuak dira: ezagupen deskribatzailea (fenomenikoa), hau da, ebaluatutako errealitateari buruz gehiago jakiteko datuak eta informazioa (objektua eta beste objektuekiko erlazioa), eta balorazio-ezagupena (axiologikoa), hau da, ebaluatutako errealitatea balio-judizioen bitartez behar bezala haztatzea.

Ezaugarriak

Ebaluazio-helburuek funtzio desberdinak beteko dituzte jarraitzen diren metodologia-aukeren arabera. Ondorioz, plangintzan zehaztu daitezkeen oinarrizko helburu-motak zeintzuk diren zehaztu behar da

a) *Esplicituak*

- *Arau-emaileak*: arauz ezarritako helburuak dira
- *Irizpide-mailakoak*: Talde ebaluatzaileak premien arabera zehaztutako helburuak dira
- *Prozesuan sortzen direnak*: Ebaluazio-prozesuan barna azaleratzen diren helburuak dira, hau da, ebaluazio-ekintzatik beretik esplizitatzen diren ebaluazio-helburuak. Mota honetako helburuak ebaluazio-modalitate kualitatiboen kasuan eta prozesualen kasuan zehazteko egokiak dira.

b) *Inplizituak* (helburu librea): Zehaztu gabeko helburuak dira; ebaluazio-prozesuaren baitan biltzen dira baina implizituki. Ebaluazio-modalitate prozesualetan erabil daitezke, ebaluazio-prozesuan barna izaten diren elkarreraginei garrantzia handia ematen baitiete.

Egitura formala

Honako elementu hauek biltzen ditu:

- a) **Ebaluazio-ekintza**: aditza infinitiboan. Ezagutza-esparruari eta/edo afektibitate-esparruari dagokien aditza infinitiboan, hartutako estrategiaren arabera. Jarraian, ekintzen sailkapen bat egiten da (aditzak), eta ebaluazio-helburuak diseinatzean oso erabilgarria izango da gainera.
- b) **Ekintzaren eragileak** (zehaztapena).

Jarraian azaltzen den erregeletaren arabera formalizatuko dira,

<i>Ebaluazio-ekintza</i> . ADITZA infinitiboan ezagutza eta/edo afektibitate-esparrua	<i>Ekintzaren eragileak</i> (zehaztapena)
---	---

Adibidea:

- Objektua:

"Ikastetxearen urteko planaren kudeaketa-helburuak, Ikasturtea: 99/00"

- Helburuak:

- Erlazionatzea UPren helburuen egokitasuna, Zentroaren erakunde-mailako premiekiko.
- Egiaztatzea UPren helburuen kudeaketan eragileen inplikazio-maila.
- Justifikatzea UPko helburuen garapenean lortutako arrakasta.

Jarraian helburuen sailkapen estandarizatu bat aurkeztuko dugu, hartara, plangintza egiteko ardura duten pertsonen ebaluazio-plangintzetan erabilgarriak diren ekintzarako aditzak ezagutzeko eta aukeratzeko.

KATEGORIAK	EZAGUTZAREN ESPARRUA
1. <i>Ezagupena</i>	Definitu, deskribatu, bereizi, zenbakitu, izendatu, aukeratu, gogoratu, irudikatu, ezagutu, eskematizatu.
2. <i>Ulermena</i>	Bereizi, antzeman, azaldu, orokortu, adibideak eman, ondorioztatu, sortu, laburtu, frogatu, zehaztu, interpretatu, erregela bat formulatu, aurreikusi.
3. <i>Ezarpena</i>	Baieztaatu, aurkitu, maneiatu, eraldatu, prestatu, sortu, erlazionatu, konpondu, erabili.
4. <i>Azterketa</i>	Banandu, bereizi, diskriminatu, identifikatu, marraztu, ondoriozta, erlazionatu, aukeratu.
5. <i>Laburpena</i>	Sailkatu, nahastu, osatu, azaldu, sortu, aldatu erlazionatu, laburtu, landu, orokortu.
6. <i>Ebaluazioa</i>	Preziatu, erkatu, laburbildu, erkatu, kritikatu, deskribatu, diskriminatu, justifikatu, interpretatu, erlazionatu, laburtu, epaitu, erkatu.
KATEGORIAK	AFEKTIBITATE-ESPARRUA
1. <i>Harmena</i>	Galdetu, identifikatu, aukeratu, entzun, onartu.
2. <i>Erantzuna</i>	Erantzun, eztabaidatu, egin, praktikatu, aukeratu.
3. <i>Balorazioa</i>	Osatu, deskribatu, bereizi, azaldu, jarraitu, hasi, justifikatu, aukeratu, onartu, haztatu.
4. <i>Antolamendua</i>	Antolatu, konbinatu, erkatu, osatu, azaldu, orokortu, identifikatu, integratu, antolatu, erlazionatu, laburtu.
5. <i>Karakterizazioa</i>	Diskriminatu, entzun, eraldatu, praktikatu, galdetu, aztertu, egiaztatu, jardun.

5. KOADROA. Ekintzarako aditzen sailkapena (*).

(*) Ondorengo lanetatik abiatuta helburuak finkatzeko ekintzen proposamena: BLOOM, B.S. (1972): *Taxonomía de los objetivos de educación: ámbito del conocimiento*, Valentzia: Marfil, 1972, eta KRATHWOHL, D.R.: *Taxonomía de los objetivos de educación; ámbito de afectividad*, Valentzia: Marfil, 1973.

Ebaluazio-helburuak ebaluazio-diseinuan

Ebaluazio-diseinuak ezagutzaren esparruko eta afektibitatearen esparruko ebaluazio-helburuak integratu behar ditu, aukeratzan den ikuspegi metodologiakoari jarraituz.

Ezagutzaren esparruko helburuak ebaluatutako errealitateari buruzko informazioa eta ezagapenak ematera orientatzen dira (ebaluazioaren objektua).

Afektibitatearen esparruko helburuek balorazio-informazioa ematen digute, hala nola, iritziak, esperientziak, ebaluazio-ekintzan parte hartu duten pertsonen lehentasunak eta, jprreña. ebaluazioaren objektua giza esperientziaren eta esanahiaren esparrura ekarri eta neurtu egiten da.

Ebaluazio-helburuak gehiegi ez anizteko bi aditz integratzen dituzten helburuak sor daitezke: bata ezagutzaren esparrukoa eta bestea afektibitatearen esparrukoa.

Adibidea:

- *Egiatzatzea eta justifikatzea...* eragileek Urteko Planaren helburuak kudeatzeko orduan izandako inplikazio-maila.

Ebaluazio-helburu horrek ezagutza-informazioa emango duten (egiaztatu) ebaluazio-lanabesak egotea ezinbesteko baldintza bihurtzen du, esate baterako proba bat, eta balorazio-lanabesak egotea ere (justifikatu) halabeharrezkoa da, hala nola, elkarrizketa bat.

EBALUAZIO-LANABESAK

Honako atal honetan ebaluazio-lanabesak aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, ebaluazio-diseinuaren gainontzeko faktoreekin erlazionatuta dauden ezaugarri komunak aipatuko ditugu: kontzeptua, ezaugarriak, egitura formala. Bigarrenik, lanabesei buruzko zenbait informazio esanguratsuei helduko diegu; ebaluazio-metodologiaren laburpentxo bat egingo da, bai eta ebaluazio-lanabesen tipologia azaldu ere, eta hori guztia adibideekin aberastuko da.

Kontzeptua

"Konstruktuko teknologiko-ideologikoak dira –paradigmen laguntzaileak edo aukera metodologikoak–, eta *ebaluazio-objektua* osatzen duten ebaluazioaren helburuei buruzko informazio espezializatua lortzeko diseinatu dira".

Ezaugarriak

Ebaluazio-lanabesak sailkatzeko bi oinarrizko erreferente daude: bete beharreko baldintzak eta lanabesak lantzea.


a) Baldintzak:

- Epistemologikoak: ebaluatuko den gaiaren egoera zientifikoa.
- Metodologikoak: lanabesaren tipologia: proba, behaketa, galdeketa, eta abar.

b) Lantzea:

- Erabilitako lanabesak: estandarizatu eta argitaratu diren ebaluazio-lanabesak. Ebaluazio-diseinuan sartuko dira egokiak eta erabilgarriak direlako.
- *Ad hoc* landutako lanabesak. Ebaluazioaren plangintza egiten duen taldeak landutakoak; lantze-prozesuan, diseinuan biltzen diren ebaluazio-helburuak hartuko dira kontuan. Lanabesak erabili baino lehen, *egokiak* ote diren baieztatzea komeni da. Baieztapen-prozedura bakun bat badago, hain zuzen kasuaren azterketa. Landutako lanabesa kasu batean edo bitan ezarri eta lortutako erantzun, ohar eta abarretan oinarrituta, ebaluazio-lanabes bezala duen egokitasuna eta funtzionaltasuna zehaztuko dira, eta hala badagokio, lanabesa eraldatu edo egokitu egingo da.

Probak egokitzeko prozedura bakun bat proposatu dugu: taldea ordezkatzeko duten bi subjektu aukeratu behar dira: bata, batez bestekoa gainditzen dutenen artean eta, bestea, gainditzen ez dutenen artean. Diseinatutako probaren azalpenak emango zaizkie. Batez bestekotik gora dagoen subjektuaren puntuaketa oso ongiren ingurukoa izango da, eta behera dagoen subjektuarena, berriz, gutxiegiaren ingurukoa.



7. IRUDIA. Probak "egokitze" prozedura.

Egitura formal

"ED-Rs"ren eredu formal osatzen duten bi fitxen formatua kontuan hartu beharko da.


80

a) Laburpen Fitxa (LF-00):

- Lanabesaren zenbakia: lanabesak segida ordinalaren bitartez antolatuko dira.
- Helburuekiko lotura: aukeratutako helburuaren zenbakia parentesi artean adieraziko da.
- Lanabesaren tipologia: lanabesaren kodifikazio laburtua.
- Lanabesaren deskribapena: lanabesaren edukiari buruzko erreferentzia laburra.

b) Ebaluazio-lanabesaren fitxak (LF-__).

- Ebaluazio-lanabesa: lanabesaren itemak garatzea.



Ebaluazio-metodologia

Ebaluazio-diseinuan *ad hoc* erabil edo lan daitezkeen lanabesak aukeratzean metodologia zehatz bat jarraituko dela adierazten da; guztia, ebaluazio-ekintzaren inguruan.

Hartutako ikuspegi metodologikoak ebaluazio-objektuaren *ikuspegia* baldintzatzen du, eta ondorioz, baita egin daitezkeen balio-esleipenak ere.

a) Tipologia:

- Kuantitatiboa. Orientazio arrazoizko eta teknologiko batetik abiatuta, lehentasuna ematen zaio *neurketari* ebaluazio-lanabes bezala. Ikuspegi honetatik neurtu daitekeena bakarrik da interesgarria.


NEURKETA: Magnitude baten kantitatea zehaztea da, unitate bezala hartzen den beste magnitude batekiko konparazioz. Metodologia kuantitatibo dagokionez, "neurketa-unitatearen" normalizazioa egiteko balioagarritasun eta fidagarritasun handiko baldintzak lortu behar dira, neurketak balioa izan dezan.

- **Kualitatiboa:** Gizarte Zientzien esparruan, neurketak badu funtzio erlatibo bat; neurketa, informazio-iturri bat da, bestelako informazio-iturriekin batera gordeko dena. Gizarteko makina bat fenomeno ezin da neurtu, hortaz, berezkoak duten hizkuntzan adierazten dira, alegia, hizkuntza kualitatiboan. Gizarteko zenbait fenomeno aztertzeko neurketak egiten direnean, bereziki estatistikak, lortutako emaitzak kontu handiz interpretatu behar dira, testuinguru dinamikoko batean, eta horren baitan hainbat informazio-iturri aintzat hartu behar dira. Ondorioz, gizarte-fenomenoak ezagutzeko hurbilketa desberdinak egin behar dira, hala nola, behaketa, esperientzia, elkarrekintza, eta abar, eta horretarako "kultur mailako eta interpretazio-mailako" prozedurak, eta prozedura "politiko-kritikoak" erabiliko dira, ekintzaren arabera. Lehenengo kasuan, ebaluatutako errealitateen azterketari eta interpretazioari emango zaio lehentasuna, eta bigarrenaren kasuan, berriz, gizarte-boterean jokoan dauden interes, talde edo gatazken azterketari.
- **Mistoa** [osagarritasuna]. Errealitatearen berezko konplexutasunaren ulermena du helburutzat. "Neurketa-ekintza" eta "deskribapen-interpretazioko" ekintzak, estrategiak eta teknikak dira, eta edonola izanda ere, beti eskasak dira, eta zenbait kasutan, errealitatea antzemateko eta ulertzeko partzialak, gainera.

Ebaluazio-lanetan deskribatutako bi orientazioak bil daitezke eta, ahal den guztietan, neurketa-lanabesak erabiliko dira eta neurtu ezin diren errealitateen kasuan lanabes kualitatiboak erabiliko direlarik. Bi metodologiak ezartzetik lortutako informazioa elkartu behar da, betiere ezaugarriak eta berariazko hizkuntzak errespetatuz.

Ebaluazio-lanabesen tipologia


Ebaluazio-lanabesa mekanismo edo "konstruktua" bat da, ebaluatzailearen eta ebaluatutako errealitatearen artean tartekatzen dena; helburu nagusia da ebaluatzen ari den errealitateari buruzko informazioa lortzea.



8. IRUDIA. Ebaluazio-lanabesaren funtzioa.

Ebaluazio-lanabesei dagokienez, bost oinarritzko mota desberdin bereiz daitezke *ebaluatzailearen* eta *errealitatearen* artean sortzen den erlazioarekin lotuta.


Hain zuzen, lanabes-mota desberdin horiek informazioa lortzeko eta biltzeko hainbat estrategia adierazten dituzte.



9. IRUDIA. Ebaluazio-lanabesaren oinarritzko mota desberdinak.


Ebaluazio-lanabesaren funtzioa deskribatu ondoren eta, oinarritzko lanabes-mota desberdinak bereizi ondoren, horiek guztiak aztertu behar dira, bakoitzaren ezaugarri bereziak eta ebaluatutako errealitatearen gainean duten agerpena ezagutzeko.

- a. *Proba*: Erreaktibo bat da, estimulu bat, ebaluatutako errealitatearen aldetik erantzun edo jarrera bat eragiten duena.



10. IRUDIA. "Probaren" funtzio operatiboa.

- b. *Galdeketa*: Informazioa biltzeko lanabesa da (ezagupena, lehenetasunak), bai eta ebaluatutako errealitatearen (pertsonek) balorazioak egiteko ere.




11. IRUDIA. "Galdeketa" funtzio operatiboa.

- b. *Behaketa*: Nolabait "lente" baten funtzioa betetzen du, eta modu jakin batean ebaluatutako errealitatearen ikuspegi bat ematen du, jasotzen diren ideiak informazio bihurtzen ditu: datuak, deskribapenak...




12. IRUDIA. "Behaketa" funtzio operatiboa.

- b. *Galdeketa*: Bi hizketakideen arteko komunikazioa gauzatzeko eszenategi bat da. Elkarrizketa librea edo mugatua izan daiteke. Erlazio pertsonala eta esperientzia eta balorazio pertsonalen lorpena azpimarratzen ditu.



13. IRUDIA. "Elkarrizketa" funtzio operatiboa.

- c. *Elkarrekintza*: Pertsona askoren arteko komunikazioa gauzatzeko eszenategi bat da. Hainbat formatu ezagutzen dira, esate baterako, bilera, taldeko dinamika edo negoziaketa.



14. IRUDIA. "Elkarrekintza" funtzio operatiboa.


Oinarriko ebaluazio-lanabesak eta horien funtzionamendua aztertu ondoren, ebaluazio-metodologiekin erlazioatuko dituen tipologia baten baitan antola ditzakegu. Bien arteko erlazioa oso garrantzitsua da plangintza-prozesuetan, izan ere, lanabesen aukeraketa lanabesek garatzen duten funtzioarekin dago erlazioatuta. Garatzen duten ekin-tza objektiboa edo subjektiboa izan daiteke, eta ondorioz, teknika kuantitatiboak edo kualitatiboak erabili erabakiko da, kasu bakoitzean komeni denaren arabera.

Bi binomioen arteko erlazioetatik abiatuta, honako tipologia hau proposatzen dugu:

- "objektibotasuna" / "subjektibotasuna", eta
- "kuantitatiboa" / "kualitatiboa".

Binomio horiek konbinatuz lau mota desberdin lortzen dira:

- objektibotasuna/kuantitatiboa,
- objektibotasuna/kualitatiboa,
- subjektibotasuna/kuantitatiboa,
- subjektibotasuna/kualitatiboa.



15. IRUDIA. Ebaluazio-lanabesen tipologia.

Jarraian agertzen den koadroan aipatutako lau moten adibideak azaltzen dira, berariazko lanabes jakin batzuekin erlazioan.

1. *Objetibotasuna/kuantitatiboa*: PROBA (adib. Erantzun laburretan egitaratua).– GALDEKETA NORMALIZATUA.– BEHAKETA KATEGORIAZKOA (adib. Baieztapenerako zerrenda).– BEHAKETA TEKNOLOGIKOA (adib. Bideoan erregistratzea).– eta abar.
2. *Objetibotasuna/kualitatiboa*: PROBA (adib. Erantzun gidatuetan erdi egitaratua).– GALDEKETA (adib. Ezagupenak edo balorazioak lortzea).– KATEGORIAZKO BEHAKETA (adib. Balorazio-eskala).– eta abar.
3. *Objetibotasuna/kuantitatiboa*: PROBA (adib. Ahozkoa egituratu gabeko oinarriarakin).– GALDEKETA (adib. Lehentasunak lortzea).– BEHAKETA (adib. Gertaera kritikoak kontatzea).– ELKARRIZKETA (adib. Mugatua).– ELKARREKINTZA (adib. Irizpideen negoziaketa).
4. *Subjetibotasuna/kualitatiboa*: GALDEKETA (adib. Balorazio binarioak edo zehaztuak lortzea).– BEHAKETA adib. "etik" deskribatzailea edo "narrazioa").– ELKARRIZKETA (adib. Librea).– ELKARREKINTZA (adib. Taldeko dinamika).

6. KOADROA. Lanabesen adibideak moten arabera.

Ebaluazio-lanabesen artean aurki daitezkeen mota desberdinak hobeto garatzeko eta adierazteko, jarraian, bi koadro deskribatzailetan antolatuta agertzen dira.

Lehenengo koadroan ebaluazio-lanabesen mota eta azpimota desberdinak eta, azaldu berri diren tipologiaren lau kategoriak elkarrekin erlazionatzen dira. Honako koadro honek ebaluazioaren diseinatzaileari lagunduko dio ebaluazio-helburuen arabera lanabesak aukeratzeko.

Bigarren koadroan, berriz, lanabes-mota desberdinen adibideak azaltzen dira.

Ebaluazioaren plangintza: "ED-Rs" autoebaluazio-diseinuaren eredia

LANABES-MOTA DESBERDINAK	SAILKAPENA			
	Objetibotasuna / Kuantitatiboa	Objetibotasuna / Kualitatiboa	Subjetibotasuna /Kuantitatiboa	Subjetibotasuna /Kualitatiboa
A. PROBA [testa, galdeketa estandarizata, eskala estandarizata]				
1. IDATZIZKO PROBAK				
1.1. <i>Erantzunak lantzea</i>				
1.1.1. Egitaratu gabeak: konposizioa		•		
1.1.2. Erdi egituratuak: erantzun gidatuak		•		
1.1.3. Egituratuak: erantzun laburrak	•			
1.2. <i>Erantzunak aukeratzea</i>				
1.2.1. Aukera errepikatuak	•			
1.2.2. Aukera anitzak	•			
1.3. <i>Testuinguru batean antolatzea</i>	•	•		
1.4. <i>Oinarri komuneko itemanitza</i>	•	•		
2. Ahozko probak				
2.1. Agitaratu gabeko oinarria		•	•	
2.2. Oinarri egituratua		•		
3. PROBAK PRAKTIKOAK [lanak,]		•	•	
B. GALDEKETA				
INFORMAZIOA LORTZAKO GALDERAK				
1.1. Ezagupena lortzea (pertsonea)	• (1)	•	•	
1.2. Lehentasunak ezagutzea			•	•
BALORAZIOAK LORTZEKO GALDEKETA				
2.1. Aukera binarioak baloratzea		•	•	•
2.2. Aukera zehaztuak dituen erantzuna (3 edo geh.)		•	•	•
C. BEHAKETA				
1. KATEGORIAZKOA				
1.1. Baieztapen zerrenda [irekia edo itxia]	•	•		
1.2. Balorazio-eskala		•	•	
2. DESKRIBATZAILEA [emic edo etic]	•	•	•	•
3. NARRAZIOA				
3.1. Aktak, egunekoa, esparruko oharrak erregistratz.		•	•	•
3.2. Gertaera kritikoak		•	•	•
4. TEKNOLOGIKOA				
4.1. Audioan, bideoan, argazkian erregistratzea	•	•	•	•
D. ELKARRIZKETA		•	•	•
1. Elkarrizketa mugatua			•	
2. Elkarrizketa librea				•
E. ELKARREKINTZA [bilera, taldeko dinamika, negoziaketa]			•	•

7. KOADROA. Ebaluazio-lanabesen sailkapena kategorien arabera.

(1) Ezagupen aditua. Hainbat profesionali beren espezialitatearen inguruko gaietarako buruzko galderak egingo zaizkie, alegia, esperientzia duten gaien inguruko galdera zehatzak egingo dira.

A. GALDEKETA [test, cuestionario estandarizado, escala estandarizada]	ADIBIDEAK	OHARRAK
1. IDATZIZKO PROBAK		
1.1. <i>Erantzunak lantzea</i>		
1.1.1. Egituratu gabeak: konposizioa	- "Arloko bileren funtzionamendua deskribatzea. Giroa, eraginkortasuna eta ondorioak aipatzea.	- Objektibatzeko eta kuantifikatzeko aukera gutxi
1.1.2. Erdiegituratuak: erantzun gidatuak	- "Bileretan hiru rol-mota ikus daitezke: lanera orientatzen direnak, taldea eta banakakoak: a) rolak deskribatzea, b) sarriagotan azaltzen diren rolak aipatzea.	- Objektibatzeko eta kuantifikatzeko aukera gutxi
1.1.2. Egituruak: erantzun laburrak	- "Zeintzuk dira ura osatzen duten elementuak?: <u>Hidrogenoa eta oxigenoa</u>	- Objektiba eta kuantifika daiteke
1.2. <i>Selección de respuestas</i>		
1.2.1. Aukera errepikatukak	- "Lurrak satellite bat du. <u>BAI</u> - EZ	- Objektiba eta kuantifika daiteke
1.2.2. Aukera anitzak	- "Zein da bakun hitzaren sinonimoa? a) lotsati, g) gutxitu, c) apal, d) pobre	- Objektiba eta kuantifika daiteke
1.3. <i>Testuinguru batean kokatzea</i>	- "Planetak Eguzkirako distantziaren arabera hurrenkera antolatzea, hurbilen dagoenetik hasita. __Marte, __Jupiter, __Venus, __Neptuno, __Pluton,....	- Gaiaren arabera gehiago edo gutxiago objektibatuko eta kuantifikatuko dira. kasu honetan egin daiteke
1.4. <i>Oinarri komunekin itemanitza</i>	- MENÚA: 100 g. tapioka-zopa, 200 g. zerri-albondiga, 200 g. izokin, 200 g. ogi, 50 g. txokolatzeko tarta eta 1/2 litro ardo. - Honako menu hau oso egikia da: a) gizentzeko, b) argaltzeko, c) gibelego gaixontzat, d) urdaileko ultzera dutenentzat - Menu honek oso... gutxi digu: a) karbohidrato, b) proteina, c) gantz, d) bitamina	Gaiaren arabera gehiago edo gutxiago objektibatuko eta kuantifikatuko dira
2. AHOZKO PROBAK		
2.1. Egituratu gabeko oinarria	- Erakusketa, eztabaida, Kalifikazio-fitxak lortu behar dira irizpideetatik abiatuta.	- Objektibatzeko eta kuantifikatzeko aukera gutxi
2.2. Oinarri egituratua	- "Hiru protagonista dituen isotio bat kontatzea (gizona, emakumea, agurea). Istorioa tren batean garatzen da. Denbora mugatua: 10 minutu."	- Objektibatzeko eta kuantifikatzeko aukera gutxi
3. PROBA PRAKTIKOAK [lantze prozesuak]	- "Arrain-ontzi bat egitea" (eragiketen zerrenda bat, lanabesak, materialak eta jarraibideak eskaini behar dira)	- Ebaluazio-irizpideen zehazpen-mailaren arabera izango da objektibazioa.

8. KOADROA. Ebaluazio-lanabes desberdinen adibideak.

Ebaluazioaren plangintza: "ED-Rs" autoebaluazio-diseinuaren eredua

B. GALDEKETA	ADIBIDEAK	OHARRAK
1. INFORMAZIOA LORTZEKO GALDERA		
1.1. Ezagupena beregarnatzea	- "Irakasleen klaustroko bileren funtzionamendua dinamizatzeke arrazoiak eta irizpideak aipatzea: _____"	- Informazio hau ezagupen espezializatuek edo esperientzia duten pertsonen ematen dute
1.2. Lehentasunak lortzea	- "Azken hiruhilean arloan egindako bileretako bigai garrantzitsuenak aipatzea 1: _____ 2: _____"	
2. BALORAZIOAK LORTZEKO GALDERAK	- "Zein iritzi duzu egiten diren bilerei buruz?"	- Judizio irekiak dira, pertsonen ideiak, ikuspegiak, eta abar ezagutzeko balio dutenak
2.1. Aukera binarioak baloratzea	- "Arloko bileren %90era joan al zara? <u>BAI</u> - EZ"	- Itemak egin daitezke eta informazio-eskaerarekin erkatu
2.2. Aukera mugatuen erantzunak (3 edo gehiago)	- "Arloko bilerak erabilgarriak al dira? GUTXI- <u>NAHIKO</u> - ASKO" - "Balora ezazu arloko koordinazioaren eraginkortasuna 0 -1 - <u>2</u> - 3 - 4"	
C. GALDEKETA	ADIBIDEAK	OHARRAK
1. KATEGORIAZKOAK		
1.1. Baieztapen zerrenda [irekia edo itxia]	- "Telefono-deiaren prozedura: a) eskegi eta tonua itxoin BAI - EZ" b) zenbakia akatsik gabe markatu BAI - EZ" c) markaketaren tonua entzun eta erantzuna itxaron BAI - EZ" d) aukerak: komunikatzen BAI - EZ" erantzun du BAI - EZ erantzungailu automatikoa BAI - EZ" d) amaitzerakoan telefonoa eseki BAI - EZ"	- Neurketa baino informazioa ematen du
1.2. Balorazio-eskala	- "Kirol-ikusbizun bat baloratzea Puntuaketa: 1 -2 - 3 - 4"	- Behatzaileak behaketa orientatu duten irizpideak ezinbestekoak ditu
2. DESKRIBATZAILEA [emic edo etic]	- "Ospakizun baten deskribapena" - "Eskola baten garapena eta ikasleen jarrera irakasle batek deskribatzea"	- Etnometodoak: Emic: deskribapena behaketa jasaten duenaren ikuspegitik egiten da, bere hizkuntza, kodeak, ikuspegia, eta abar. - Etic: Behatzaileak behatzen duenaren inguruan duen ikuspegia adierazten da

3. NARRAZIOA		
3.1. Aktak, egunkariak, esparruko oharrak, eta abar erregistratzea	– "...kontuan-egoera eztabaidatu ondoren, 1998ko kontabilitatea onartu zen aurrekontuaren arabera"	– Organoen bilkuren, egunerokoan eta esparruko oharren garapenaren kontaketa
3.2. Gertaera kritikoa	– "99/01/20: "n" ikaslea berandu iritxi zen eskolara, gelara sartu eta bere gurasoekin eztabaida bat izan zuela esan ondoren negarrez hasi zen..."	– Gertaera esanguratsu, atipiko edo berezien deskribapena
4. TEKNOLOGIKOA		
4.1. Audio, bideo, argazkian erregistratzea	– "Zientzien arloaren bilkura baten bideoa" – "Ingelesez egindako elkarrizketa bat grabatzea"	– Irudiak eta soinua erreproduzitzeko gailu teknologikoen laguntzarekin behaketak egitea, helburu desberdinekin
D. ELKARRIZKETA	ADIBIDEAK	OHARRAK
1. Elkarrizketa mugatua	– "Irakaslea eta ikasle baten gurasoak. Jarraibideak: • Irakaslearen informazio: ikaslearen jarrera, lanen garapena eta errendimendua. • Gurasoen informazioa: etxeko lanak egiten ordutegia, lan egiten berariazko espazioa, gurasoen etorkizuneko itxaropenak..."	– Subjektuak iritziak, irizpideak, ideiak... emateko balio duen teknika. Elkarrizketatzaileak gidoi bat du eta horren arabera orientatzen eta gauzatzen da elkarrizketa
2. Elkarrizketa askea	– "DBH amaierako irakaslea eta gurasoak: ikasleek etorkizunera begira dituzten itxaropenak edo aukerak".	– Elkarrizketa askean alkarrizketatzaileak eta elkarrizketa egiten zaion subjektuak elkarrizketa bat garatzen dute aldez aurretik finkatutako erreferenterik gabe, gai zehatz baten inguruan hitz egiteko aukera badago ere.
E. ELKARREKINTZA [bilera, taldeko dinamika, negoziaketa]	ADIBIDEAK	OHARRAK
1. Bilera	– Eguneroko gai zerrendako gai bat aukeratu eta hortik abiatuta komunikazio eta elkarrekintza-prozasa garatu	– Bilera formala eta ez formalak
2. Taldeko dinamika	– Eskola batean gara daiteena jarduera osagarri buruzko ideien zaparrada"	– Trukerako eta elkarrizketarako egoerak. Teknika desberdinak
3. Negoziaketa	– "X institutuko irakasleen ordutegia negoziatzea" – "Irakasleak ikasleekin txangoetan nahastea"	– Eragile agonisten eta antagonisten arteko alkarrekintza: jarrera eta interesak defendatuko dira, bi aldeak jarrera irekia eduki behar dute, eta azkenik, guztiek onartutako akordioak lortzen dira.


Ebaluazio-lanabesen eta informazio-iturrien arteko erlazioa

Aurreko atalean adierazi dugun bezala, ebaluazio-lanabesaren funtzioa da ebaluatutako errealitatea eta ebaluatzailea erlazionatzea, hartara ebaluatzaileak ebaluazio-lanabesaren bitartez ebaluatutako errealitatea ezagutzeko.

Aztertu diren ebaluazio-lanabes desberdinek berariazko ezaugarriak dituzte errealitatearekin duten loturari dagokionez, hortaz, proba batekin lortzen den erlazioa, esate baterako, ez da elkarrizketa batean lortzen den berdina.

Gogoeta hori egin ondoren, informazio-iturriek ebaluazio-lanabesekin duten erlazioa gogoan hartzea garrantzitsua da.

Jarraian agertzen den irudian oinarritzko informazio-iturrien eskema bat ikus daiteke; eskema hori egiteko errealitatearen azterketa erraz bat egin da bi kategorien arabera.



16. IRUDIA. Informazio-iturrien mota desberdinak.

Ondoren proposatzen den eskema honetan informazio-iturri desberdinak ebaluazio-lanabesekin erlazionatzen dira. Ebaluazio-lanabesak bi zutabetan agertzen dira; zutabe batean deskribapen labur bat egiten da, eta bestean laburdura baten bitartez aipatzen da lanabesa, eta laburdura horixe erabiliko dugu "DE-Rs" ebaluazio-diseinuaren ereduko "Laburpen Fitxan" ere.

INFORMAZIO-ITURRIAK	MOTAK	DESKRIBAPENA
Behatutako errealitatea	BEH/JARR.	Bejaleta-jarraibidea (tipologia)
Behatutako errealitatea	NAR/DEK.	Kontaketa. Deskribapena (tipologia)
Behatutako errealitatea	GR-SopMag.	Audio (Bideoan erregistratzea euskarri magnetiko bezala)
Proba baten bitartez aztertutako errealitatea	PROBA	Proba (tipologia)
Proba baten bitartez aztertutako errealitatea	GALD/EST.	Galdeketa estandarizatu
Eskala baten bitartez aztertutako errealitatea	ESK.	Eskala normalizatu
Dokumentuak (aktak, protokoloak, liburuak, txostenak, ikerketa)	DA/JARR.	Dokumentuzko azterketarako jarraibideak: datuak
Eragileen informazioa eta iritzirik	GALD.	Galdeketa (datuak eta iritzirik)
Eragileen iritzirik	ELKAR.	Elkarrizketa (iritzirik)
Eragileen iritzirik	AutoEb.	Autoebaluazio
Elkarrekintza	ELKARREK./Tald-Din/Neg	Taldeko dinamika (bilerak, eztabaidak): Negoziketa

9. KOADROA. Informazio-iturrien eta lanabesen arteko erlazioa.

EBALUAZIOA EGITEKO BALIABIDEAK

Ebaluazio-objektu jakin baten inguruan ebaluazio-estrategia finkatu ondoren, ebaluazio-instrumentazioa zehaztu behar da, eta horretarako, ebaluazio-lanabesak zeintzuk diren—aurreko atalean azaldu dugun bezalaxe—, eta beharrezkoak diren baliabideak zeintzuk diren zehaztuko dugu, hartara ebaluazio-prozesua behar bezala kudeatzeko. Orain ebaluazio-diseinuaren faktore hori da aztertuko duguna.

Kontzeptua

“Ebaluazioa garatu ahal izateko beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak eta materialak”.

Ezaugarriak

Ebaluazio-baliabide desberdinen ezaugarriak baliabidearen izaeraren mende daude, hortaz, honako tipologia honen arabera antolatuko dira.

a) *Pertsonalak:*

- Ebaluatzailea/k: Ebaluazioa burutzeko ardura du(t)en ebaluatzailea zehaztea.

Baldintzak:

- Ebaluazio-mailako ezagupenak eta gaitasunak.
- Ebaluazio-objektuari dagokionez, berariazko ezagupenak eta esperientzia.
- Legitimitatea: funtzioaren estatus profesionala edo lege-egozpena.
- Teknikariak: ahozko aholkularitza edo idatzizkoa, hala badagokio.
- Parte-hartzaileak: ebaluazio-modalitateen arabera funtzio desberdinak betetzen dituzte. Orokorrean informazioa ematen duten pertsonak dira, ebaluazio-lanabe-sei erantzunez edo ebaluazio-lanabesak osatuz.

Parte-hartzaileak aukeratzeko hainbat *laginketa-estrategia* jarraitu behar dira, ebaluazio-diseinuaren aukera metodologikoen arabera.

Laginen funtsezko ezaugarria "ordezkagarritasuna" da, hau da, neur daitezkeen mota bereko kasu guztientzat balio dute.

Laginen arazo nagusia aztertu beharreko *populazio* osoaren azterketa egitea ezinezkoa da eragingo zukeen gastua izugarria baita. Horregatik, populazio osoa ordeztuko duen azpimultzo bat aukeratu behar da.

Ikuspegi tekniko batetik hartuta, laginketa-mota guztiek dituzte abantailak eta desabantailak. Hiru laginketa-teknika nagusi bereiz daitezke: *probabilitate-laginketak* (populazio osoa osatzen duten elementu guztiek laginean sartzeko aukera), *probabilitate-laginketak ez direnak* (gai jakin batzuen inguruan interes analitikoa edo ezagupen espezializatua ekartzen dute), eta *hipotesi errealak frogatzeko laginak*. Laginketa-mota desberdinen ezarpena ikerketen ezaugarri bereizgarriekin dago erlazionatuta.

Laginketarako oinarrizko teknikak jarraian agertzen den koadroan laburbilduta daude.

1. PROBABILITATE-LAGINAK	1.1. Ausazko lagin bakuna
	1.2. Lagin sistematiko
	1.3. Probabilitate-lagin (proportziozko eta ez-proportziozkoa)
	1.4. Multzoen araberako lagina
2. PROBABILITATE-LAGINAK EZ DIREN LAGINAK	2.1. Lagin kasuala
	2.2. Lagin intentzionala
	2.3. Kuoten araberako lagina
3. BENETAKO HIPOTESIAK FROGATZEKO LAGINA	(Aldagaien arteko berariazko erlazioan oinarritutako interesa)

10. KOADROA. Laginketa-estatistikorako teknikak.

Ebaluazio-lanetan, eta bereziki, antolakuntzen barne-ebaluazioan, parte-hartzaileak aukeratzeko bi bide jarrai daitezke:

- a) Ebaluazio-objektuarekin erlazionatutako populazio guztia, ahal den kasuetan.
- b) Ebaluazio-diseinuaren ezaugarri metodologikoetara egokitutako laginak.

Aipatutako puntuei buruz irakurlearentzat interesgarriak izan daitezkeen¹ eta bibliografia espezializatua osatzen duten zenbait liburu aipatzen ditugu.

b) *Materialak:*

- Ondasunak: aurrekontukoak eta inbentariatuak. Baliabideen deskribapena eta aurrekontuko kontu-sailak zehaztea
- Zerbitzuak: txostenak, erabakiak, eta abar. Beharrezkoak diren zerbitzuak zehaztea eta deskribatzea.

¹ PADUA, J. (1987): *Técnicas de investigación aplicadas a las Ciencias Sociales*. FCE. México.

RODRIGUEZ, J. (1993): *Métodos de muestreo. Casos prácticos*. CIS. Madrid.

RINCON del, D. et al. (1995): *Técnicas de investigación en Ciencias Sociales*. Dykinson. Madrid.

GONZÁLEZ, M. J. (1997): *Metodología de la investigación social. Técnicas de recolección de datos*. Amalgama. Alicante.

Egitura formala

"Erregeletan" aipatzen diren honako elementu hauek biltzen dira

Baliabidearen tipologia	Baliabidea zehaztea: – <i>pertsonalak</i> : bereiztea – <i>materialak</i> : deskribapena	– Zehaztea eta justifikatzen (pertsonalak) – Deskribapena, aurrekontua prestatzea (materialak)
-------------------------	--	---

Adibideak:

Pertsonala: *Ebaluatzaileak* X jauna eta Y andrea. X jaunak ebaluazioa ezagutzen du,

Y andrea "ebaluazio-objektuan" espezialista da.

Materialak:

Aurrekontu-ondasunak. 180'3 € kontu-saila.

Fotokopiak: 60'1 €

Komunikazioak: 30'05 €

Aholkularitza: 90'15 €



Ebaluazioaren
garapena

Ebaluazio-kudeaketako edozein prozesuren hasieran pentsamenduaren eta errealitatearen arteko erlazio bitxi bat finkatzen da, eta amaitzeko plangintza bat egiten da. Plangintzaren helburu nagusia da errealitate jakin bati buruzko ezagupena lortzea (objektua eta helburuak), bai eta ezagupen hori azaltzeko eta azpimarratzeko bitartekoak ere (lanabesak eta baliabideak), eta hori guztia hizkuntzaren bitartez egingo da, datuak, deskribapenak, kontaktak, balio-judizioak eta abar eginez. Errealitate oro, baita nahita mugatutako ebaluazio-objektuak ere, berez konplexua da hortaz, ebaluazio-ekintza objektuaren ezagupenera egiten den hurbilketa bat da.

Ondorioz, ebaluazioa, ezagupena geureganatzeko modu bat den neurrian, ebaluatuko den errealitatea aztertzean zeharkakoa da, probak egiten ditu, konplexua da; baina modu berean, gizarteko fenomenoak modu arrazoizkoan ezagutzeko, deskribatzeko eta interpretatzeko lanabes bikaina da. Ebaluazioaren oinarriko funtzioa ekintza intenzionala atzerailikatzea da; horretarako, ebaluazioaren objektutik lortutako ebaluazio-ezagupena erabiliko da, alegia, objektuari buruzko datu enpirikoak eta arrazoiketa logikoak.

Ebaluazioaren plangintzaren baitan dagoen edukia beranduago "ebaluazio-informazioa sortzeko" ekintzen eskutik garatuko da eta "balio-judizioen sorreraren" eskutik, eta horixe da, hain zuzen, honako kapitulu honetan aztertuko duguna.

EBALUAZIO-INFORMAZIOA SORTZEA

Honako kapitulu honetan, balio-judizio arrazoituak sortzeko beharrezkoa den ebaluazio-informazioa lortzeko faseen eta ekintzen azterketa egiten da, ebaluazio-diseinuaren aurreikuspenetatik abiatuta.

KONTZEPTUA

"Ebaluazio-informazioa sortzea" esaldiaren bitartez modu sintetikoan aditzera eman nahi da informazioa sortzeko balio duen ekintza-multzoa biltzen duen prozesua.

Ikuspegi deskribatzaile bati jarraituz esan daiteke, erabiliko diren estrategia eta metodologiaren arabera aurreikusitako ebaluazio-informazioa sortzen duen garapen-ekintzen multzoa dela.

Ebaluazio-informazioa sortzeko hainbat jarduera garatzea ezinbestekoa da, eta jarduera horiek jarraian zehazten den faseen arabera garatu beharko dira:

- Ebaluazio-lanabesak ezartzea.
- Informazioa prozesatzea.
- Lortutako informazioa laburbiltzea.

EZAUGARRIAK

Hiru fase aipatu berri ditugu. Fase horien arabera antolatutako ekintzen sekuentzia baten bitartez lortzen da ebaluazio-informazioa. Ebaluazio-informazioa lortzeko fase horiek dira "ebaluazio-informazioa sortzea" deitzen dugun ebaluazio-garapenaren faktore hori bereizten dutenak.

Jarraian, aipatutako faseak aztertu eta jarduera bikainenak azalduko dira.

Ebaluazio-lanabesen ezarpena: ebaluazio-diseinuan azaltzen diren ebaluazio-lanabesak erabiltzea eta informazioa biltzea.

Ebaluazio-lanabesak ebaluatzaileek aplikatu behar dituzte. Ebaluatzaileek beste zenbait profesionalen laguntza eska dezakete ebaluazio-lanabesen ezarpen-prozesua errazagoa egiteko. Kasu honetan, lanabesak ebaluatzaileek ematen dituzten jarraibideen arabera aplikatu behar dira.

Ebaluazio-lanabesak, diseinuan (baliabideen atala) zehaztutako "multzoaren edo "laginaren" gainean aplikatu behar dira, eta horretarako aurreikusi den unean.

Ebaluazio-informazioa prozesatzea

Kuantitatiboa eta/edo kualitatiboa, ebaluazio-diseinuan zehaztutako metodologia-aukerekin bat datozen ebaluazio-lanabesen arabera.

Informazio kualitatiboek eta kuantitatiboek ikuspegi eta estrategia askori erantzun diete, eta ondorioz, berariazko prozedurak eta teknikak dituzte. Hala ere, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa elementu osagarritzat jo daitezke, ikuspegi partzialak gainditzeko asmoz.

- a. **Informazioa kuantitatiboa.** Informazioa kuantitatiboa zenbakien bitartez adierazten da. Datu kuantitatiboak aztertzeko prozedura orokorra estatistika da, eta zen-

baki-multzoak eta horien arteko erlazioak aztertzen dira. Estatistikak oinarriko bi funtzio garatzen ditu: deskribatzailea eta inferentziala.

- *Estatistika deskribatzailea.* Datu-multzo baten ezaugarriak laburbiltzen edo deskribatzen ditu. Askotan erabiltzen den estatistika deskribatzaile bat da, adibidez, 30 ikaslek osatutako talde baten hizkuntza arloko "nota ertaina".
- *Estatistika inferentziala.* Multzo edo lagin batean gertatzen ari denaren ondorio orokorrak orokortzen edo ondorioztatzen dira; hau da, *lagin ordezkatzaille* batetik lortutako datu guztietatik abiatuta neur daitezkeen mota bereko kasu guztiak, alegia, estatistikoki multzo osoa ordezkatzeko duen laginetik zenbait kasu aukeratuko dira opulaziotik zenbait kasu aukeratzea. Estatistika inferentziala ikertzaileek erabiltzen dute. Denbora eta baliabideak aurrezten dira, baina arazo bat ere badakar, hain zuzen: *indukzioaren arazoa* izenez ezagutzen den mugaketa gaindiezin batek inguratzen du; hau da, kasu zehatzetatik erakarrirako orokortasunak balio mugatua du.

Ebaluazio-zeregin arruntetan estatistika deskribatzaileak oso erabilgarriak izan daitezke. Jarraian agertzen den koadroan aipatuko ditugu. Informazio gehiago nahi izanez gero, bibliografia espezializatura jotzea gomendatzen dugu; adibidez, J. Welkowitz egilearen lana, honako liburu honen amaieran aipatzen dena.

<p>MAIZTASUNEN ANTOLAMENDUKO ETA ADIERAZPEN GRAFIKOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Tipologia:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Maiztasun bakunak – Maiztasun metatuak – Maiztasun multzokatuak • <i>Ordezlagarritasuna:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Histogramak – Maiztasunen poligonoak • <i>Forma:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Simetria eta isuria – Modalitatea – Banaketa bereziak
<p>JOERA ZENTRALEKO NEURKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Batez bestekoa • Mediana • Moda
<p>ALDAKORTASUN EDO SAKABANATZE-NEURKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zabaltasun osoa • Desbideratze tipiko eta bariantza
<p>ERALDATUTAKO BALIOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Eraldatutako puntuaketa:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Z puntuaketak (puntuaketa tipikoak, 0 batez beste-koarekin eta 10 desbideraketa tipikoarekin) • <i>Puntuaketa eratorriak:</i> <ul style="list-style-type: none"> – T puntuaketak (50 batez bestekoa eta 10 desbideratze tipikoa) – SAT puntuaketak (500 batez bestekoa eta 100 desbideratze tipikoa)

1. KOADROA. Estatistika deskribatzailea.

b. **Informazio kualitatiboa.** Informazio kualitatiboaren azterketa *interpretazio-prozeduren* bitartez egiten da. Informazio kualitatiboaren arazo larrietako bat da *murriztu* beharreko informazio kantitate handia eta informazioaren aniztasuna, hartara informazioa erabili eta interpretatu ahal izateko. Informazio kualitatiboa aztertze orduan hainbat ezaugarri bitxi ikus daitezke, eta zenbait egilek honako sailkapen hau egiten du:

- Indukziozkoa. Informazioa murriztea ahalbidetzen duten kontzeptuzko kategoriak hemendik lortzen dira.
- Sortzailea. Azterketa kualitatiboa gehiago orientatzen *da kategoriak, hipotesiak eta teoriak sortzera informazioa eratzera baino.*
- Konstruktibista. Anlisi-unitateak behaketa eta deskribapenetik lortzen dira, horretarako berlante- eta abstrakzio-prozesuak garatuz.

Gehien erabiltzen diren teknika kualitatiboak honako hauek dira:

- *Datuak aztertzeko teknikak*, hala nola, behaketa estandarizatuaren protokoloak, tipologiak lantzea, hipotesiak formulatzea, eta abar.
- *Informazioa murrizteko eta adierazteko teknikak*, esate baterako, grafiko deskribatzaileak (barreiadura-diagramak, egoera baten garapena, eta abar), matrizeak (kontrol-zerrendak, aldi baterako kontrol-zerrendak, eta abar).

Ebaluazio-informazioaren laburpena

Ebaluazio-lanabes bakoitzarekin lortutako informazioa prozesatu ondoren, informazio guztia testu esanguratsu batean laburtu behar da. Testuaren funtzionaltasuna berbera izango da. Lehenik eta behin, ebaluatzaileek datu eta informazio partzialen aniztasuna eta heterogeneotasuna hizkuntza adierazpenetan adieraztea ahalbidetzen du, lortutako informazioa modu egituratu batean azalduz. Bigarrenik, beste pertsona batzuei informazioa adierazteko eta komunikatzeko balio du, ebaluazio-prozesuan parte hartu ala ez.

EGITURA FORMALA

Honako elementu hauek aurki daitezke:

- Lanabesa ezagutzea.
- Informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa prozesatzea.
- Informazioaren laburpena.

Elementu horiek guztiak fitxa batean antolatuko dira; fitxa hori jarraian agertzen da, eta oso egokia da informazioa prozesatzeko.

INFORMAZIOA PROZESATZEA

EBALUAZIOAREN OBJEKTUA: _____

Lanabes-zk. ____ Ezarpen-data: _____ Ebaluatzaileak: _____

Lanabesaren itemak: [Prozesamendu kuantitatiboa edo kualitatiboa]

1.

2.

3.

4.

...

LABURPENA: [Prozesamendutik lortutako ebaluazio-informazioa]

Adibideak:

a) Informazio kuantitatiboa:

2 lanabesa: Kalkulu-proba (10 ikaslerekin garatua).

→ Lortutako datuak: 6, 7, 8, 5, 4, 4, 5, 5, 8, 6.

→ Prozesamendua: estatistikoa: 6, 4.

Mediana $[X] = S$ (puntuaketen batuketa) / 10 (kasu-kopurua).

b) Informazio kualitatiboa:

5 lanabesa: Bileren erabilgarritasuna. 2 alderdi positibo eta beste 2 negatibo aipatu (3 irakasleekin garatua).

→ Lortutako datuak:

1 irakaslea:

– Positiboa: a) Lankideekin topatzea, b) Arazoak partekatzea.

– Negatiboa: a) Denbora gutxi, c) erabilgarritasun gutxi.

2 irakaslea:

– Positiboa: a) Jardueren koordinazioa, b) Estrategien diseinua.

– Negatiboa: a) Denbora gutxi, b) Baliabiderik eza.

3 irakaslea:

– Positiboa: a) Lankideen arteko elkarrizketa, b) Elkarrizketa eta ideien trukea.

– Negatiboa: a) Akordioak ez betetzea, b) Eraginkortasun gutxi.

→ Informazio kualitatiboa prozesatzea: Datuak aztertzea eta Matrize deskribatzaile batean adieraztea:

Ikastetxearen autoebaluazioa

ERANTZUN POSITIBOAK	1. irakas.	2. irakas.	3. irakas.
- Topagunea			
- Lankideekin elkarrizketa	X		X
- Arazoak partekatzea		X	
- Jardueren koordinazioa		X	
- Eztatanda eta ideiak trukitzea			X
- Ekintza-estrategiak diseinatzea			

ERANTZUN NEGATIBOA	1. irakas.	2. irakas.	3. irakas.
- Denbora falta			
- Denbora gutxi	X	X	
- Erabilgarritasun gutxi	X	X	
- Baliabiderik eza		X	
- Eraginkortasun gutxi			X
- Akordioak ez betetzea			X

→ Kategoriak lantzeko teknika:

- Alderdi positiboak bi kategoriatan antola daitezke, bileretan garatzen diren rolen arabera: taldera orientatuta eta zereginetara orientatuta.

GIZARTE MAILAKOAK	Topagunea, elkarrizketa, partekatzea...
ZEREGINAK	Koordinazioa, ideien inguruko eztabaida, estrategiak

– Alderdi negatiboak bi kategorietatik abiatuta sailka daitezke: eraginkortasun-mailako arazoak eta kudeaketa-mailako arazoak.

ERAGINKORTASUNA	Denborarik eza, erabilgarritasun gutxi, eraginkortasun gutxi
KUDEAKETA	Akordioak ez berritzea, baliabiderik eza

BALIO-JUDIZIOAK ETA EBALUAZIO-TXOSTENA

Balio-judizioen sorrera, lortutako ebaluazio-informazioen interpretazio-prozesu eta haztapen-prozesu konplexu bat da (informazioa neurtzea eta orekatzea; gaiaren azterketa zehatza eta zaindua), eta horrela, esanahia ematen zaio informazio horri. Prozesu honen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- a) Datu eta informazio esanguratsuenak bereiztea.
- b) Ebaluatzaileek balorazioak adieraztea, hau da, kutsu subjektiboa duten pertzepzio pertsonalak.
- c) Ebaluazio-judizioak lantzea: lortutako informazioari buruzko ebaluazio-judizioak, banakakoak eta intersubjektiboak.

Balio-judizioak sortzeko prozesua "*ebaluazio-bilkura*" batean garatzen da, eta bertan ebaluatzaileek eta bestelako eragileek parte hartzen dute.

Azkenik, ebaluazio-txosten batean balio-judizioak eta horiek sortzeko oinarrian hartutako informazioak adierazi behar dira. Ebaluazio-txosten hori erakundearen eskumenak dituen organoaren aurrean aurkeztu behar da, eta hala badagokio, beste maila batzuetan ere aurkeztu behar da.

Plangintza hasten denetik txostena idazten denera garatzen den ebaluazio-prozesuak argi eta garbi islatzen du antolakuntzaren eta bertan parte hartzen duten gainontzeko pertsonen ebaluazio-gaitasuna.

Balio-judizioak lantzeko, ebaluazio-prozesuari esker lortutako informazioa hartu eta balorazio doitu bat edo haztapen orekatu bat egin behar dute ebaluatzaileek.

Haztapen oro da informazioaren interpretazioa egitea (datuak, iritziak, balorazioak, eta abar), ebaluazio-objektuaren eta ebaluazioaren helburuen arabera.

Hala ere, informazioa adierazteko diskurtso espezializatu desberdinak erabiltzen dira, hala nola estatistika datu kuantitatiboekin eta deskribapen etnografikoak informazio kualitatiboekin, kategoriak eta ideia laburbilduak adieraziz.

Balorazio-adierazpen oro ikuspegi desberdinekin eta interes partikularrekin erlazionatuta dago.

Ebaluazio-funtzioak hizkuntza, interes eta arrazoi desberdinak hizkuntza komun batean eraldatu behar ditu, hartara ebaluazioaren helburuei dagokienez nolabaiteko adostasuna adierazteko, horretarako aginduzko izaera baino gehiago baiezko izaera duen interpretazio-prozesu bat garatu behar da.

Ebaluazio-txostenetan biltzen diren balio-judizioek neurri handi batean baldintzatzen dute egindako ebaluazioa.

Ebaluazio-txosten baten balioa erabakitzeke orduan gogoan hartzen den ezaugarri nagusietako bat da ebaluazio-informazioaren kalitatea eta balio-judizioak eskuratutako informazioarekiko duten egokitasuna. Ondorioz, ebaluazio-judizioek *isomorfikoak* izan behar dute.

Isomorfismoaren kontzeptuak (iso: berdin; morfé: forma) adierazten duenez, balio-judizioa, edukiari eta adierazpenari dagokienez, ebaluazio-informaziotik hurbila izan behar du. Aurkako kontzeptua dimorfismoa da (forma desberdina), hau da: ebaluazio-informaziotik urrun dagoena.

"Benetako ebaluazioa" eta "pseudoebaluazioa" bereizteko faktore nagusia da, hain zuzen, ebaluazio-txostenetan azaltzen diren balio-judizioen *isomorfismoa*. Ebaluazioen balioa adierazteko beste faktorea *egokitasuna* da, alegia, bi alderdien arteko egokitasuna,

- a) hartutako ebaluazio-estrategiaren (ebaluazioaren objektua eta helburuak), eta lanabesak erabiliz lortutako ebaluazio-informazioaren artekoa, eta
- b) ebaluazio-informazioaren eta txostenetan azaltzen diren balio-judizioen artekoa.

BALIO-JUDIZIOAK

Kontzeptua


Ebaluazio-prozesuari esker lortutako informazioarekin lotutako predikatua edo predikatua dira.

Judizio oro *proposizio* izeneko hizkuntza formaren bitartez adierazten da.

Judizioak adierazten dituzten proposizioak adierazpenezkoak dira, eta orokorrean, hiru elementuk osatzen dituzte: subjektua, predikatua eta lotura.

- Subjektua: judizioaren oinarrian dagoen errealitatea, errealitate orokorra zein zehatza.
- Predikatua: subjektuari buruz esaten dena.
- Lotura: subjektua eta predikatua elkartzen dituen aditz-forma.

Judizioaren egitura honako irudi honen bitartez adieraz daiteke.



2. IRUDIA. Judizioaren elementuak.

Mota desberdineko balio-judizioak daude eta ikuspegi desberdinen arabera sailka daitezke. Aipatutako gai hauek guztiak betidanik aztertu ditu Filosofiak, Filosofiaren baitan biltzen diren funtsezko bi ikuspegitik, alegia, Logika eta Gnoseologiakoenetik. Horrekin guz-

tiarekin adierazi nahi da judizio batean alde batetik alderdi logikoak elkartzan direla, hau da, proposizioak osatzeko kontuan hartzen diren pentsamenduaren arauak, eta bestetik, judizioaren objektibotasunarekin erlazionatuta dauden alderdi desberdinak, hau da, egiazko edo gezurrezko judizioak ote direnekoak. Judizioa Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik ere aztertu izan da eta aztertzen da, eta esparru honetan perpausen egitura eta esanahia aztertzen dira.

Honako lan honen helburuei begira, kapitulu honetan ebaluazioarekin erlazioa duten zenbait judizio-mota aipatuko dira.

Ebaluazioaren berezko judizioak, objektuei dagokienez egoera objektiboekin erlazioa duten tipologiaren baitan biltzen dira, hau da, beha eta deskriba daitezkeenak, edo objektuen arteko erlazioekin lotuta daudenak.

Lehenengo kasuan, balio-judizioek objektuaren alderdi jakin batzuk deskribatzen dituzte. Ebaluazioaren esparruan sartzen diren balio-judizio gehienak deskribatzaileak dira. Baina ez litzateke zuzena izango balio-judizioak judizio etikoetara bakarrik mugatzea, esate baterako, "ekintza hau zuzena da" edo judizio estetikoetara mugatzea, hala nola, "koadroa polita da". Aurrerago ikusi ahal izango dugun bezala, ebaluazioaren berriazko balio-judizioek gauzak enuntziatzen edo deskribatzen dituzte, eta ez ordea, *ontasuna/gaiztakeria* edo *edertasuna/zatarkeria* baloratu.

Bigarren kasuan, judizioen bitartez erlazio errealak adieraz daitezke: espazialak (mahai hau atetik gertu dago), denborazkoak (Luisa Maria baino lehen etorri da), kausazkoak (eguzkiak harria berotzen du), helburuzkoak (arkatza idazteko hartu dut).

Ezaugarriak (Tipologia)

Balio-judizioak modu desberdinetan adieraz daitezke. Honako hauek dira modurik berezikiak:

- a) Orokorrak. Izaera orokorra duten balio-judizioak dira eta ez dute elementu zehatzik aipatzen.
- b) Arrazoiak. Arrazoiak eta irizpideak ematen dituzten balio-judizioak dira.
- c) Analitikoak edo deskribatzaileak. Berriazko deskribatzaileen bitartez informazioa ematen duten balio-judizioak dira.

Egitura formala

Lehen ere aipatu dugun bezala, ebaluazio-judizio baten forma, orokorrean, atribuziozkoa izan ohi den perpaus gramatikalaren egiturara egokitzen da. Honako elementu hauek aurki daitezke:

- Izen Sintagma: subjektua eta mugatzaileak, informazioa ematen dutenak.
- Aditz Sintagma: aditza eta osagarriak, informazioa deskribatzen, interpretatzen eta/edo haztatzen dutenak. Objektua edo egoera izan daiteke xedea, edo objektuen eta egoeren arteko erlazioak, edo bi gauzak batera.

Jarraian judizioak formulatzeko *erregeleta* bat proposatzen da, eta zenbait adibide eman.

<i>Izen Sintagma</i> (subjektua eta mugatzaileak)	<i>Aditz Sintagma</i> (aditza eta osagarriak)
--	--

Adibideak:

- Balio orokorreko judizioa:
 - 1."Irakasle-taldeen eraginkortasuna hobetzeko Urteko Planeko helburua behar bezala garatu da, asetze-maila altuarekin".
- Balio-judizio arrazoitua:

"Ikastetxeko irakasle-taldeen funtzionamenduaren eraginkortasuna ez da nahikoa honako arrazoi hauengatik:

 - a) Ekipoen %65k ez du lanerako helburu zehatzik.
 - b) burutzen den lana desberdina da eta ez da nahikoa.
 - c) asetze-maila profesionala baxua da".
- Balio-judizio analitikoa edo deskribatzailea:
 2. "Joan de ikasturteko irakasleen klaustroko akten azterketak argi islatzen ditu honako elementu hauek:

- a) 5 klaustro-bilera egin dira.
- b) Batez beste irakasleen %90 bertaratu da.
- c) Bilkurek 2,15 ordu iraun dute batez beste.
- d) Bertaratu ez denak arrazoiak justifikatu ditu.
- e) Bilkurak txukun garatu dira.
- f) Bilkura bakoitzean akta bat onetsi da.
- g) Informazio-gaiek denboraren %60 hartu dute".

Aipatutako adibideen eskutik ebaluazio-txostenetan aurki daitezkeen balio-judizioen mota desberdinetara hurbilketa egiteko aukera dugu.

1. *adibidea*: Balio-judizio orokorra. Berariazko informaziorik ematen ez duen balio generiko bat adierazten du (baloraziozkoa).
2. *adibidea*: Balio-judizio zehatza, baieztatu daitezkeen deskribatzaileekin (ebaluaziozkoa).
3. *adibidea*: Balio-judizio deskribatzailea, objektuari buruz informazio garrantzitsuak eta baieztatu daitezkeenak ematen dituena (ebaluaziozkoa).

EBALUAZIO-TXOSTENA

Ebaluazio-ekintzaren emaitzak normalean ebaluazio-txostenean adierazten dira. Formatu eta tamaina desberdinekoak izan daitezke ohituren eta estiloen arabera. Hala ere, ebaluatzaileen eta erakundeen arteko komunikazioa errazteko estilo zehatz eta zuzena ari da gailentzen, bai eta estilo zorrotza eta arrazoitua ere.

Jarraian alderdi hori aztertuko dugu; txostena lantzeko proposamen bakun bat aurkeztuko da eta bertan ebaluazio- eta komunikazio-mailako balioak nahastuko dira.

Kontzeptua

Ebaluazio-txosten bat, funtsean, komunikatzeko gailu bat da, ebaluazio-komunikazioa gauzatzeko gailu bat. Guk proposatzen dugun kontzeptua honako ikuspegi honetara ego-kituta dago.

Ebaluazio-txostena ebaluatzailearen (igorlea) eta ebaluazioaren hartzailearen arteko idatzizko komunikazio argia gauzatzeko lanabes bat da; ebaluazio-txostenean ebaluazio-informazioa eta balio-judizioak (baloraziozkoak eta ebaluaziozkoak), eta proposamenak biltzen dira.


Ezaugarriak

Azaldutako gutzia irakurrita esan daiteke ebaluazio-txostenaren ezaugarri nagusiak bi direla: ebaluazioaren edukia eta komunikazioa. Hau da, ebaluazio-txosten jakin baten balioa bere edukiarekin dago erlazionatuta, hain zuzen, bide zorrotzei jarraituta lortutako ebaluazio-informazioa, eta batez ere, ebaluaziozkoak diren balio-judizioak eta horiek komunikatzeko duten gaitasuna adieraztea. Orain bigarren ezaugarria da azpimarratuko duguna, izan ere, lehenengoa jada azaldu dugu honako lan honetan.

Ebaluazio-txostenak komunikazioaren ikuspegitik duen funtzionaltasuna hobeto ulertze-ko komunikazio-prozesu orotan nahastutako faktoreak deskribatuko dira.

Honako hauek dira komunikazio-prozesu batean parte hartzen duten faktore nagusiak:

- a) Igorlea. Ebaluatzailea/k.
- b) Hartzailea. Ebaluazioaren hartzailea, hau da, bestelako erakundeak.
- c) Komunikazio-elkarrekintzak. Igorlearen eta hartzailearen arteko komunikazio-fluxuak eta erabilitako komunikazio-eszenategiak.
- d) Kanala. Komunikatzeko erabilitako bidea. Formatu jakin batean idatzitako txostena izan ohi da ebaluazio-txostenen ohiko kanala.
- e) Mezua. Komunikazioaren edukia, komunikazio-elkarrekintzetan ulertu eta interpretatu beharreko edukiak. Ebaluazio-txostenen edukia prozesatutako ebaluazio-informazioak, balio-judizioek eta proposamenek osatzen dute.
- f) Zarata. Igorlearen eta hartzailearen artean izandako komunikazio-distortsioak, komunikazio-prozesuko faktoreekin edo ingurunearekin erlazionatuak.



3. IRUDIA. Komunikazio-prozesuaren faktoreak.

Lan egiteko orduan arrazoizko faktore horiek duten eragina honako hau izango litzateke.

Igorleak baldintza eta egoera jakin batzuetan idatziz landutako ebaluazio-txostena hartzaileari bidaltzen edo komunikatzen zaio, eta hartzaileak ebaluazio-txosteneko esanahia ulertu eta interpretatzen du.

- a) "Ebaluazio-txostena" esanahiez betetako "mezua" da, igorlearen ikuspegitik; esanahi horiek guztiak hartzaileari jakinarazi nahi zaizkio mezua hobeto uler dezan. Txostenaren izaera ebaluatzaileak mezua mugatu egiten du, komunikazioa esparru espezializatu batera eramanez.
- b) "Idatzizko txostena" adierazpenak erabilitako "kanala" zehazten du, eta horrek mugatzen ditu "komunikazio-elkarrekintzak". Hain zuzen, idatzizko txostena eskuz eman edo postaz bidal daiteke. Kasu batean zein bestean eszenategiak desberdinak izango dira. "Fluxuen" aniztasuna ere gerta daiteke: bakuna, igorleak hartzaileari mezua bidaltzen badio; eta konplexua, igorlearen eta hartzailearen arteko komunikazio-begiztak gehitzen badira, eta komunikatzaileen eta txostenaren edukiaren "egoera" zehazten da ematen diren argibideen bitartez, eta gainera, "esanahia" aldatu egiten dute halabeharrez (testua ulertzea eta interpretatzea).
- c) Hori guztia kontuan hartuta, komunikazioan "zaratek" eragina izan dezakete, komunikazioa oztopatuz. Aipatutako *zaratak* arrazoi desberdinengatik sortzen dira,

bai komunikazio-prozesuaren barruko arrazoiengatik (komunikazioaren eragileak, mezua, kanala, eta abar), bai kanpokoengatik, hala nola pertsonalak (nortasuna, etorkizuneko aukerak, motibazioak, estatusa, eta abar, bai antolakuntza-mailakoengatik (rolak, gatazkak, mendekotasuna, tamaina, egitura, eta abar).

Honako hauek dira komunikazioaren arazo nagusiak: ez-aipatzea, hau da, informazioaren zati batzuk ez zehaztea edo ez aipatzea, ondorioz hartzaileak edukia ulertzeko eta interpretatzeko zailtasunak eragingo dituena, eta distortsioa, esanahiak aldatzen dituena. Distortsioa alde batetik, komunikatzaileen banakako faktoreen bitartez indartu edo gerta daiteke, esate baterako hartzailearen adina eta baldintzak, komunikatzaileen pertzepzioa (estatusa eta ospea), pertzepzio-defentsa, estereotipia negatiboa, aurretiko jarreraren nagusitasuna, eta abar, eta bestetik, antolamendu-mailako faktoreen bitartez, hala nola antolakuntzaren tamaina eta egitura, komunikazio horizontala edo bertikala, eta testuinguruko bestelako faktoreen bitartez.

Alderdi horiek guztiak gogoan hartu behar dituzte ebaluatzaileek ebaluazio-prozesua amaitu ondoren txostenen bitartez ebaluazioaren emaitzak adierazteko orduan. Neurri batean arazo horiek guztiak komunikazio-kudeaketa egoki bat eginez murriz daitezke, baina edozein modutan, arazo horiek hor daudela eta igorlearen eta hartzailearen artean ebaluazio-informazioa ulertzeko eta interpretatzeko orduan eragina dutela ulertu behar da. Egitura-mailako arazotzat uler daiteke, edo gizarte-errealitatea eraikitzeke orduan etenik gabeko eta arrazoizko elkarrizketa erabiltzen duen komunikazioa gauzatzeko moduan ikus daiteke. Ebaluazio-funtzioaren izaera demokratikoak aipatu ikuspegia indartzen du.

Egitura formala

Honako faktore hauek integratzen dira:

- Txostenaren datu bereizgarriak.
- Balio-judizioak: orokorrak edo baloraziozkoak, amaieran landu eta hasieran aurkezten direnak, eta berariazkoak edo ebaluaziozkoak, ebaluazioaren helburuekin erlazionatuta daudenak.
- Proposamenak: erakunde-mailako ekintzarako gidak, erabakiak hartzeko orientabideak, komunikazio-prozesuak optimizatzeko irizpideak, berrikuntzen eraldaketa-kudeaketarako jarraibideak, eta abar zehazten dira.

Jarrian, ebaluazio-txosten bat lantzeko eredu formal bat aurkezten dugu. Bi fitxa ditu:

- a) Ebaluazio-txostena. Laburpen-fitxa.
- b) Eranskina. Ebaluazio-txostena. Prozesatutako ebaluazio-informazioa biltzen duten fitxak.

EBALUAZIO-TXOSTENAK	
ERAKUNDEA:	_____
EBALUAZIOAREN OBJEKTUA:	_____
EBALUATZAILEAK:	_____ DATA: _____
BESTELAKO ERAKUNDEAK:	_____
Txostena jasotzen duten organoak eta igorpen-eguna	
1. BALIO-JUDIZIOAK	
- BALORAZIO OROKORRAK:	
- BERARIAZKO EBALUAZIO-JUDIZIOAK:	
- 1. helburua:	
- 2. helburua:	
...	
2. PROPOSAMENAK	

2. KOADROA. Ebaluazio Txostenaren eredu.

ERANSKINA: EBALUAZIO-INFORMAZIOA

EBALUAZIO-LANABESAK: _____

PROZESATUTAKO INFORMAZIOA

LABURPENA

3. KOADROA. Ebaluazio-informazioaren fitxarako ereduak.





Metaevaluazioa

Orain artean aztertu dugunaren arabera, ebaluazio-ekintza oro plangintzarekin hasten da eta ebaluazio-txostenarekin amaitu, eta garatutako prozesuaren inguruko alderdirik garrantzitsuenak komunikazio-hizkuntzaren bitartez adierazten dira.

Ebaluazio bat amaitu ondoren sortzen dira ebaluazioaren egokitasunari eta funtzionaltasunari buruzko galderak. Azaleratzen diren zenbait galdera honako hauek dira: Zer berri ikasi dugu ebaluazioarekin? Ebaluazioaren objektua eta helburuak egokiak al ziren? Ebaluazio-lanabesei eta ebaluazioaren edukiari esker objektua sakonago ezagutzea lortu al dugu? Ebaluaziora bideratutako baliabideen eta egindako ekarpenen artean ba al dago inolako erlaziorik? eta abar.


Ebaluazio-kudeaketako prozesu oro, lehen ere esan dugu, informazio-ezagutzaren zirkuitu bat da; hasteko, ikasgai jakin bati buruzko ezagupen praktikoa areagotu nahi da (ebaluazio-diseinua), ondoren aldeztetik landutako aurreikuspenak ezarri behar dira, eta amaitzeko ebaluazioaren emaitzak lortu. Une honetan azter daiteke hasierako erronkaren eta amaieran lortzen diren emaitzen artean dagoen erlazioa; ebaluazioaren hasiera eta amaiera lotuta azaltzen dira. Hain zuzen, edozein motako ebaluaziori ekiteko lehenik eta behin ebaluazio-estrategia diseinatu behar da: helburuak (adimena) eta errealitatea (ingurunea) erlazionatuko dira, eta amaieran berriro ere hartzen da erlazio berbera, baina emaitzekin lotuta; ebaluazioaren garapen-prozesuan, berriz, garrantzi handiagoa ematen zaie ezarpenaren beraren barruko alderdiei (teknika eta prozesua).

Aipatutako ideiak jarraian agertzen den irudian laburbildu dira.

Orokorrean, ebaluazio-jarduera oro, beste edozein giza jarduera bezalaxe, espazioarekin eta denborarekin erlazionatutako zenbait koordenatuk mugatzen dute. Hau da, garatutako ebaluazio oro testuinguru jakin batean gertatzen da; historia baten produktua da, eta ondorioz, mugatua.

Gogoeta hori koherentea da lehenengo kapituluan aztertutako edukiak gogora ekartzen baditugu, non ebaluazioa Gizarte Zientzien esparruan sistematika zientifiko bat bezala bereizten zen.

Ebaluazioak lortu nahi duen berehalako ezagupenak, sustatu zuten helburuekin lotutako berriazko balioa du, baina ez da hemen amaitzen. Izandako esperientzia ikusita baieztatu daiteke, edozein giza jarduera intentzionaletan ezagupen empirikoa sortzea eraginkorra dela, izan ere, praktikan erabilgarria den jakinduria sortzen baita. Horixe adierazten du, esate baterako, medikuntzak joan den mendean izandako garapenak; azterketa empirikoa garatu zituen, eta maitzak lortu, etorkizuneko ekintzak orientatzeko baliabide bezala ulermenak berez duen intersubjektibotasuna ziurtatuz eta hobeto funtzionatzen duten ideiak, ereduak, produktuak, prozedurak eta teknikak erabiliz.



1. IRUDIA: Ebaluazio prozesuaren eta ingurunearen arteko erlazioa.

Horrela, emankorragoa gertatzen da ekintza intentzionalarekin batera informazio-ezagupenezko estrategiak erabiltzea.

Egindako ohar guztiak oso egokiak dira, ebaluazioaren analisi kritikoa egiteko orduan metaebaluazioa mekanismo bezala erabiltzen badugu. Ebaluazioari buruzko azterlanetan, bibliografia espezializatuan biltzen direnak, ebaluazio-prozesu orotan amaierako fase bat gehitu zen, alegia, kritika egiteko estrategia eta mekanismo bat.

Orokorrean, ebaluazio-kritikak bi oinarrizko helburu betetzen ditu:

- a. Egindako ebaluazioaren azterketa eta ebaluazioaren alderdi sendoak eta ahulak azpimarratzea, hartara, izandako lorpenak eta hutsuneak behar bezala haztatu ahal izateko.

- b. Ebaluazio zehatz oro azterketa-esparru batean kokatzean, egindako ekarpen orokorrak ikuspegi funtzional batetik aztertzeke, erakundeak ekarritako berariazko edukiak eta lorpenak kontuan hartu behar ditugu. Ikuspegi metaebaluatzaile honek, aurrekoaren osagarri, ikuspegi mugatuak, sinplifikazioak, eta abar saihesten ditu.

Jarraian azaltzen diren ataletan, metaebaluazioaren helburuak zehaztasun handiagoarekin laburtuko dira.

AZTERKETA METAEBALUATZAILEAREN FAKTOREAK

Bigarren kapituluaren amaieran, metaebaluazioa aipatzean jada kritika metaebaluatzailea egiteko orduan erabil daitezkeen zenbait adierazle aipatzen ziren.

Honako atal honetan ebaluazio-kudeaketaren prozesuko zenbait faktore garrantzitsu aztertuko ditugu, hainbat arlotan antolatuta, eta orotara, metaebaluazio-sistema bat irudikatzen da.

a) *Ingurunearen eta plangintzaren arteko erlazioa:*

- Ebaluazio-diseinuan adierazten den ebaluazio-helburuaren egokitasuna ebaluazio-prozesua garatzen deneko ingurunearen ezaugarriekin lotua. Erakunde-ingurunearen ezaugarrien eta ebaluazioan hartutako estrategia eta instrumentazioaren arteko *egokitasuna* lortu behar da.
- Ebaluazio-diseinuan adierazitako ebaluazio-helburua betetzeko aukerak, erakunde-mailako giroarekin eta etorkizuneko aukerekin lotua.

b) *Ebaluazio-objektuaren justifikazioa:*

- Baieztatutako esperientzian oinarritutako irizpide zientifikoak edo erakunde-mailako premiak.

c) *Plangintzaren faktoreen arteko erlazioa:*

- Ebaluazio-plangintza osatzen duten faktoreen arteko koherentzia eta proportzioa.

d) *Ebaluazio-garapenaren kalitatea:*

- Ebaluazio-informazioa sortzeko prozesuen zehaztasuna eta koherentzia.
- Ebaluazio-informazioaren eta balio-judizioen arteko egokitasuna eta proportzionaltasuna.
- Lortutako ebaluazio-informazioaren eta txosteneko edukiaren arteko oreka.

e) *Plangintzaren eta garaoenaren arteko erlazioa:*


- Ebaluazio-diseinuaren erabilgarritasuna eta egingarritasuna.
- Lortutako ebaluazio-informazioaren eta –judizioen esanahia diseinuan adierazitako helburuekin lotua.

f) *Garatutako ebaluazioaren eta ingurunearen arteko erlazioa:*

- Ebaluazioaren kanpoko pertzepzioa. Iritziak eta arrazoiak.
- Ebaluazio-txostenen funtzionaltasuna. Funtzionaltasunaren zenbait adierazle honako hauek izan daitezke: argitasuna eta ulermena, esanahi praktikoa, esanahi erantsia duten edukiak, komunikagarritasuna, eta abar.
- Eraginkortasuna. Erabilitako baliabideen eta egindako ekarpenen arteko erlazioa.

Aipatu ditugun faktore guztiak bi esparruen arteko erlazioen baitan laburbil daitezke: ebaluazioa (plangintza eta garapena) eta ingurunea.

Azterketa metaebaluatzailearen faktore horien guztien pertzepzio orokorra jarraian agertzen den irudian ikus daiteke.



2. IRUDIA. Metaebaluazioaren esparruak eta faktoreak.


EBALUAZIOA TESTUINGURUAN KOKATZEA

Ebaluazio-prozesuaren barruko faktoreak kontuan hartuta, hala nola plangintzako lau faktoreen arteko erlazioa, prozesua kalitatezkoa izatea lortu nahi bada, ebaluatzaileek gaitasun eta trebetasun teknikoak garatu behar dituzte. Baina hori ez da nahikoa. Horrez gain, estrategia egokia bat landu behar da, bai eta ikuspegi egokitu bat lortu ere, eta bereziki, ebaluazioaren funtzionaltasun praktikoa azpimarratu behar da. Zentzu honetan, interes berezia dute lehen aipatu ditugun faktoreak, hain zuzen, ebaluazioa ingurunearekin erlazionatzen duten faktoreak: plangintza, hasieran eta amaieran, eta garapena, amaieran.

Ebaluazioarekin asmatzeko, hau da, amaiera funtzionala eta praktikoa lortzeko, ikuspegi egokia aukeratu behar da, eta ondoren, ebaluazioaren estrategia eta instrumentazioa zehaztu.

Ebaluazio-prozesu bat testuinguruan kokatzeko *erakunde-mailako ingurunearen* eta *ebaluazioaren* arteko erlazioa sakonki aztertu behar da. Lehenengoa produktuak eta zerbitzuak sortzen dituzten eraldaketa-ekintzen esparru bezala, eta bigarrena, berriz, eraldaketa-ekintzak ezagutzeko eta horiei buruzko judizioak lantzeko sistema bezala. Aipatutako erlazioa aztertzeko, jarraian hiru elementuk osatutako eredu analitiko bat garatuko dugu: gertaeren segida, zona ezaguna eta zona ezezaguna.

Ondoren, agertzen den irudiaren bitartez adieraz daitezke horiek guztiak.



3. IRUDIA. Ebaluazioa testuinguruan kokatzeko elementuak.

a) Gertaeren segida

Erakunde batean gertatzen denak, edo zehazkiago, erakunde-bizitzan adierazten diren jarrerak, beha daitezkeenak, gertaeren segida berezi bat osatzen dute. Ebaluazio-ekintza zehatz bati dagokionez, gertaeren segida, ebaluazio-gaiaren edo objektuaren inguruan normalean ematen diren jarrerak osatzen dute. Adibidez, ikastetxe bateko irakaskuntza-taldeen kalitatea ebaluatu nahi izanez gero, gertaeren segida honela osatuko litzateke:

1. Irakasleek lan-taldeetan azaltzen dituzten jarrerak: jarrera formalak eta informalak; zereginetara edo taldera orientatutako jarrerak; pertsonen arteko erlazioak eta afektibitate-erlazioak; banakako jarrerak, eta abar.
2. Ekintzaren ondorioz lortutako produktuak, hala nola programak, materialak, baliabideak, eta abar.

b) Zona ezaguna

Berehalako "informazioa-ezagupenak" osatzen du, gertaeren segidan azaltzen diren jarreraren eta egiteen oinarrian dagoena, hain zuzen.

Interpretazio bakun batetik, informazioa-ezagupena binomioak *kanpo-informazioaren*, hau da, orokorrean jakiten dena eta argitaratuta dagoena, eta *barne-ezagupenaren*, hau da, pertsona jakin batzuk dakitena eta egiten dakitena, arteko erlazioa adierazten du, bai eta ekintzan nahastutako jarrerak eta itxaropenak ere. Aurreko puntuko adibidearekin jarraituz, zona ezagunaren barruan honako puntu hauek aurkituko ditugu:

1. Ekintzan nahastutako berariazko ezagupenak eta trebetasunak.
 2. Itxaropenak, jarrerak eta motibazioak.
 3. Ebaluazio-gaiaren inguruan lan egiten jakitea.
- Irakasle-taldeek plangintzek adierazten duten informazioa-ezagupena.
 - Garapenaren baitan biltzen den informazioa-ezagupena. Taldeen kudeaketaren emaitzak. Kalitatearen adierazleak (eraginkortasuna).
 - Itxaropen eta motibazioetatik ondorioztatutako informazioa-ezagupena (giroa eta barne-kultura).

c) Zona ezezaguna

Ezagupenaren potentzialak eta garapen pertsonalak eta erakunde-mailako garapenak osatzen dute. Hazkundera izan dezakeen zona adierazten da. Ikuspegi objektibo bati jarraituta, erakundeak erabil dezakeen eta pertsonak ikasi eta erabil dezaketen bitarteko informazioa-ezagupena da. Aztertzen ari garen adibideari dagokionez, honela izango litzateke:

1. Bereganatu beharreko ezagupenak, trebetasunak eta gaitasunak.
 2. Garatu beharreko itxaropenak, jarrerak eta motibazioak.
 3. Ebaluazio-gaiari dagokionez, gehi daitekeen informazioa-ezagupena.
- Irakasle-taldeek plangintzetan bil daitekeen informazioa-ezagupena.
 - Taldeen kudeaketaren emaitzetan eragina izateko aktibatu beharreko informazioa-ezagupena; kalitatearen adierazleak (eraginkortasuna).

- Itxaropenek, jarrerak eta motibazioek berez duten informazioa-ezagupena, erakundearen barruko giroan eta kulturaren eragina dutenak.


Ebaluazioa testuinguruan kokatzeko eredu hau, laburki deskribatu dena, oso erabilgarria da, ebaluazio baten funtzionaltasuna aurreikusteko (plangintza) eta/edo kritikatzeko (metaebaluazioa) erabil daitezkeen hiru ebaluazio-estrategiak bereizteko orduan.

- a) Zona ezagunean kokatutako estrategia.
- b) Zona ezagunean eta ezezagunean kokatutako estrategia.
- c) Zona ezezagunean kokatutako estrategia.

ZONA EZAGUNEAN KOKATUTAKO EBALUAZIO-ESTRATEGIA

Ebaluazio-estrategia *zona ezagunean* kokatuta dagoela esango dugu, ebaluazio-lanabesak ezarri ondoren lortutako ebaluazio-informazioak berehala ikus daitezkeen datuak eta informazioa adierazten baditu, hau da, ekintzan nahastutako erakunde-mailako eragileek ezagutzen badute. Ebaluazioak zirkulazioan dagoen informazioarekin erlazionatutako (ezagupenak, trebetasunak eta eragileen jarrerak) informazio gehigarriak ematen ez duenean gertatzen da.

Azaldutako gertaera hori honako irudi honen bitartez adieraz daiteke.



4. IRUDIA. 1. Ebaluazio-estrategia: zona ezagunean kokatuta.

Kasu honetan, ebaluazioaren funtzionaltasuna komunikazio-mailakoa da. Ebaluazioak lortutako ezagupenak datu eta informazio bihurtzen ditu, eta eragileen arteko elkarrizketa ahalbidetzen du. Zona ezaguna oinarritzat duen ebaluazio-estrategiak "ispilu" baten fun-

tzioa betetzen du: aztertu beharreko errealitatea ebaluazio-informazioan islatzen da, eta nolabaiteko urrunketa bat eragiten du, modu horretan komunikazioa eta autoezagupena erraztuz.


ZONA EZAGUNAREN ETA ZONA EZEZAGUNAREN ARTEAN KOKATUTAKO EBALUAZIO-ESTRATEGIA

Zona ezaguneko informazioa-ezagupena eta zona ezezagunekoa erlazionatzen ditu.

Garatutako ebaluazio-prozesuaren eskutik lortutako ebaluazio-informazioaren baitan ebaluatutako errealitateari (zona ezaguna) buruzko datuak lortzen dira, eta horrez gain, zona ezezagunean informazio esanguratsua lortzen da, eta bi zonen arteko erlazioen baitan hainbat konexio eta garapen ahalbidetzen dira.

Ebaluazio-estrategia horrek, komunikazioa errazteaz gain, orain artean ezagutzen ez ziren garapenak islatzen ditu, eta horietan oinarrituta erakunde-mailako erabakiak har daitezke. Kasu horretan, funtzio nagusia erlazio eraginkorrak sortzea da, eta bide batez, zona ezagunaren eta zona ezezagunaren artean erakunde-mailako garapena sustatzen da. Horrela, ebaluazioa lanabes garrantzitsu bat dela esan daiteke eta sortutako ebaluazio-informazioaren bitartez orientatu egiten ditu ebaluatu diren gaitan (eta bestelako gaiekin erlazioa eta eragina dutenak) erakundearen barne-garapenerako prozesuak.

Aipatutako guztia jarraian agertzen den irudian laburbil daiteke.



5. IRUDIA. 2. Ebaluazio-estrategia: zona ezagunaren eta ezezagunaren arteko erlazioa.


ZONA EZEZAGUNEAN KOKATUTAKO EBALUAZIO-ESTRATEGIA

Ebaluazioa garatzeko jarrai daitekeen estrategia honen eskutik, ebaluazio-prozesuak, sortutako informazioak ebaluatutako errealitatean ikusten ez den informazioa azaleratzen du. Jarraitutako ikuspegiak ez du lortzen errealitatearen funtsa adieraztea, hurbildu egiten bada ere. Ebaluazioak ez du ebaluatutako errealitatea adierazten, baizik eta hainbat alderdi azpimarratzen ditu. Hortaz, ebaluazioaren ezaugarri nagusia gabeziak eta akatsak azpimarratzean datza.

Pentsa dezagun bilera formalak eta arruntak egiten dituen ikastetxe baten ebaluazioa egin behar dugula; irakasle-taldek hala planteatuta, ikerketa eta kalitatearen zirkuluak ardatz bezala hartuko dituen ebaluazio-estrategia bat planteatzean, akatsez eta gabeziez betetako ebaluazio bat lortuko genuke. Ez luke hezkuntza-erakundearen baitako irakasle-taldeak osatzen dituzten irakasleek ezagutzen duten errealitatea adieraziko.

Ebaluazio honen funtzionaltasuna zalantzarria da, izan ere, alde batetik, ez garen horretan eta ez dugun horretan oinarritutako komunikazio-fluxuak sor ditzake; egin genezakeen horretan edo eduki genezakeen horretan; baina, edonola izanda ere, bizi dugun berehalako errealitateetik urrun geratzen da. Bestalde, bestelako aukera batzuk ekarriko dituen lanabes bezala funtziona dezake. Azken finean, estrategia honen funtzionaltasuna antolamendu-motarekin eta ebaluatu den gaiarekin erlazioatutako pertsonen ezaugarriekin, bereziki jarrerak eta motibazioak, dago erlazioatuta, bai eta konpromiso-gaitasunarekin ere.

Jarraian agertzen den irudian aipatutako eredia islatzen da.



6. IRUDIA. 3. Ebaluazio-estrategia: zona ezezagunean kokatuta.

Aurreko bi ataletan deskribatu ditugun esparruak eta elementuak aztertzean, bai eta beraien arteko erlazioa aztertzean ere, barne- eta kanpo-informazioko sare konplexu bat

osatzen da, eta ikerlarien ikuspegitik interesgarria gerta daiteke, nahiz eta erakunde-maillako autoebaluazioari begira gehiegizkoa izan.

Hori dela eta, jarraian metaebaluazioa garatzeko prozedura bakun bat proposatuko dugu. Fitxa bat da eta bertan garatutako ebaluazio-prozesuaren inguruan eragile desberdinek lortutako informazioa eta emandako iritziak idatziko dira, hartara ebaluazioaren ikuspegi baieztatu eta anitza emateko, ebaluazioaren akatsak eta alderdi bikainak azpimarratuko direlarik.

Hala ere, kapitulu honetan metaebaluazioari buruz egindako azterketa egokia da ebaluazio-kudeaketarekin lotutako hiru faktoreen garrantzia azpimarratzen duen unetik, hain zuzen:

- a) Ebaluazio-prozesua, diseinuan aurreikusi beharreko eta garapenean bermatu beharreko barne-alderdi teknikoak.
- b) Alderdi pertsonalak eta gizarte-mailakoak. Erakundeaosatzen duten pertsonen eta taldeen garrantzia ebaluazioaren bideragarritasunari dagokionez.
- c) Hartutako ebaluazio-estrategiaren egokitasunarekin eta funtzionaltasunarekin erlazioa duten testuinguruko alderdiak.

Adierazitako fitxaren baitan biltzen diren metaebaluazio-azterketako faktoreak honako alderdi hauekin daude lotuta: ebaluazio-diseinuaren faktoreak, ebaluazio-garapenaren faktoreak, ebaluazioaren erabilgarritasuna, ebaluazioan izandako inplikazio-maila (parte-hartzea eta komunikazioa), behar izandako denbora.

GARATUTAKO EBALUAZIOARI BURUZKO DATUAK			
Hezkuntza-erakundea: _____			
Ebaluazioaren objektua: _____			
Ebaluatzaileak: _____ DATA: _____			
METAEBALUAZIOAREN FITXA			
ALDERDIA		OHARRAK	
		Eragilea	Eszenategia
		IRITZIAK	
DISEINUA	Objektua		
	Helburuak		
	Lanabesak		
	Baliabideak		
GARAPENA	Lanabesen erabilera		
	Informazioa prozesatzea		
	Ebaluazio- -bilkura		
	Laburpena/ Txostena		
KOMUNIKAZIOA			
PARTE-HARTZEA			
ERABILGARRITASUNA (funtzionaltasuna)			
BEHAR IZANDAKO DENBORA (egokitzapena)			

1. KOADROA. Metaebaluazioaren Fitxa.





Ebaluazio-plangintzaren adibideak

Autoebaluazioaren kudeaketako eredia, EK-Rs zehaztasunez aztertu ondoren, argigarria izan daiteke ED-Rs ereduaren arabera landutako zenbait ebaluazio-diseinu aurkeztea. Horixe da, hain zuzen, kapitulu honetan egin nahi dena.

Lau ebaluazio-diseinu aurkeztuko dira, antolamendu-mailako eta curriculum-mailako ebaluazio-objektuekin erlazionaturakoak, hartara, aztertu dugun ereduaren funtzionaltasuna ulertzeko. Aurkeztuko ditugun azken bi ereduak, EK-Rs ereduari jarraituta beren barne-kudeaketako prozesuetan landutako eta garatutako ebaluazio-diseinu propioak argitaratzeko baimena eman duten bi hezkuntza-erakundeenak dira.

Hain zuzen, honako hauek dira ondoren aurkeztuko ditugun ebaluazio-diseinuak, eta horien gaia edo objektua jarraian aipatuko dugu:

- a) Batuketaren kontzeptua ikastea. Diseinuaz gain beste zenbait fitxen adibideak ere azaltzen dira, eta ebaluazio-kudeaketako prozesuetan erabilgarriak izan daitezke.
- b) Ikastetxeko Urteko Planaren helburuen kudeaketa.
- c) Irakasle-talde bileren funtzionaltasuna.
- d) Matematikako problemak ebazteko irakaskuntza-ikaskuntzak duen eragina.

EBALUAZIO-PLANGINTZA: "ED-Rs" EREDUA


1. Kasua: Batuketaren kontzeptua ikastea. Ebaluazio-diseinua: "ED-Rs". Curriculum Objektua: Batuketaren kontzeptua ikastea

Ikastetxearen autoebaluazioa

IKASTURTEA: ____ / ____

EBALUAZIOAREN OBJEKTUA: _____			
DENBORA-UNITATEAK EBALUAZIO-PROZESUA	1. HIRUHILEKOA	2. HIRUHILEKOA	3. HIRUHILEKOA
a) "ED-Rs" Diseinua lantzea.....	<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>
b) Garapena: - Lanabesen erabilera:	<input type="checkbox"/>		
1. LANAB.			
2. LANAB.			
3. LANAB.			
4. LANAB.			
5. LANAB.			
6. LANAB.			
...			
- Informazioa prozesatzea...		<input type="checkbox"/>	
-Ebaluazio- -bilkura			<input type="checkbox"/>
-Ebaluazio-txostena			<input type="checkbox"/>
c) Komunikazioa			<input type="checkbox"/>

GANTT FITXA, ebaluazioaren plangintza eta jarraipena egiteko.



EBALUAZIO-LANABESA: [lanabesari buruzko testua]

1 (1)

PR.

Zeinuaren eta esanahiaren arteko lotura: batuketaren zeinua eta esanahia.

– Erlazionatu bi zutabeak arkatzez egindako marra batekin.

IRUDIEN ZUTABEA

HITZEN ZUTABEA

[bonbila baten irudia]	Bidaiatu, korri egin
[automobil baten irudia]	Elkartu, multzokatu
[guraizeen irudia]	Argia, argiztatu
+	Moztu
[Sarraileko giltza baten irudia]	Gelditu
["stop" dioen trafiko-seinale baten irudia]	Ireki, itxi

EBALUAZIO-LANABESA: [lanabesari buruzko testua]




2 (2)

PR.

Batuketaren prozedura baieztatzea

– Beha itzazu kasu hauek: bola berdeak
elkatu edo gehitu egiten dira

Egin jarraian azaltzen diren batuketak.
Idatzi laukitxoetan zenbakiak.

	$\begin{array}{r} 1 \\ + \dots\dots\dots \\ \hline \dots\dots\dots \end{array}$
	$\begin{array}{r} \dots\dots\dots \\ + 3 \\ \hline \dots\dots\dots \end{array}$
	$\begin{array}{r} \dots\dots\dots \\ + 3 \\ \hline \dots\dots\dots \end{array}$

EBALUAZIO-LANABESA: [lanabesari buruzko testua]

3 (2) BH/JAR. Ikaslearen koadernoan batuketaren erabileraren azterketarako jarraibideak

1. BATUKETAREN PROZEDURA:

– Batuketaren elementuen kokapena: batugaiak, batura eta batuketaren zeinua

Behatutako aldia		Behatutako kasu-kopurua	Kokapen egokiarekin batuketa-kopurua	% zuzena
Ikasturte osoa	Azken hiruhilekoa			

– Ohiko akatsak:

Batugaien kokapena	Batuketaren zeinuaren erabilera	Batugaien eta baturaren arteko bereizketa-lerroa

2. BATUKETAREN FUNTZIONALITASUNA:

– Kalkuluen zuzentasuna

Behatutako aldia		Behatutako kasu-kopurua	Kokapen egokiarekin batuketa-kopurua	% zuzena
Ikasturte osoa	Azken hiruhilekoa			

– Batuketa eskatzen duten enuntziatuetan batuketaren kontzeptua aplikatzea

Behatutako aldia		Behatutako kasu-kopurua	Enuntziatuaren eta batuketa-eragiketaren artean erlazio zuzena duen kasu-kopurua	% zuzena
Ikasturte osoa	Azken hiruhilekoa			

EBALUAZIO-LANABESA: [lanabesari buruzko testua]

4 (3)

GALD.

Batuketaren kontzeptua egoera errealetan erabiltzea

1. Bi sagar dituzu, eta beste hiru oparitzen dizkizue. Zenbat sagar dituzu guztira?

2. Poltsikoan 5 pezeta dituzu, eta zure amak beste 5 eman dizkizu. Zenbat pezeta dituzu?

3. Zure lagunak 5 kolore ditu zorroan eta zuk hiru utzi dizkiozu bere marrazkia margotzeko. Zenbat kolore ditu orain zure lagunak?

EBALUAZIO-LANABESA: [lanabesari buruzko testua]

5 (3)

GALD.

Egoera errealetan batuketa-proposamenak eraldatzea

→ Jarraian zuk ezagutzen dituzun zenbait batuketa ikusi ahal izango dituzu. Asma ezazu horiek erabiltzeko adibide bat.

Adibidez:

$\begin{array}{r} 4 \\ + 4 \\ \hline 8 \end{array}$	<p>– 8 bola ditut: lehendik 4 nituen, eta beste 4 irabazi ditut</p>
---	---

– Orain zuk egin behar duzu:

$\begin{array}{r} 1 \\ + 6 \\ \hline 7 \end{array}$	
$\begin{array}{r} 8 \\ + 2 \\ \hline 10 \end{array}$	
$\begin{array}{r} 5 \\ + 4 \\ \hline 9 \end{array}$	

OHARRA: Galdaketa hau ahoz edo idatziz bete daiteke, kasuaren arabera.

EBALUAZIOAREN GARAPENEZKO FITXAK

<p>EBALUAZIO-INFORMAZIOA [Lanabesak azaltzea eta informazioa prozesatzea]</p> <p>a. Informazio kuantitatiboa duten fitxak:</p> <p>—</p> <p>—</p> <p>—</p> <p>b. Informazio kualitatiboa duten fitxak:</p> <p>—</p> <p>—</p> <p>—</p>

141

<p>EBALUAZIO-BILKURA ETA TXOSTENA [balio-judizioak sortzea eta idatziz laburtzea]</p> <p><i>Ebaluazio-bilkura:</i></p> <p>→ Eragileak: Ebaluatzaileak: _____ Parte-hartzaileak: _____ _____</p> <p>→ Jarraituko den prozesua:</p> <p>a. Prozesatutako ebaluazio-informazioa komunikatzea:</p> <p>b. Ebaluazioari buruzko elkarrizketa: balio-judizioak adieraztea, banakakoak eta intersubjektiboak:</p> <p>c. Informazioa eta balio-judizioak txosten batean idatziz adieraztea</p> <p>Behar izan den denbora: <input type="text"/> _____h.</p>

1. BALIO-JUDIZIOAK

- *OROKORRAK* [balorazio-judizioak]

- *BERARIAZKOAK* [ebaluazio-judizioak]

- 1. helburua:

- 2. helburua:

- 3. helburua:

...

2. PROPOSAMENAK

2. EBALUAZIO-INFORMAZIOA [Ebaluazio-lanabesekin lortutako informazioa prozesatuta] – balio-judizioak honako informazio honetan daude oinarrituta –	
Judizioak [erlazioa]	PROZESATUTAKO DATUAK ETA INFORMAZIOAK [fitxak, estatistika, grafikak, behaketa-jarraibideak, eta abar]

DATUAK ETA INFORMAZIOAK JASOTZEKO FITXA.



Ebaluazio-kudeaketako
hainbat esperientzia

Honako kapitulu honetan, Kataluniako eta Euskadiko hainbat zentro erakunde-mailako autoebaluazioari dagokionez izandako esperientzia azaltzen saiatuko gara.

Autoebaluazioa barne-kudeaketako prozesuen baitan garatzeko interesa agertu zuten hainbat erakundek, bereziki hobekuntza, kalitatea eta berrikuntza lortzeko baliabide bezala; ebaluazio-estrategiak garatzeko berriazko metodologia bat beharrezkoa zen, eta hori lortzeko ideia eta eredu desberdinak eman eta aztertu ziren.

Eta lan horren prozesua ezagutzeko aukera izan genuen Kataluniako eta Euskadiko irakasleen edo zuzendarien prestakuntzaren esparruan. Garatutako lanarekin batera, ebaluazioaren eta kudeaketaren inguruko gogoeta egin genuen. Hain zuzen, mintegietatik eta ebaluazio-lantegietatik hasita, ebaluazio-plangintzari buruzko saiakuntzak eta lan desberdinak egin ziren. Ondoren, hezkuntza-zentro horiek bereganatu zuten esperientzia bakoitzak zegokion zentrorera eraman zuen, eta kudeaketako praktika arruntetan autoebaluazioaren kontzeptua kontuan hartzea erabaki.

Guk aurkezten dugun lan honetan lau adibide aztertu dira, baina gogoan hartu askoz ere zentro gehiagotan garatu direla antzeko esperientziak. Espazioa eta egokitasuna irizpide bezala hartuta, aipatu lau kasuak aukeratu ditugu: antolamendu-mailako eta curriculum-mailako ebaluazio-objektuak azaltzen dira, eta gure helburua izan da aztertu dugun ereduaren funtzionaltasunaren adibideak islatzea.

Orain aurkezten ditugun esperientziak, EK-Rs ereduaren arabera egindako barne-kudeaketako prozesuetan landu eta garatu dituzten ebaluazio-diseinuak argitaratzeko baimena eman duten hezkuntza-erakundeetan garatu dira.

KATALUNIAKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEAK

IRAKASLEEN BILEREN FUNTZIONALITASUNA. EBALUAZIOA-PLANGINTZA: "ED-Rs" EREDUA

Bartzelonako Mollet del Vallès-eko S. Gervasi hezkuntza-zentroaren erakunde-mailako autoebaluazioaren esperientzia

Escola Sant Gervasi eskola zentro pribatu bat da eta 6-16 tarteari dagokionez *Kataluniako Generalitat* delakoak itundutako zentro bat; irakasleen arteko kooperatiba-erregimenaren arabera funtzionatzen du. 1.970 urtean Mollet del Vallés hirian sortu zen, Bartzelonatik

gertu; 1250 ikasle ditu haur-hezkuntzatik batxilergora banatuta, eta horrez gain, Enpresa zuzendutako Etengabeko Prestakuntzako atal bat eta sektore kimikoa espezialitate bezala duen goi-mailako prestakuntza eskaintzen duen zentro bat ere baditu.

Sant Gervasi eskola osatzen duten lagunek konpromiso etiko-profesionala hartu dute, eta lan egiteko orduan azaltzen duten jarrera oso positiboa da. Gauza bakunek, errotuek eta benetako senak ematen diote Nortasuna eskolari: elkar-bizitza eta koordinazioa, eskola bizi-zentro eta kultur zentro bat bezala ulertzea, tutoreen lana eta familiarenganako hurbiltasuna, ohitura bezala irakasleen etengabeko prestakuntza garatzea, eta abar.

Eta kultur jarduera eta kirol-jarduera desberdinak, musika, hizkuntzak, hezkuntza-prozesuan IKT integratzea, multimediak lantzea, eta abar, horrek guztiak nortasun berezia ematen dio erakundeari.

OBJEKTUA		
→ "Zentroko organo tekniko-pedagogikoen koordinazioaren funtzionaltasuna. 1998-99 ikasturtea"		
HELBURUAK		
<ol style="list-style-type: none"> 1. Bileretako elementu formalak BEREIZTEA ETA AZTERTZEA: deialdia, eguneko gai-zerrenda, aktak, dokumentazioa, denbora, puntualtasuna, iraupena. 2. Bileretako parte-hartzaileen rolak BALORATZEA ETA ERKATZEA. 3. Akordioen emaitzak eta bileren edukia AZTERTZEA ETA AZALTZEA. 4. Bileren erabilgarritasuna NABARMENTZEA ETA DESKRIBATZEA. 		
LANABESAK		
Zk. (hel.)	Mota	Deskribapena
1 (1)	GAIA	Bileretako elementu formalen azterketa
2 (2)	JARR./HEL	Bileretan agertzen diren rol pertsonalak
3 (2)	ELKAR.	Rol pertsonalen behaketa baieztatzea
4 (3)	JARR./HEL	Akten azterketa dokumentalaren jarraibideak
5 (3)	GAIA	Irakasle-taldeen lana
6 (4)	ELKAR.	Bileren erabilgarritasuna
BALIABIDEAK		
<i>A. Pertsonalak:</i>		
a. Ebaluatzaileak: Zentroko hezkuntza-etapa bakoitzetik bina irakaslea (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, eta Batxilergoak); zuzendaritzak izendatuko ditu irakasleak.		
b. Parte-hartzaileak:		
1. lan.: Ausaz aukeratutako taldeko bi kide		
3. lan.: Ausaz aukeratutako taldeko koordinatzailea eta kide bat		
5. lan.: Ausaz aukeratutako taldeko koordinatzailea eta bi kide		
6. lan.: Taldeko kide guztiak		
<i>B. Materialak:</i>		
a. Ondasunak: Fotokopiak, ebaluatzaileen eta parte-hartzaileen denbora, informazioa prozesatzeko datu-basea		
b. Zerbitzuak: Aholkularitza		

1 (1) GAIA Bileretako elementu formalen azterketa

HEZKUNTZA-ETAPA: _____ ZIKLOA: _____

ORGANO TEKNIKO-PEDAGOGIKOA: _____

1. Deialdiak aurrerapen nahikoz jasotzen al dira?

___Beti ___Batzuetan ___la inoiz ez ___Inoiz ez

2. Eguneko gai-zerrendan zehazten al dira ondoren bileran landuko diren alderdi esanguratsuenak?

___Beti ___Batzuetan ___la inoiz ez ___Inoiz ez

3. Organoak landutako lanerako planean aurreikusi al dira lehentasunak, garatu beharreko oinarriko zereginak eta bete nahi diren helburuak?

___Bai, ___Ez

Oharrak:

4. Aldez aurretik landu eta onetsi den lanerako planarekin koherenteak al dira bilerak?

___Beti ___Batzuetan ___la inoiz ez ___Inoiz ez

Oharrak:

5. Laburpenean edo aktan islatzen al dira hartutako akordioak?

___Beti ___Batzuetan ___la inoiz ez ___Inoiz ez

Oharrak:

6. Bileretan dokumentazio osagarririk banatzen al da?

___Beti ___Batzuetan ___la inoiz ez ___Inoiz ez

Oharrak:

7. Banatzen dokumentazio osagarririk banatzen al da?

___Beti ___Batzuetan ___la inoiz ez ___Inoiz ez

Oharrak:

8. Taldeko kide guztiak garaiz iristen al dira bileretara?

___Beti ___Batzuetan ___la inoiz ez ___Inoiz ez

Oharrak:

9. Bilerak amaitzeko ordutegia betetzen al da?

___Beti ___Batzuetan ___la inoiz ez ___Inoiz ez

Oharrak:

B. EBALUAZIO-LANABESAK BILTZEN DITUZTEN FITXAK.

2 (2) JARR./HEL. Bileretan azaltzen diren rol pertsonalak

HEZKUNTZA-ETAPA: _____ ZIKLOA: _____

ORGANO TEKNIKO-PEDAGOGIKOA: _____

1. Jarraian zehazten diren rolak behatzea eta erregistratzea:

TALDEKO KIDEAK	LANAREN ROLAK A,b,c,d,e,f,g,h,i,j,k,l	TALDEKO ROAL ll,m,n,o,p,q,r,s	BANAKAKO ROLAK t,u,v,w,y,z
1. Pertsona			
2. Pertsona			
3. Pertsona			
4. Pertsona			
5. Pertsona			
6. Pertsona			
7. Pertsona			
8. Pertsona			
9. Pertsona			
10. Pertsona			

TALDEKO ZEREGINETARA ORIENTATUTAKO ROLAK

a. Sustatzea-laguntza	g. Kritikatzea-baloratzea
b. Iritziak galdetzea	h. Aktibatzea (suspertzea)
c. Informazioa ematea	i. Informazioa bilatzea
d. Iritziak ematea	j. Lanak burutzea
e. Koordinatzea	k. Lanak praktikara eramatea
f. Orientatzea	l. Erregistratzea

TALDEA INDARTZERA ETA KONTSERBATZERA ZUZENDUTAKO ROL DESBERDINAK

ll. Animatzea	p. Eredu komunak zehaztea
m. Jarrera irekia - Komunikatzea	q. Behatzea eta oharrak hartzea (feed-back)
n. Arbitrar	r. Jarraipena egitea
o. Armonizar	

BANAKAKO ROLAK

s. Oldakorra (arazoak eta taldea erasotzen ditu)	w. "Playboy" (ezerk ez dio axola)
t. Hondatzailea (negatibotasuna, erresistentzia)	x. Menderatzailea
u. Gainontzekoek bera mirestea nahi duen ikaslea	y. Laguntzaren bila dabile kidea (inork bere babesa eskainiko diola uste du)
v. Autokonfesatzen dena (sentimendu subjektiboak, intuizioak, eta abar ekartzen ditu)	z. Interes berezien atzetik jarduten duena

3 (2) ELKAR. Rolak behatu ondoren, lortutako datuak ekartzea

HEZKUNTZA-ETAPA: _____ ZIKLOA: _____

ORGANO TEKNIKO-PEDAGOGIKOA: _____

1. Helburuak betetzeko, proposatu diren jarduerak garatzeko, eta abar, organoaren eraginkortasuna balora ezazu.

___ Bat ere ez ___ Txikia ___ Nahiko ___ Handia

Oharrak (iradokizunak)

Taldeko bilerei esker aurrera egiteko lortzen al da?: _____

Denbora behar bezala aprobetxatzen al da?: _____

2. Bileretan, taldean izaten den giroa baloratzea (0tik 4rako puntuaketa)

___ Amorratua: irain asko eta oldarkortasun handiko bilerak

___ Tirabiratsua: eztabaida biziak eta pertsonalizatuak

___ Formalizatua: ez da ezer gertatzen. Parte-hartze gutxi. Bilera-errituala

___ Hitz egiteko irekia: parte-hartzaileek hitz egiteko erabiltzen duten tonua atsegina da eta elkarriketa desberdinak sortzen dira

___ Elkarlanerako irekia: parte-hartzea, interesa, inplikazioa...

Oharrak:

3. Taldeko kide bakoitzaren iritzia kontuan hartzen al da?

___ Ezer ere ez ___ Gutxi ___ Nahiko ___ Askok

Oharrak:

4. Irakasle-taldea osatzen duten irakasleen arteko harremana egokia al da jarduera guztiak garatzeko?

___ Beti ___ Batzuetan ___ Inoiz ez ___ Inoiz ez

Oharrak:

5. Taldearen alderdi sendoak eta alderdi ahulak aipatu

SENDOAK

AHULAK

6. Zein aldaketa egingo zenuke bileren funtzionamendua hobetzeko?

4 (3) Bileren akten azterketa: akordioak

HEZKUNTZA-ETAPA: _____ ZIKLOA: _____

ORGANO TEKNIKO-PEDAGOGIKOA: _____

1. Bileretako akten edo laburpenen azterketa (abendutik martxora bitartean)

DATA	IRAUPENA	LANDUTAKO GAIAK	ONES-- PENA	EZARPENA			JARRAIPENA	GERTAKARIAK
				Programaz.	Baliabideak	Denbora		

5 (3)

GAIA

Taldeko akordioak eta ekintzak

HEZKUNTZA-ETAPA: _____ ZIKLOA: _____

ORGANO TEKNIKO-PEDAGOGIKOA: _____

1. ¿Bileretan hartutako akordioak aurrera eramateko giro egokia al dago?

___ Ez, inoiz ez ___ Batzuetan ___ Orokorrean bai

Oharrak:

2. Taldeak elkarlanean egiten al du lana?

___ Ez, inoiz ez ___ Batzuetan ___ Orokorrean bai

Oharrak:

3. Bileren antolakuntzak taldeak akordioak hartzea ahalbidetzen al du?

___ Ez, inoiz ez ___ Batzuetan ___ Orokorrean bai

Oharrak:

4. Hartutako akordioak taldeko kide guztiek onartzen al dituzte?

___ Ez, inoiz ez ___ Batzuetan ___ Orokorrean bai

Oharrak:

5. Ikasturte hasieratik lan-taldeak burututako jarduera garrantzitsuenak aipatu ___ hilabete igaro dira.

6. Bileretan hartutako akordioak martxan jartzeko zailtasunik al dago?

___ Bai ___ Ez

Azaldu arrazoiak:

7. Bileretan hartutako erabakien eta ondoren egiten denaren arteko koherentzia baloratzea

___ Oso altua ___ Altua ___ Ertaina ___ Baxua

Oharrak:

8. Bileretan hartutako akordioak martxan jartzeko, beharrezkoak diren baliabideak aurreikusten al dira?

___ Ez, inoiz ez ___ Batzuetan ___ Orokorrean bai

Oharrak:

9. Bileretan hartutako akordioak martxan jartzeko plangintzarik eta koordinaziorik burutzen al da?

___ Bai ___ Ez

Erantzuna baiezkoa bada, azal itzazu ekintza eraginkorrenak

5 (3)

GAIA

Taldeko akordioak eta ekintzak

HEZKUNTZA-ETAPA: _____ ZIKLOA: _____

ORGANO TEKNIKO-PEDAGOGIKOA: _____

10. Geletan garatzen de heziketa-lana eragiten duen erabakirik hartzen al da?

___ Bai ___ Ez

Erantzuna baiezkoa bada, gelan gauzatu diren erabakirik garrantzitsuenak aipatu

11. Bileretako akordioetatik ondorioztatzen den jardun-lerroen eraginak baloratzen al da?

___ Ez, inoiz ez ___ Batzuetan ___ Orokorrean bai

Oharrak:

6 (4) ELKAR. Bileren eraginkortasuna

HEZKUNTZA-ETAPA: _____ ZIKLOA: _____

ORGANO TEKNIKO-PEDAGOGIKOA: _____

1. Bileren erabilgarritasuna baloratzea. Puntua itzazu Otik 4ra jarraian aipatzen diren itemak.

 Bilerak lankideekin alkartzeko aukera paregabea dira, baina ez dira erabilgarriegiak. Bilerak lankideen arteko komunikazio-esparru erabilgarriak dira. Bilerak beharrezko koordinazio-esparrua dira. Bilerek irakasleen lanaren balioa indartzen dute. Bilerek, bertan parte hartzen duten pertsonen balioa sustatzen duten. Bilerak lankideen arteko eztabaidarako eta gogoetarako esparru bat dira. Bileretan giro motibatzailea sortzen da, bai intelektualki, bai profesionalki. Bilerak eraginkorrak dira: erabaki erabilgarriak hartzen dira, ekintzarako irizpide komunak ezartzen dira, eta abar. Bileretan beti pertsona berdinek hitz egiten dute; gai guztiak pertsona berdinen inguruan gartatzen dira. Bilerak gatazka-iturri bat dira.

2. Bilerak irakasleen arteko koordinazio-esparru bezala, proposamenak, iradokizunak edo beharrezkotzat jotzen diren aldaketak egiteko esparru bezala.

2.1. Zein alderdi baztertu beharko litzateke?

2.2. Zer gehitu?

2.3. Zeri eutsi beharko litzaioke?

ARITMETIKA-PROBLEMEN EBAZPENA LEHEN HEZKUNTZA. EBALUAZIO-PLANGINTZA: "ED-Rs" EREDUA

Bartzelonako Sant Domènec Ikastetxeko (La Ràpita. Sta. Margarida i Els Monjos) erakunde-mailako autoebaluazio-esperientzia.

HLHZ *Sant Domènec* Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Zentro bat da, eta Kataluniako Generalitat-aren mendekoa da.

La Ràpita herrian dago, hain zuzen *Santa Margarida i els Monjos* udalerrian.

La Ràpita 800 biztanle inguru dituen herri bat da, eta *Alt Penedès* eskualdearen hegoaldeko muturrean dago. Tarragonako probintziarekin mugakidea da honako herri hau.

Eraikinak, N-340 errepide zaharraren bazter batean kokatuta dagoena, 1931 urtean ireki zituen ateak. Gaur egun, 2001-2002 ikasturterako 104 ikasle ditu haur-hezkuntzaren eta lehen-hezkuntzaren artean banatuta, eta 12 irakasle daude bertan lanean.

Zentro honen alderdi azpimarragarriena bertako Eskola Irratiaren Emisorea da, alegia, "*Ràdio Ràpita*", eta berau 1990eko apirilaren 23an inauguratu zen.

Azken urteotan, eskolak ahalegin izugarria egin du, eta makina bat alderdi berri hartu eta martxan jarri ditu irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, esate baterako, informatika, ikus-entzunezko bitartekoak, haur-hezkuntzan (5 urte) ingelesa irakastea...

Hala ere, egindako lanak eta ahaleginak jaso ditu emaitzak: hainbat sari irabazi ditu, hala nola Komunikabideen Gizatasunari Saria (Premio Civismo a los Medios de Comunicación), 1998, *Departament de Benestar Social de la Generalitat de Catalunya* Sailak emandakoa, Kataluniako toki-emisoreak Sustatzeko Saria (Premio Estímulo a las emisoras locales de Cataluña), 1995, kulturaren irrati-difusioan egindako ekarpenagatik saria, Rafael Peris Fundazioak emanda. TV3 telebistako programetan parte-hartu izan du. Bai eta hainbat aldizkaritan ere, aldizkari pedagogikoak, haurren aldizkariak eta gazteenak...

OBJEKTUA		
→ 1998-1999 Ikasturtean, problema aritmetikoen, geometrikoen eta neurketen ebazpena, Lehen Hezkuntzan.		
HELBURUAK		
1. Ikasleek, problemak ebazteko orduan bereganatu dituzten ezagupenak EGIAZTATZEA. 2. Nerabeei problemak ebazteko garatutako lana AZTERTZEA ETA BALORATZEA.		
LANABESAK		
Zk. (Hel.)	Mota	Deskribapena
1 (1)	PROBA	Ikasleek problemak ebaztea.
2 (1)	JARR./HELB.	Ikasleek problemak ebazteko gelan garatu duten lana.
3 (2)	GAIA	Problemak ebazteko orduan irakasleen esku-hartzea.
BALIABIDEAK		
<i>A. Pertsonalak:</i>		
a. Ebaluatzaileak: ikastetxeko 2 irakasle.		
b. Parte-hartzaileak:		
1. lanab.: _____ Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako azkeneko mailetako ikasleak.		
2. lanab.: _____ Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako azkeneko mailetako ikasleak.		
3. lanab.: _____ Lehen Hezkuntzan Matematikako arloa irakasten duten irakasleak.		
<i>B. Materialak:</i>		
a. Ondasunak: _____ Fotokopiak, kudeaketa-denbora, ordenagailua eta material suntsikorra.		
b. Zerbitzuak: _____ Problemak ebazteko orduan aholkularitza.		

1(1) PROBA Ikasleek problemak ebaztea (hasierako zikloa)

1. Begiratu marrazkia eta elkarrizketa. Idatzi dagozkion zenbakiak laukitxoan eta burutu eragiketa.

– Marrazkian, automobil-lasterketa baten helmuga irudikatzen duen marra ikus daiteke. Bi automobilek jada gainditu dute marra; automobil bat marra igarotzen ari da; eta beste bat iristen ari dela ikus daiteke, baina oraindik ez du marra gainditu.

– Marrazkian elkarrizketa bat agertzen da; neska batek zera esaten dio mutil bati: "19 automobil irten ziren, eta jada, ...iritsi dira (irakasleak jada iritsi den automobil-kopurua idatzi behar du). Oraindik... iritsi gabe daude (ikasleak dagozkion kopurua idatzi behar du).

2. Goizean 38 katu beltz ikusi dituzte, eta arratsaldean 16 zakur eta beste 19 katu beltz ikusi dituzte. Zenbat katu beltz ikusi dituzten egunean zehar?

>Eragileak:

> Galderaren erantzuna:

1 (1)

PROBA

Ikasleek problemak ebaztea (ziklo ertaina)

1. PROBLEMA GEOMETRIKOA: Kalkula ezazu poligono honen perimetroa.



2. NEURKETA: Pedrok, eskolara joateko, egunero 4 km. egin behar ditu oinez, eta Luisak 3,422 metro. Zenbat metro gehiago egiten ditu Pedrok?


3. PROBLEMA ARITMETIKOA: 10 goxoki erosi ditut, eta goxoki bakoitzagatik 25 pezeta ordaindu ditut. 1.000 pezetako billete batekin ordaindu badut, zenbat pezeta eman dizkirate bueltan?

1 (1)

PROBA

Ikasleek problemak ebaztea (goi zikloa)

1. PROBLEMA GEOMETRIKOA: 8,6 cm-ko diametroa duen zirkunferentzia baten luzera kalkula ezazu. Zirkunferentzia karratu baten barruan badago, kalkula ezazu karratuaren perimetroa.



2. NEURKETA: Biltegi batean kamioi bati 12.345 Kg-ko karga jarri diote; bigarren biltegi batean 3,21 tona jarri dizkiote, eta hirugarren batean, berriz, 475,2 Kg. Zenbat Kg. kargatu dira guztira?
3. PROBLEMA ARITMETIKOA: Bikote batek eta 14 urte baino gutxiagoko hiru seme-alaba zirkorra joan dira. Helduaren sarrerak 1.250 pezeta balio ditu eta adin-txikikoarenak 750 pezeta. Amak 5.000 pezetako billete batekin ordaindu badu, zenbat ditu itzuli diote?

2 (1)	JARRA/HEL	Ikasleek problemak ebazteko gelan garatu duten lana (behaketa-aldia: lanabesa erabili denetik hasita, azken bi hilabeteak)
-------	-----------	--

Irakaslea: _____

1. Irakasleak ikasleen lana behatzeko fitxa bat du; fitxa horretan problemen ebazpenei buruzko itemik ba al dago?

___ Bai ___ Ez

2. Problemen ebazpenarekin lotuta, zenbat ikasleri buruzko oharra hartu dira?

Kalkulatu portzentajea

3. Irakasleak hartutako oharren deskribapena:

Problema-mota	Lorpenak		Akatsak		Bestelako oharra
	Erantzuna	Eragiketa	Erantzuna	Eragiketa	
-Neurketa					
-Geometria					
-Aritmetika					

3 (2)	GAIA	Problemak ebazteko orduan irakasleen esku-hartzea
Irakaslea: _____		
1. EDUKIA ETA HELBURUAK. Adieraz ezazu jarraian aipatzen diren alderdiak Kontuan hartu ote dituzun		
BAI	EZ	CURRICULUM-HELBURUEN ELEMENTUAK
		<ul style="list-style-type: none"> -Zer lortu behar den galdetzea -Arrazoiketaren urrats desberdinak bata bestearen atzetik lortzea -Problema aritmetikoekin, zenbakien bidezko eragiketak egitea -Problema ebazteko aukera bat baino gehiago ote dagoen aztertzea, eta erantzuna baietz bada, bat aukeratzea -Hartutako bidea baliagarria oten den baieztatzea -Jarraitutako prozesu ahoz adieraztea -Erantzunak modu zuzenean adieraztea -Ezagutzen duguna eta ez duguna bereiztea
BAI	EZ	CURRICULUM-EDUKIEN ELEMENTUAK
		<ul style="list-style-type: none"> -Aldez aurretiko ezagupenak aktibatzea: informazioa, ulermena -Problemaren enuntziatu baliabide desberdinen bitartez interpretatzea (marrazkiak, elkarrizketak, eta abar) -Egoera desberdinak errepikatzeko, materialak aldatzea -Jarraitutako estrategia modu arrazoituan adieraztea: zer da lehenengo pentsatu dena, zer da jarraian egitea erabaki dena, nola jakin duen problema ebazia da-goela... -Plangintzan sartutako eragiketak ebaztea -Akatsen arrazoiak aztertzea, akatsik badago, eta horiek konpontzen saiatzea
(...)		

(...)

Oharrak:

2. METODOLOGIA. Jarraitu beharreko urratsei dagokionez, zenbait kendu, edo gehigu edo aldatu daitezke

—

__Hasteko azalpenak eman.....

—

__Jarraian, irakurketa egin.....

—

__Aldez aurretik ezagupenen eskutik plangintza landuko dugu: hasierako egoera, eraldaketa, eta amaierako egoera

—

__Ezagutzen diren eta ezagutzen ez diren datuak eta informazioa bildu

—

__Marrazki bat egin behar da egoera desberdinak irudikatzeko

—

__Dagokion eragiketa burutu

—

__Erantzuna eman

—

__Gelako ikaskideen artean erkatu

(...)

(...)

– Zure ustez, aipatu urrats guztiak jarraitu behar dira, emaitza onak lortzen direleko.

3. BALIABIDEAK. Erabiltzen dituzun baliabideak. Azter ezazu baliabide desberdinei ematen zaien erabilera.

BAI	EZ	BALIABIDEAK
		Testu-liburua:
		Kanpoan landutako material osagarria:
		Norberak landutako material osagarria:
		Material informatikoa:
		Ahozko jarduerak:
		Ebaluazio-jarduerak:

(...)

(...)

4. EBALUAZIOA. Informazioa biltzeko eta zuzentzeko jarraitzen duzun prozedura, eta horien erabilera-mailari buruzko iruzkina

a. *Informazioa eskuratzeko prozedurak*: baloratu Otik 3ra, garrantziaren eta erabileraren araber

__ Gelan, ikaslearen inplikazio-maila eta ematen dituen erantzunak behatzea (enuntziatuak ulertzexa, plangintza, eragiketak ebaztea, amaierako emaitza)

__ Ikaslearen koadernoaren behaketa sistematikoa (lorpena eta akatsak bereietzea)

__ Arbelen galderak egitea

__ Proba desberdinak burutzea

__ Banakako eta/edo taldeko lanak

b. Aurreko atalean aipatu ditugun prozeduren artetik, zein erabiltzen duzu ikaslea ebaluatzeako eta kalifikatzeko? Bat baino gehiago erabiltzen baduzu, bakoitzarren proportzioa zehaztu.

EUSKADIKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEAK

Jarraian agertuko diren ebaluazio-diseinuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Zuzendaritza Taldeentzat antolatzen dituen prestakuntza-ikastaroen baitan landu dira.

Zuzendaritza Taldeen prestakuntza-programaren funtsezko helburua da profesionaltasuna sustatzea, hartara zentroetan eskola-zuzendaritzaren zeregina sendotzeko eta zehazteko.

Zuzendaritza Taldeen Prestakuntza Programa martxan jarri denetik, Prestakuntzako Oinarrizko Modulua lantzeaz gain, beste hainbat proposamen eskaini dira, eta ezagupenak sakontzera eta praktikarekin lotutako ikaskuntza-jarduerak garatzera zuzendu dira.

Oinarrizko Moduluan parte hartzen zuten zuzendaritza-taldeek hainbat premia planteatu zituzten, eta horiei erantzuteko antolatu ziren ezagupenak sakontzera zuzendutako ikastaroak. Hainbat gai jorratuko da, hala nola: informazioa/komunikazioa zentroan, estresaren kudeaketa, erabateko kalitatea, irakasle-taldeen koordinazioa, gatazken konponbidea, barne-ebaluazioa eta elkar-bizitzaren kudeaketa.

Zentroaren barne-ebaluaziorako ikastaroa antolatzeko arrazoi nagusia izan zen barne-ebaluazioa norberaren garapenerako eta garapen profesionalerako faktore garrantzitsu bat dela; eta ondorioz, eskola-erakundearen baitan ere eragina du.

Zuzendaritza-taldeek barne-ebaluazio arrakastatsu bat egitea lortu nahi badugu, honako baldintza hauek kontuan hartu behar dira:

- Ebaluazio-kontzeptuari eta -teknikei dagokienez, prestakuntza edukitzea.
- Antolakuntzak eskaintzen dituen aukeren araberrako ebaluazio-eredu egokiak hartzea.
- Prozedura teoriko-praktikoei jarraiki ebaluatzen ikastea, modu autonomoan eta eraginkorrean funtzionatzeko gaitasuna lortu arte.
- Ebaluazioaren ezagupen teoriko-praktikoa duten profesionalengandik ikastea.
- Ebaluazio-kudeaketako zirkuitu oso bat behin baino gehiagotan errepikatzea, lortutako ikaskuntza osatzeko eta sendotzeko.
- Zuzendarien eta bestelako profesionalen lankidetzeta eta parte-hartzea lortzea.

Aipatu funtsen ildotik planteatu da zentroaren barne-ebaluazioari buruzko ikastaroa, bereziki zuzendaritza-taldeetara zuzendua. 60 orduko iraupena du honako ikastaro honek,

25 fase trinkoan; gainontzeko denbora, fase trinko horretan landutako ebaluazio-diseinua garatzeko erabiliko da.

Ikastaroaren garapena

Ikastaro bakoitzaren koordinazioa, zuzendaritza-taldeen prestakuntza-programaren taldeko bi kidek egingo dute; beraien ardura izango da, alde batetik, lantegia dinamizatzea, horretarako estrategia metodologikoak eta azalpen teorikoak emanez, eta bestetik, ebaluazio-diseinuak gauzatzeko orduan aholkuak ematea.

Jesús Rul-ek ikastaro guztietan bere lankidetzak eskaini du eta EK-Rs ebaluazio-eredua aurkeztu du ikastaro hauetako parte-hartzaileen funtsezko lanabes bat bezala.

Fase trinkoa lantegi baten antzera garatuko da, eta bertan, parte-hartzaileek ebaluazio-prozesuaren fase bakoitza ezagutu ahal izango dute, bai eta saiakuntzak egin ere. Xede horrekin material-aukera handia dute, bai material bibliografikoa bai ebaluazio-lanabesei eta ebaluazio-diseinuen ereduari buruzko materiala.

166

Ikastaroa amaitzean, parte-hartzaile bakoitzak, edo talde bakoitzak (zentro berekoak badira), fase trinkoan *æ*bost edo sei hilabete*æ*, jada ebaluazio-diseinu oso bat landuta eduki behar du. Parte-hartzaileek landutako ebaluazio-diseinua gauzatzeko orduan ikastaroaren koordinatzaileen laguntza eskainiko da, bai banaka bai taldean (ebaluazio-objektu bera lantzen duten zentro bat baino gehiago dagoen kasuetan).

Fase trinkoa amaitu ondoren, fase hori aztertzeko saio berezi bat antolatuko da, eta bertan, parte-hartzaileek landu duten proiektua, horren garapena eta ateratako ondorioak taldearen aurrean azaldu beharko dira. Parte-hartzaile guztiek landutako proiektua informatika-euskarriaren bitartez banatuko da, hartara, ikastaroko kide guztien lanaren emaitza guztiek ezagutzeko.

Lehenengo bi faseak amaitu ondoren, garatu duten ikastaroaren balorazio kualitatiboa eta kuantitatiboa egin behar dute parte-hartzaileek, eta horretarako, xede horrekin sortu diren lanabesak erabiliko dira.

Barne-ebaluazioari buruzko ikastaroaren helburuak dira:

- Zuzendaritza-taldeek, beren zentroko barne-ebaluazioren prozesu desberdinei aurre egiteko ezagupenak bereganatzea.

- Barne-ebaluazioaren prozesua eta berau osatzen duten kudeaketa-lanabesak ezagutzea.
- Zentro bakoitzaren testuinguruaren arabera, ebaluazio-diseinua eta lanabesak lantzea.
- Barne-ebaluazioa hobekuntza eta taldeko ikaskuntza lortzeko funtsezko elementu bezala ulertu, eta horren aldeko jarrerak sustatzea.

Ikastaroa osatzen duten eduki garrantzitsuenak dira:

- Ebaluazioa, kalitatea eta/edo hobekuntza lortzeko beharrezkoa den lehenengo urrats bezala.
- Ebaluazioa irakasleen aldetik inplikazioa eta motibazioa eskatzen duen helburu eta ikaskuntza sustatzen duen lanabes bezala.
- Barne-ebaluazioaren prozesua osatzen duten faseak:
 - Ikastetxearen ebaluazio-esparruak: osagaiak eta azpiosagaiak
 - Ebaluazio-diseinua.
 - Lanabesak: protokoloen erreperitorioa. Hautapen-irizpideak. Lanabesak lantzeko jarraibideak.
- Zentroan bertan ebaluazio-premien diagnostikoa egitea.
- Barne-ebaluazioa negoziatzeko estrategiak diseinatzea eta horiek erabiltzea.
- Zentroko diagnostikoaren arabera, ebaluazio-diseinu bat lantzea.
- Egoera zehatz bakoitzerako lanabes egokiak aukeratzea.
- Ebaluazio-lanabesak sortzea.
- Fase luzearen esparru baten ebaluazioaren kudeaketa.

Metodologia, funtsean, aktiboa da. Parte-hartzaileak dira benetako protagonista. Beraien ardura da dituzten premia zehatzen arabera gogoeta egitea eta lanabesak diseinatzea, aukeratzea eta lantzea. Fase luze honetan, hori guztia errealitatean gauzatu, eta azkenik, prozesu osoaren amaieran aurkeztuko da.

1996-2001 urteen bitartean barne-ebaluazioari buruzko 7 ikastaro garatu dira hiru lurraldeetan, bai euskaraz bai gaztelaniaz.

IKASTETXEEN BARNE-EBALUAZIOKO IKASTAROAK

	<i>Data</i>	<i>Hizkuntza</i>	<i>Tokia</i>
1996-97 ikastaroa	Martxoa 10-14	Gaztelania	Bilbo
1997-98 ikastaroa	Urtarrila 19-24	Gaztelania	Bilbo
1998-99 ikastaroa	Urtarrila 11-15	Gaztelania	Bilbo
1999-00 ikastaroa	Urria 18-22	Euskara	Gasteizko PATa
	Azaroa 8-12	Gaztelania	Donostiko PATa
00-01 ikastaroa	Azaroa 20-24	Gaztelania	Bilbo
	Abendua 11-15	Euskara	Bilbo

"EK-Rs" EBALUAZIO-DISEINUA, JARRAIAN AIPATZEN DIREN BARNE-EBALUAZIOKO PROIEKTU GUZTIETAN (IKASTAROEN ONDORIOZ LANDUTAKOA) ERABILI DA

Euskara:

1. Zuzendaritza taldearen autoebaluazioa.
2. Ikastetxearen koordinaketa-sistema.
3. Urteko Planaren ebaluazioa.
4. Zentroko Instalakuntza / ekipamenduaren egokitasuna.
5. Eguerdiko denbora-tartean (12,30etatik 14,30etara) patio estaliaren birmoldaketak ikasleen jardunaren gainean izan duen eragina.
6. Koordinatzaileen bilerak. Koordinatzaileen funtzioak-egoera.
7. Laguntza zerbitzua.
8. Irakurketa-idazketaren metodologia berritzen.
9. Jolastokiaren antolaketa, erabilera eta mantentzea.
10. Ikastolan ikasturtean egindako psikomotrizitate formakuntzaren ebaluazioa.
11. Zikloko bilerak, 99-00 ikasturtean.

12. Interakzioak itinerantea/ikaslea, curriculum eskuhartzean eta ikusmen patologia mailan ematen duen laguntza aktiboan.
13. 1999-00 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan egindako informatika ikastaroa.
14. Ikasleen garapenaz, LH eta DBHko zikloetan tutoreek familiei ematen dieten informazioaren ulermen azterketa.
15. Guraso eta ikastola artean sortzen den informazioaren transmisiorako bideak 199/00 ikasturtean.
16. Ikastola jangelako haurren bazkal ondorengo denbora 99/00 ikasturtean.
17. Informazioaren transmisioa zuzendaritzatik klaustrora 99/00 ikasturtean.

Gaztelania

1. Evaluación del Equipo Directivo.
2. Eficacia del proyecto de formación en centro y satisfacción del profesorado.
3. Participación del profesorado en el proyecto de formación.
4. Funcionamiento de los Departamentos.
5. Evaluación de la gestión del inventario del centro.
6. Funcionamiento del horario de exclusiva.
7. Evaluación del Plan de actividades extraescolares.
8. Utilización de recursos/equipamiento informático por el profesorado.
9. Elaboración del presupuesto anual.
10. El Equipo Directivo como dinamizador de la coordinación necesaria para la aplicación del PCC.
11. El Equipo Directivo como dinamizador de la toma de decisiones.
12. El Equipo Directivo como dinamizador de la participación de las familias.
13. Resolución de conflictos.
14. Proyectos de formación / innovación.
15. Materiales curriculares del C.I. de inglés por el profesorado.
16. Logro de objetivos conceptuales de la U. D. "El enlace químico" de 4º de F.P.
17. Uso del euskera oral.
18. Instalaciones y recursos materiales.
19. Instalaciones y recursos.
20. Evaluación interna de la mediateca.
21. Evaluación de la biblioteca I-II.
22. Autoevaluación de la práctica docente.
23. Evaluación de la práctica Psicomotriz.
24. Reuniones del orientador con las tutorías de 1º y 2º de bachillerato durante los meses de octubre y noviembre.
25. Coherencia entre el plan anual del COP/PAT y el plan de intervención en los centros de Primaria a los que asesora. Primer y 2ª trimestre del curso 99/00.

26. Autoevaluación de la actividad docente.
27. Proceso de cumplimentación del consejo orientador en 4º de ESO en el curso 98/99.
28. Reuniones del equipo directivo durante el primer y 2º trimestre del curso 1999/00.
29. Eficacia otorgada por el profesorado al plan de formación como respuesta a las necesidades del centro, durante los dos primeros trimestres del curso 99/00.
30. Organización y utilización de los recursos didácticos en el primer trimestre del curso 99/00.
31. Asesoría de matemáticas del COP/PAT en dos seminarios de E. Primaria durante los dos primeros trimestres del curso 99/00.
32. La convivencia en el segundo ciclo de la ESO durante el 2º trimestre del curso 99/00.

Ondorioak

Koordinatzaileek baieztatu ahal izan dugunez, irakasleek beren jarduna hobetzeko modu bikain bat lortzen dute ebaluazioarekin. Informazioaren azterketak, iritzi landu bat eman baino lehen egin beharreko gogoetak, hezkuntza-praktikaren izaera eta esanahia ulertzen lagunduko digute, bai eta horren inguruan erabiltzen diren ideia edo kontzeptu desberdinak ulertzen ere.

Lantegiaren eskutik ebaluazioaren kontzeptua eta funtzioa ezagutzen dira, eta aldi berean, gaitasun teknikoak (ebaluazio-diseinuak lantzea eta aplikatzea) eta gizarte-trebetasunak garatzen dira (informazio-prozesuetan parte hartzea, ezagupena, balioak partekatzea, kontzeptuzko esparruak eta judizio intrasubjektibo batetatik intersubjektibo batetara pasatzea, gogoeta partekatua eta taldeko ikaskuntza sustatuz).

Modu berean, ebaluazioaren kudeaketa egiteko eredu egokiak eta praktikoak eskuratzeko aukera ematen da, eta horiek teorian eta praktikan gauzatzen ikasteko aukera ere bai (saiakuntza-errorea, aholkuak).

Ebaluazioaren aldeko jarrera sustatzen da, eta horrela, gerta daiteke, ebaluazioa zentzuzko zeregin arrunt guztietan erabiltzea.

"EK-Rs" ebaluazio-kudeaketaren eredu oso sinplea da, eta horrexegatik, hain zuzen, erabiltzeko erraza, izan ere, ebaluazioaren egitura oso sinplea da, eta aldi berean oso berrazkoak, ikastetxeak zehaztuko baititu ebaluazio-objektuak, zentroaren interesen eta baliabideen arabera. Horrez gain, ebaluazioa osatzen duten oinarriko hiru alderdien arte-

ko elkarrekikotasuna eta egokitzapena ahalbidetzen da, alegia: estrategia, lanabesak eta balio-judizioak. Ebaluazio-estrategia (ebaluazioaren objektua eta helburuak), ebaluazio-lanabesak (barne-egokitzapena eta kanpo-koherentzia, informazio esanguratsua eta anitza emango delarik). Lanabesen bitartez eskuratu den informazioan oinarrituta landu diren balio-judizioek intersubjektibotasunezko prozesuak garatzea eskatzen dute, hau da, lortutako informazioaren azterketan oinarritzen den elkarrizketaren bitartez, taldea osatzen duten lagunek balio-judizioak partekatu behar dituzte.

Ikastaroak garatu ahala baieztatu dugunez, ebaluazioak ezagupen praktikoa sortzeko berariazko funtzio bat betetzen du, eta funtzio hori funtsezkoa da eskola-erakundeen komunikazioaren eta eraldaketen inguruko erabakiak orientatzeko; gainera, ebaluatu diren ekintzak informazioa-ezagupenarekin atzeraelikatzen dituen baliabide bat bezalako dira, eta horri esker, informazioa eman eta interpretatzeko laguntza lortzen da. Hori guztia kontuan hartuta, erakundeen baitan jokatzeko baliabide garrantzitsu batn aurrean gaudela esan daiteke.

ZENTROAREN PRESTAKUNTZA PROIEKTUAREN FUNTZIONALITASUNA: "HIZKUNTZEN METODOLOGIA IKASLEEN ARTEKO ANIZTASUNA LANTZEKO

Bilboko Zamakola IP zentro publiko bat da, Eusko Jaurlaritzaren mendekoa; 500 ikasle inguru ditu 2 urtetik Lehen Hezkuntzara banatuta, eta 42 irakaslek egiten du bertan lan.

"B" hizkuntz ereduan (euskara eta gaztelania) eta "D" hizkuntz ereduan (euskaraz, eta gaztelania irakasgai bezala) ikas daiteke bertan.

Auzo honetan kokatu zen Euskal Herrian ezagutu dugun azken migrazio-mugimendua, hortaz, bertako biztanle gehienek gaztelania dute hizkuntza bakarra.

Bilboko kanpoaldean dago Zamakola auzoa, La Peña auzoan; auzo horretan bizilagunen artean harreman estuak daude eta ikastetxea bertako kultur erreferente garrantzitsu bat da.

Zentro honek 15 urte baino gehiago daramatza Zentroaren Berrikuntza eta Prestakuntzarako Proiektuetan parte hartzen; garrantzi berezia eman diete aniztasunaren, elkar-bizitzaren eta hizkuntzen metodologiaren (euskara eta gaztelania) tratamenduarekin erlazionatutako alderdiei.

Berrikuntza Proiektuak eta Prestakuntza Proiektuak irakasleek antzemandako premiei erantzuteko landu dira, eta irakasle gehienek martxan jarri dituzte.

OBJEKTUAK

Zentroaren Prestakuntza Proiektuaren funtzionaltasuna: "Hizkuntzen metodologia ikasleen arteko aniztasuna lantzeko".

HELBURUAK

1. Burututako lana eta aldez aurretik landutako programazio bat ote datozen egiaztatzea (edukia, epeak).
2. Irakasleek Prestakuntza Proiektuari buruz ematen dituzten iritziak deskribatzea eta baloratzea, bai eta irakasleen prestakuntzarako balioa eta irakasleen asetze-maila ere.
3. Irakasleek proiektuen eta lanerako prozesuan duten inplikazioa baieztatzea.
4. Prestakuntzaren ondorioz geletan aurkeztutako inplikazio metodologikoak bereiztea.
5. Landu den ikasleen materialen eta adostutako jarraibide metodologikoen arteko koherentzia aztertzea.
6. Lanerako metodoaren funtzionaltasuna deskribatzea eta baloratzea, egindako aldaketa berrien aurreran ikasleek emandako erantzunetatik abiatuta.

BALIO-IRIZPIDEAK

1. Helburuen %80 bete da, eta gainera, zehaztutako epeen baitan.
2. Irakasleen %70ren ustez, landutako alderdiak bat datoz beren prestakuntza itxaropeneekin, eta burututako lanarekin aseturik agertzen dira.
3. Ikasleekin erabilitako materialaren %90 zikloko taldeak landu edo aztertu du.
4. Gela bakoitzean, gutxienez, adostutako akordio metodologikoen %50 gauzatu da.
5. Irakasleen artean banatutako materialaren %70ek, adostutako metodologia-lerroa jarraitzea ahalbidetzen du.
6. Ziklo bakoitzeko ikasleen %70ek ondo lan egiten du lanerako metodoaren arabera.

EBALUAZIO-LANABESAK			
Zk.	HELB.	MOTA	DESKRIBAPENA
1	1	P/Egiagt.	Lanerako Plana betetzea
2	2	Gaia	Irakasleen prestakuntza eta asetze-maila
3	3	Elkarrizketa	Materialak ikasleen ezaugarrietara egokitzea
4	4	Jarr./Beh.	Adostutako akordio metodologikoak gauzatzea
5	5	Jarr./DA	Haur Hezkuntzan landutako Proiektuak aztertzea
6	5	P/Egiagt.	Landutako materialen eta adostutako metodologia-lerroaren arteko koherentzia
7	6	Jarr./Beh.	Metodologia-lerroaren aurrean ikasleek agertutako funtzionaltasuna

EZARPEN-ARAUAK
<p>ERAGILEAK: Proiektuaren Koordinatzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> Irakasleak Kanpoko aholkularia PATEko aholkularia <p>AUDIENTZIAK: Irakasleak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasleak Kanpoko aholkulariak <p>NEGOZIAKETA: a) Irakasleekin</p> <p style="margin-left: 40px;">Zer: - Helburuak, irizpideak, lanabesak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Probak noiz eta nola garatuko diren - Ondorioak → nork / nola - Hobekuntzarako proposamenak → nork - Zein motako txostena aurkeztuko da? → Saila <li style="margin-left: 100px;">→ Klaustroa <li style="margin-left: 100px;">→ Eskola Kontseilua <p>DENBORALIZAZIIOA:</p> <p>Urtarrila: Ebaluazio-diseinua lantzea. Irizpideak, lanabes-mota desberdinak eta ezarpen-arauak bateratzea.</p> <p>Otsaila: Lanabesak lantzea. Batzorde Pedagogikoan eta Ziklo desberdinetan aztertzea. Horiek bateratzea.</p> <p>Martxoa: 16tik 27ra – Lanabesen Erabilera (1. fasea). Datuen analisisa.</p> <p>Apirila: Ondorioak bateratzea. Behin-behineko txosten mota desberdinak bateratzea.</p> <p style="margin-left: 40px;">Metaebaluazio partziala.</p> <p style="text-align: right;">(...)</p>

(...)

Maiatza: Kanpoko Aholkularien ebaluazioa

Ekaina: (1. hamabostaldia) - Lanabesen erabilera (2. fasea). Datuen analisia eta ondorioak.

Datuen triangulaketa: - maila desberdinetakoak

- une desberdinetakoak

(2. hamabostaldia) - Behin betirako txostena idaztea, amaierako metaebaluazioa.

ARAU ETIKOAK

* 2, 3, lanabesei.

* Txostenean, gehiengoan iritzia eta berriaz adierazten diren iritziak islatzea.

* Irakaslea bakoitzak bere hezkuntza-praktikaren inguruan egiten dituen balorazioak ez dira txostenean idatziko. Irizpide konstruktiboak eta ekarpenak bakarrik. Ez dira pertsonak baloratu behar, jarrerak baizik.

BALIABIDEAK

GIZA BALIABIDEAK

- Parte-hartzaileak: irakasleak eta ikasleak.
- Arduraduna: Proiektuaren Koordinatzaileak
- Aholkulariak: Ebaluazio-koordinatzailea
PATEko koordinatzailea
Haur Hezkuntzako aholkularia
- Kolaboratzaileak (ordenagailua): Juanjo eta Ricardo

BALIABIDE MATERIALAK

- Disketea
- Ordenagailua
- Bibliografia:
 - La evaluación comunicativa. Jesús Rul Gargallo
 - Como en un espejo. Santos Guerra
 - Aproximación a la función de la evaluación en Educación. Jesús Rul
 - Competencia de la dirección, en la Evluación del Centro. Nuria Borrel Felip
 - La autoevaluación de Centros como garantía social de la calidad educativa.
 - La memoria evolutiva del Centro Educativo. Jesús Rul Gargallo

BALIABIDE FUNTZIONALAK

- Denbora
 - * Ebaluatzaileak → (orduak guztira)
 - * Irakasleak →

(...)

(...)

- * Kanpoko aholkulariak: Proiektuaren koordinatzailea → 8 ordu
- PATeko koordinatzailea → 10 ordu
- Haur Hezkuntzako koordinatzailea → 10 ordu

- Teknologikoak

- * Lanabesak: landutako (eranskinak)
- * Diseinuak: "DE-Rs" diseinuaren eredu bakuna. Jesús Rul
- * Eskalak: Hezkuntza Zentro batean Ebaluatu beharreko Alderdiak: Santos Guerra

EBALUAZIO-BILERAK

EDUKIA. BERTARATUAK. EGUNAK

Irakasleei dagokienez:

- 1.- Urtarrilak 26: Klaustroan ebaluazioari ekiteko beharra eta ebaluazioaren nondik norako (orokorrean) azaltzea → 1 ordu
- 2.- Urtarrilak 29: Irizpideak, lanabesak, ezarpen-arauak bateratzea (2 o. - PIF)
- 3.- Otsailak 2 eta 9: Batzorde Pedagogikoan lanabesak aztertzea → 2 ordu
- 4.- Otsailak 12: Etapen arabera, lanabesak eta lanabesak erabiltzeko baldintza bateratzea → 1 ordu
- 5.- Martxoaren 16tik 27ra: Lanabesen erabilera → 2 ordu
- 6.- Martxoak 30 eta apirilak 1: datuen azterketa eta lehenengo ondorioak. Batzorde Pedagogikoa → 2 ordu
- 7.- Apirilak 2: ondorioak bateratzea
- 8.- Apirilak 20: Txosten-mota desberdinak adostea → 1 ordu

3. hiruileroko

Maiatza: Kanpoko Aholkularien Ebaluazioa

Ekaina: (1. hamabostaldia) - Lanabesen erabilera (2. fasea). Datuen azterketa eta ondorioak.

Datuen triangeluaketa: - maila desberdinetakoak
- une desberdinetakoak

(2. hamabostaldia) - Behin betirako txostena idaztea. Amaierako metaebaluazioa.

PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEAK

- * Irakasleei zuzenduta zehaztutako saio guztiak (13 ordu - bigarren hiruhilekoa), eta 10 ordu, gutxi gorabehera - hirugarren hiruhilekoa.

(...)

(...)	<p>* 40 ordu inguru alderdi hauek lantzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lan-proposamenak - Datuak eta lehenengo ondorioak lortzea - Txosten-mota erabakitzeko proposamenak - Lanabesak lantzea - Behin-behineko eta behin betirako txostenak lantzea <p>* Ebaluazio Proiektuaren Koordinatzailearekin.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 3 egun, bina ordu eguneko, jarraipena egiteko - 4 ordu taldearen aurrean azalpenak emateko
-------	--

EBALUAZIO-TXOSTENAK

Hartzaileak:	<p>A) - Klaustroa</p> <p>B) - Eskola Kontseilua</p> <p>C) - Hezkuntza Saila</p>
Mota desberdinak:	<p>A) Klaustroa: prozesuari eta emaitzei dagokienez, zehaztasun osoa.</p> <p>B) Eskola Kontseilua: lortutako ondorioak, bereiziki honako puntu hauei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Praktika eta erabilitako materialak. - Alderdi sendoak azpimarratzea: erabilitako metodologiarekin izandako arrakasta. - Hobetu beharreko alderdiak. - Datorren ikastustera begira, ildo berean jarraitzeko proposamena. <p>C) Saila:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Ebaluazio-proiektuaren laburpena. <ul style="list-style-type: none"> - Erabili diren balio-irizpideak. - Ezarpen-arauak: eragileak, audientziak eta denboralizazioa. - Ebaluazio-bilerak. - Lortu diren datuak. Bateratutako ondorioak. - Hobekuntzarako proposamenak 2) Beste hainbat datu. <ul style="list-style-type: none"> - Esperientzia garatu deneko testuingurua. - Burutu diren prestakuntza-jardueren laburpen koadroa. - Irakasle bakoitzak lan-saioretan egiten duen lana egunero erregistratzea. - Metodologia berria martxan jartzearen ondorioz antolakuntzan izandako aldaketak. - Landutako materialen lagina. - Gastuaren justifikazioa

METAEBALUAZIOA

Eragileak - Prestakuntza proiektuaren Koordinatzaileak.

(...)

(...)

Beharrezkoak diren datuak / informazioa:

- Bileretako aktak
- Lortutako datuak
- Garatu den prozesuari buruzko oharrak

Metodologia

- Garatu den prozesu osoaren azterketa: irakasleen inplikazioa, zorrotasuna, landutako txostenak, diseinutik urruntzea...
- Egindako oharrak Batzorde Pedagogikoarekin eta kanpoko aholkulariekin kontsultatzea.

Denboralizazioa

- Partziala apirilaren 22rako.
- Behin betirako - ekainaren 2. hamabostaldia.

ERANSKINAK: Lanabesak, lortutako datuak, txostenak, eta abar.

PROIEKTUA LABURBILTZEN DUEN ORRIA

IZENA: PRESTAKUNTZA-PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

ZENTROA: ZAMAKOLA IP.

Parte-hartzaileak: M^a ASUN OLANO LARRABASTER
 (kargua zehaztu) Zuzendaria
 Zentroaren helbidea: ZAMAKOLA, 174. 48003 - BILBAO
 Telefonoa: 944168023
 Faxe: 944168023

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA: Antzeman diren eta lehentasuna eman zaien premiak, proposatutako oinarritzko helburuak.

- Ikasturte honetan proiektu hau garatzeko, Zentroko baliabide pertsonal, denbora, antolamendu-baliabide eta ekonomia-baliabide gehienak nahastuko dira. Horrexegatik, eta proiektua behar bezala garatzeko egin beharreko ahalegina hain handia izanik, proiektuaren eskutik gure hezkuntza-praktika hobetzea espero dugu, eta hori dela eta, egin beharreko ebaluazioak oso zehatza izan behar du.
- Proiektu honetan irakasle guztiek parte hartzen dute, eta horrexegatik, hain zuzen, errazagoa izan da guztiak ebaluazioan nahastea.
- Metodologian izandako aldaketa, curriculuma osatzen duten gainontzeko zeregin guztietan egin behar da datozen ikasturteei begira, eta horrexegatik interesatzen zaigu ahalik eta ebaluazio zehatzena egitea.
- Nire ustez, zailagoa da hezkuntza-berrikuntzarekin lotutako alderdiak ebaluatzea, antolakuntza-berrikuntzarekin lotutakoak baino, eta hori kontuak hartuta, alderdi pedagogikoagoen ebaluazioa sakonagoa izatea nahi izan dut.

2. GAUZATZE-PROZESUA, jarduera esanguratsuenak, epeak, baliabideak, aurreikusi gabeko gertakariak, eta abar adierazi.

(...)

(...)

- Zentroko irakasle guztiak parte hartu dute. Ikasketaburuak eta zuzendariak koordinatu dute prozesua (proiektuaren koordinatzaileak dira).
- Irakasleekin alderdi desberdinak bateratu dira: denboralizazioa, arau etikoa, lanabesak, ondorioak, landu beharreko txostenak eta txostenen hartzaileak.
- Ebaluazio-prozesu hau 2. hiruhilekoan egin behar denez (nahiz eta ikasturta amaiera arte proiektuarekin lanean jarraituko den), lortutako datuak eta ondorioak partzialak izango dira. Hortaz, ikasturte amaieran prozesuaren zati handi bat errepikatu behar izango da, eta hobekuntza-proposamenak ordurako utziko diren.
- Haur Hezkuntzako aholkulariek eta PATeko aholkulariek ebaluazioa egin behar dute, eta horregatik ezinezkoa izan zaigu datuen triangeluaketa islatzea.

3. PROIEKTUAREN BAITAN LANDUTAKO ETA/EDO EGOKITUTAKO MATERIALAK

Datuak jasotzeko lanabesak:

- Irakasleen Prestakuntzari eta Asetze-mailari buruzko galdeketa.
- Irakasleek materiala lantzeko orduan egindako lana aztertzeko gida.
- Bateratutako akordio metodologikoak martxan jartzeko txantiloia.
- Ikasleen asetze-maila ezagutzeko, galdeketa bat egitea.
- Haur Hezkuntzako ikasleek, idazketaren prozesuan gairatutako fasea aztertzeko txantiloia.
- Jarrerak ebaluatzeko kontrol-zerrenda.

4. ESPERIENTZIAREN BALORAZIO OROKORRA

Ikastaro hau oso lagungarria izan da, bereziki honako bi alderdi hauei dagokionez:

- Aldez aurretik ebaluazio-prozesu osoa biltzen duen diseinu bat lantzea.
- Metaebaluazioa.

URTEKO AURREKONTUA EGITEA. EBALUAZIO-PLANGINTZA: "ED-RS" EREDUA

Bengoetxe Bigarren Hezkuntzako Institutua Galdakaoko Sixta Barrenetxea 13-A kalean dago.

Galdakao 30.000 biztanle dituen herri bat da eta Bilbotik 10 kilometrora dago, gutxi gora-behera; udalerrri honetan industria da nagusi, eta herriaren morfologia Ibaizabal ibaiaren ibilgura egokitzen da.

Bengoetxe BHI Eusko Jaurlaritzaren mendeko zentro publiko bat da eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bakarrik eskaintzen da bertan. Gaur egun 318 ikasle ditu: B ereduan ikasten dute (elebiduna), hau da, gaztelania eta matematika gaztelaniaz ikasten dituzte, baina gainontzeko irakasgai guztiak euskaraz.

Alderdi nabarmen bezala aipatu behar dugu, institutu hau dela Euskal Autonomia Erkidegotik Premia Programan (Teknologia Berrien Garapena irakaskuntzan) parte hartzen duten 18 zentroetako bat. Premia Programari esker irakasle guztiek barruko c. e. bat erabil dezakete, baita Interneten sartu ere; eta horrez gain, ikasleek Interneten doan ibiltzeko aukera dute, erabilera mugatua bada ere. Eta aipatutako guztia Institutuko edozein terminaletatik burutu ahal da.

Eta azaldutako guztia ezagutu nahi baduzu, jarraian agertzen diren gure helbideetara jo:

www.bengoetxe.com
ibengoetxe@euskalnet.net

Zentroa: Bengoetxea Bigarren Hezkuntzako Institutua

Egilea: Esteban Iturbe Iturralde

Izena: URTEKO AURREKONTUA LANTZEA

OBJEKTUA

HEZKUNTZA-ZENTROAREN URTEKO AURREKONTUA LANTZEKO ESTRATEGIA. 1998/1999 IKASTURTEA

Zuzendaritza Taldeak bete beharko duen funtzio bat da ekitaldi bakoitzeko aurrekontua lantzea; bertan zehaztuko dira aurrekontu-sailak, banaketa-irizpide zuzenetan oinarrituta.

Hortaz, ebaluazio-proiektu honen bitartez zentroaren kudeaketa ekonomikoa hobetzea ahalbidetuko duen trebetasuna bereganatzeaz gain, eskola-erkidegoa osatzen duten kideen inplikazioa ere lortu nahi da, hartara okerrak zuzentzeko. Horretarako, aurrekontuarekin lotutako hainbat ebaluazio-helburu eta -irizpide zehaztu ditugu, eta Eskola Erkidegoa osatzen duten estamentu desberdinen artean banatutako galdeketak eta formularioak hartu dira oinarrian.

Zalantzarik gabe, gure ustez ebaluazioari dagokionez egin dugun ahalegin izugarriari esker, aurrekontua prestatzeko orduan, eraginkortasunez jokatzearaz gain, gardentasunez ere jokatu da, eta horrek guztiak zentrorako konfiantzazko giroa eta parte hartzeko aukera eskaintzen duen ingurune bat ekarriko du.

HELBURUAK	BALIO-IRIZPIDEAK
<p>1. Finantza-baliabideak banatzeko jarraitu diren irizpideak Bereiztea eta deskribatzea.</p> <p>2. Irizpideen eta zentroak dituen inbertsio-premien arteko egokitasuna baloratzea (ekipamendua, baliabide didaktikoa).</p> <p>3. Gastuen aurrekontu-saila aurrekontu-murrizketako politikaren zerrendatzea.</p>	<p>1. Gutxienez 5 irizpide esplizitu egotea.</p> <p>2. Inbertsiora zuzendutako gastuaren portzentajea %20-%30 artean egotea.</p> <p>3. Murriz daitezkeen kontu sailak, jarraian aipatzen diren portzentajeen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Fotokopiak: %15 - Konponketa: %50 - Berogailuak: %10 - Material suntsikorra: %10 - Argia: %15

EBALUAZIO-LANABESAK

Zk.	HELB.	MOTA	IZENBURUA
1	1	ELKARR.	Sailtako kideei elkarrizketak.
2	2	GALD.	Sailen lehentasunei buruzko fitxa
3	3	Jarr./Dok.	Gastuen analisisa (aurrekontu-sailen banaketa)

EZARPEN-ARAUAK

ERAGILEAK: Zuzendaritza Taldea.

AUDIENTZIAK: Sailak, Ikasleak, Zuzendaritza Taldea.

NEGOZIAKETA:

NORK: Saileko buruak, Ekonomia Batzordeak eta Zuzendaritza Taldea.

ZER: Balio-irizpideak eta ebaluazio lanabesak.

DENBORALIZAZIOA

URTAR., 15/25: Ebaluazio-diseinua bat lantzeko prestakuntza. 30 ordu.

OTSAILA, 03/17: Negoziaketa eta lanabesak lantzea.

OTSAILA, 23/27: Lanabesak erabiltzea eta datuak jasotzea.

MAR., 09/13: Azterketa eta zirriborro bat lantzea.

MAR., 23/25: Amaiaerako txostena idaztea.

MAR., 26/27: Metaebaluazioa.

BALIABIDEAK

GIZA BALIABIDEAK: saileko kideak, Gurasoen ordezkariak, ikasleak (maila bakoitzeko gela bakoitzeko bana).

(...)

(...)

BALIABIDE MATERIALAK: prestakuntza-ikastaroan banatutako materialak eta 92-93 Ikastetxeen Ebaluazio planetik hartutako galdeketak.

BALIABIDE FUNTZIONALAK: Barne-ebaluazioari buruzko prestakuntza-ikastaroa, Jesús Rul-en ebaluazio diseinuaren eredia. Norberak landutako informazio biltzeko lanabesak.

EBALUAZIO-BILERAK

OTSAILA, 05: Erabiliko diren irizpideen inguruko negoziaketa, Zuzendaritza Taldearen parte-hartzearekin

OTSAILA, 06: Landu diren lanabesen erabilgarritasunari buruzko negoziaketa.

MAR., 12: Bildutako informazioa berriro antolatzeko bilera.

MAR., 13: Galdeketa emaitzak aztertzeko bilera.

MAR., 24: Txostena idaztea.

MAR., 27: Metaebaluazioa idaztea.

EBALUAZIO-TXOSTENAK

HARTZAILEAK: Zuzendaritza-taldea eta Eskola Kontseilua.

MOTA: Bakarra bi kasuetan.

METAEBALUAZIOA

ERAGILEAK: Zuzendaritza Taldea.

METODOLOGIA: - Emaitzen esdanguratasuna baloratuko da.

- Lanabesak hobetzea.

- Irizpideak birplanteatzea.

DENBORALIZAZIOA: Martxoaren 27an Zuzendaritza Taldearekin bilera.



Erabilitako
bibliografia

COOK, T.D. y REICHARDT, CH.S: *Métodos cualitativos y cuantitativos en investigación evaluativa*, Madrid: Morata, 1986.

Mota honetako lanak "reading" izenez ezagutzen dira, hau da, hainbat egilek egindako lanak biltzen dira. Bertan azaltzen diren egileen esanetan, metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak arteko liskarrekin amaitzea komeni da. Metodologia kualitatiboak eta kuantitatiboak, ikertuko diren errealitateak aztertzeke eta ulertzeke osagarriak dira. Hala ere, bi metodologiaren arteko desberdintasunak planteatzen dira, bereziki helburuei, teknikei eta erabiltzen diren hizkuntzei dagokienez.

Izaera teorikoa duen liburu tekniko bat da, eta bertan aipatzen den bibliografia oso garrantzitsua da.

COULON, A.: *La etnometodología*, Madrid: Cátedra, 1987.

Lan labor honetan egileak laborri azaltzen ditu etnometodologiaren historia eta funtsezko kontzeptuak. Coulonek jarraitzen duen korrante soziologikoa AEBetan sortu zen berrogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera, eta garrantzi handiagoa ematen zaio ulermenari azalpenari baino, hau da, garrantzi handiagoa ematen zaio mundu sozialaren gaineko ikuspegi kualitatiboari kuantitatiboari baino. Jarrera honen ildotik, gizarte-elkarreraginaren prozesuetako alderdi hermeneutikoa eta interpretazio-alderdia azpimarratzen dira.

GONZÁLEZ, M.J.: *Metodología de la investigación social. Técnicas de recolección de datos*. Alicante, Amalgama, (1997).

Ezagupen soziologikoaren metatze-prozesuan funtsezkoa da gizarte-errealitatea osatzen duten alderdi esanguratsuei buruzko informazioa sortzea, biltzea eta antolatzea. Honako lan honen helburu nagusia da hainbat ikerketa-tekniken eta beraien prozesuen azterketa zehatza egitea. Arreta berezia eskainiko zaio laginketa-prozeduren azterketari, datuak biltzeko prozedurei, hala nola behaketa, elkarrizketa, eztabaida-taldea, inkesta, eta abar

JORBA, J. et al.: "La función pedagógica de la evaluación". *Aula de Innovación Educativa*, nº 20, [Noviembre], Barcelona: 1993, págs 20-29.

Ebaluazioa irakasteko eta ikasteko prozesuan sartzean, ebaluazioak atzeraelikatze faktore bezala betetzen duen funtzioa aztertzen da lan honetan, hau da, etengabeko hobekuntza. Irakasleen etengabeko prestakuntzaren esparruan eta hezkuntza-erakundeei eskainitako aholkuetan oinarrituta egin da lan hau.

KETELE, J.M.: *Observar para educar. Observación y evaluación en la práctica educativa*. Madrid: Visor, 1984.

Behaketaren garrantzia gogoetarako faktore bezala. Hezkuntza-prozesuen ebaluazioa ebaluazio-bitarteko bikaina da geletako irakaskuntza-mailako esku-hartzea berrorientatzeko. Honako

lan honetan behaketa-metodologiak aztertzen dira. Bereziki azpimarratzen dira behaketarako estrategiak, teknikak, prozedurak, eta abar, hezkuntza-prozesuaren beraren berezko elementu bezala.

NEVO, D.: *Evaluación basada en el centro. Un diálogo para la mejora*: 1997.

Honako liburu honetan, ebaluazioa ulertzeko kontzeptuzko esparru bat eskaintzen zaigu; oinarrian zentroa hartzen da, bai eta eskola-erkidegoaren onurarako erabil daitezkeen metodo guztiak ere.

Liburuko adibideak herrialde desberdinetako ikastetxeetan egindako lanaren esperientziatik hartu ditu.

Ebaluazioak elkarrizketaren oinarria izan behar duela azpimarratzen du, bai eta ebaluazioa orokorrean hartuta eta ikastetxeetako ebaluazioa bakarrik hartuta, teoria berri bat garatzeko premia asetu behar da.

Berak egiten duen proposamena ikusita, barne-ebaluazioaren eta kanpo-ebaluazioaren arteko konbinaketa dela esan daiteke.

Ediciones Mensajero. Bilbao

PADUA, J.: *Técnicas de investigación aplicadas a las Ciencias Sociales*, México: FCE, 1987.

Gizarte-errealitatearen deskribapen, azalpen, aurreikuspen eta interpretaziora orientatutako ikerketa-metodologiak oinarrian ditu honako testu honek. Bereziki aztertzen ditu ikerketaren eragiketa-alderdiak, hala nola, laginketa, datu kuantitatiboak biltzeko eta aztertzeko teknika, SPSS estatistika-programa adibidez, arrisku-eta lotura-eta neurriak, erregresio anitzen teknika, faktoreen arabeko analisia, eta abar. Seigarren kapituluaren zenbait eskala aztertzen dira: Thurstone-ren jarrera eta interesen neurketaren eskala, eta Guttman-ena, edo Osgood-en diferentzial semantikoaren eskala.

RINCON del, D. et al.: *Técnicas de investigación en Ciencias Sociales*, Madrid: Dykinson, 1995.

Testu tekniko honetan Gizarte Zientzien esparruko ikerketa-teknikak aztertzen dira. Datu kuantitatiboak biltzeko betiko biltzeko- eta prozesamendu-teknikak aztertzen dira. Gizarte-ikerketara aplikatutako teknika kualitatiboak ere aztertzen dira testu honetan.

RUL, J.: *El Projecte de Gestió del Centre Educatiu*, Barcelona: Generalitat de Catalunya, Departament d'Ensenyament, 1990.

Sei liburuk osatzen dute bilduma hau, eta bildumaren koordinazioa egilearen esku egon da. Liburu honetan ikastetxearen erakunde-proiektuaren ideia garatzen da, eta bertan antolamen-

du-kudeaketako elementu desberdinak agertzen dira, epe ertainera eta epe luzera antolatu direnak. Ikastetxearen kudeaketaren Proiektua sei kudeaketa-lanabesek osatzen dute. Bi epe ertainera ezartzekoak dira: hezkuntza-proiektua eta barne-erregimenaren araudia. Hiru epe laburre-ra: urteko Plana, Aurrekontua eta ebaluazioaren Memoria. Urteko kudeaketa-ziklo honen baitan erakunde-autoebaluazioa urtero ematen diren zikloen atzeraelikadurazko faktore bezala integratzen da.

RUL, J.: *El Plan anual del centro educativo: Instrumento de gestión e innovación*, Barcelona: Vicens Vives, 1991.

Liburu honetan, ikastetxearen kudeaketarako urteko plangintza egiteko eredu bakun baten garapena azaltzen da. Plangintzarekin lotutako makina bat teknika eta adibide ematen ditu. Urteko Plana, zuzendaritza-taldeak landuta urteko kudeaketa egiteko lanabes bakarra da eta berariazko planek egituratzen dute; plan horiek malgutasuna ekartzen dute plangintza, jarraipena eta amaierako ebaluazioaren prozesuetara. Arreta berezia eskaini behar zaio planaren baitan biltzen diren urteko helburuen ebaluazioari, horretarako berariazko autoebaluazio-diseinu bat landu delarik.

RUL, J.: "La evaluación comunicativa, factor de desarrollo humano, organizativo y curricular. Valorar, medir y evaluar". *Aula de Innovación Educativa*, nº 38, Barcelona: 1995, págs 70-77.

Aula de Innovación Educativa. 38. zk., Bartzelona, 70-77 or.

Artikulu honetan, lehenengo kapituluan ebaluazioari buruz eman diren ideiak planteatzen dira. Ebaluazioaren fenomeno alderdi kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arteko dualtasuna gainditzen duen ikuspegi batetik aztertzen da. Balorazioa, neurketa eta ebaluazioaren arteko desberdintasunak aztertzen dira, neurketaren ikuspegi murriztailea eta balorazioarena alde batera uzten direlarik. Ebaluatzen den objektuaren arabera, metodo kuantitatiboetako eta/edo kualitatiboetako jarraituta lortutako informazioa egokitzen diren balioen eraikuntzaren fenomeno bat bezala definitzen da ebaluazioa. Bereziki azpimarratzen da gizarte-eraikuntzako prozesuetan ebaluazioak komunikazioari ematen dion garrantzia.

RUL, J.: "La Memoria evaluativa del centro educativo", en Gairin, J, y Darder, P. *Estrategias e instrumentos para la gestión educativa*, Barcelona: Praxis, 1996, págs. 172/1-15.

Artikulu honetan erakunde-mailako autoebaluazioaren ideia antolamendu- eta curriculum-esparruen barne-kudeaketako prozesuarekin lotuta aztertzen da. Zuzendaritza-taldeak lehenetsia eman dien helburuen, aurrekontuaren kudeaketaren, geletako curriculum-kudeaketaren eta ikasleen ikaskuntzaren emaitzen urteko autoebaluazio-kudeaketa egiteko lanabesa da ebaluazio-memoria. 1995 urtean Kataluniako Generalitat-ek izenburu berarekin argitaratu zuen liburuaren laburpena da artikulu hau.

RUL, J.: "Evaluar, ¿moda o necesidad?. Aproximación a la función de la evaluación en educación". *Aula de Innovación Educativa*, nº 70, Barcelona: 1998, págs 73-76.

Ebaluazioak hezkuntza-esparruan betetzen duen edo bete beharko zuen funtzioari buruzko artikulua bat dugu honako hau. Zenbait ebaluazioren erabilerak eta abusuak gainditzen ditu. Sarriegitan, ebaluazioren aitzakiarekin, zorrotasun gutxiko ariketak aurkezten dira, eta zenbaitetan gezurrezkoak izan ohi dira, are gehiago ebaluazioa modan jarri den egun hauetan.

SENGE, Peter M.: *La quinta disciplina. El arte de la organización abierta al aprendizaje*, Barcelona: Granica, 1996.

Egungo zentroek ezagupenaren zentro izateko joera dute, ezagupenak dituzten eta oraindik ere ikasten jarraitzen duten pertsonak osatzen dituztelarik. Egileak antolakuntza adimentsu batean ikaskuntza nola sustatu planteatzen du, eta horretarako bost diziplina berri zehazten ditu; diziplina bakoitzak funtsezko ekarpena egiten du ikasteko gaitasuna edukiko duten antolakuntzak eraikitzeko, helburuak betetzeko beharrezkoak diren trebetasunak eta gaitasunak etengabe hobetzeko balio dutelarik.

Antolakuntza adimentsuak antolatzeko, profesionalek pentsalari sistemikoen ikuspegia erabiltzeko gaitasuna garatu behar dute, bai eta beren esparru pertsonala menderatu eta adimen-ereduak islatzen eta egituratzen ikasi ere.

WELKOWITZ, J. et al.: *Estadística aplicada a las Ciencias de la Educación*. [Versión en castellano del original *Introductory Statistic for the Behavioral Sciences*. Academic Press., New York, USA (1976)], Madrid: Santillana, 1981.

Hezkuntza Zientzietara aplikatutako estatistika-liburu bat da. Estatistika deskribatzaileen eta estatistika inferentzialaren kontzeptuak eta teknikak aztertzen dira. Estatistika nagusiak azaltzeko, hainbat adibide ematen dira.

WITTRICK, M.C.: *La investigación de la enseñanza, II. Métodos cualitativos y de observación*, Madrid: Paidós Educador. MEC, 1986.

Hiru liburuk osatutako bilduma baten bigarren liburua da honako hau. Hainbat egileren lanak biltzen dira. Lehenengo lanean (4. Kapitulua), irakaskuntzaren gaineko ikerketarako ikerketa-metodo kualitatiboak ikertzen dira. Zehaztasunez aztertzen da datuen bilketa eta analisisa eta txostenaren idazketa. Bigarren lanak (5. Kapitulua) behaketa garatzen du, eta behaketa desberdinen lau adibide aurkezten dira. Lehenengo adibidea ziklo deskriptibo-korrelazional-esperimental bat da; bigarrena kooperazio-ikerketa bati dagokio; hirugarrena ikuspegi desberdinak biltzen dituen triangeluaketa-eredu bat da, eta laugarrena programa etnografikoari dagokio.

ZAITEGI, N, FERRÁN, C.: "La evaluación del centro educativo. Una experiencia de formación de Equipos Directivos". *Actas del III Congreso Internacional sobre Dirección de Centros Educativos sobre Liderazgo y Organizaciones que aprenden*, Bilbao: ICE Universidad de Deusto, 2000.

Prestakuntza-esperientzia bat aurkezten zaigu oraingoan: autonomia-erkidegoko zentro publikoetako zuzendaritza-taldeekin garatu da aipatu esperientzia, zentroaren barne-ebaluazioa egiteko. Edukiaren funtsa da, autoebaluazioak eskola-erakundeen ikaskuntzara egiten duen ekarpen izugarria, autoezagupena sustatzen duen neurrian, eskolak bere buruari buruz egiten dituen irudikapenei dagokienez taldeko pentsamendurako eredu berriak sortzen dituen neurrian; elkarrikeria taldeko ikaskuntzarako funtsezkoa dela azpimarratzen du. Eredu, sinesmen eta barne-irudikapenen arteko loturei buruz galderak egitea, eguneroko jarduerak eta horien emaitzak; horrek guztiak ikastetxeari buruzko ikuspegi holistikoa ematen digu eta pentsamendu sistemikoa sustatzen du.



Esker onak

Honako lan honen baitan autoebaluazio-kudeaketarako eredu bat aurkezten zaigu. Gizarte- eta hezkuntza-esparruko profesionalek ebaluazioari buruz egindako gogo- eta teorikoaren eta autoebaluazioaren esperientziaren arteko elkarreraginaren emaitza izan da lan hau.

Erakunde-mailako zereginen artean ebaluazioa gehitzeak erronka berri baten aurrean jartzen gaitu, eta ideia, jarrera eta trebetasunen baitan ere eragina du; modu berean, ebaluazioa erakunde-mailako zereginen artean sartu ondoren, ebaluazio egiteko beharrezkoak diren ahaleginak praktikoak eta erabilgarriak izatea lortu behar da, eta horrek erronka garrantzitsu bat dakar eredu, teknologia, prozedura eta estrategiei dagokienez.

Erronka izugarria izan da praktikari begira autoebaluazio-kudeaketa egiteko eredu funtzional bat lortzea, hau da, erabilgarria eta gauza daitekeena, eta bestalde, ebaluazioaren postulatuekin bat datorrena. Eta honako liburu hau dugu azaldutako prozesu luzearen emaitza.

Hori guztia dela eta, makina bat pertsona eta erakunderi eskainitako lankidetzak eskertu beharrean gaude.

Ebaluazioa egiteko eredu honen lehenengo bertsioa "GEIP" programa (Gizarte Ekintza Integralerako Plana) ebaluatzeko ezarri zen; aipatutako programa Bartzelonako Udaleko Gizarte Gai eta Gazteria Sailak garatu zuen lehenengo aldiz 1992 eta 1994 urteen bitartean. Gure eskerrik beroenak: Julia Redondo, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Hezkuntza Zientzietako Institutuaren Zerbitziburua (ICE); Araceli Adam, Programaren Koordinatzailea; eta ICEko profesionalen taldea. Bere lan-taldearen lankidetzari esker lortu zen "EK-Rs" izenez ezagutzen den sistemaren arabera ebaluazio-kudeaketako lehenengo saiakuntza.

Bereziki gogoratzen ditugu: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Nekane Agirre, zuzendaritza-taldeen prestakuntzaren esparruan egindako lan izugarriagatik; Maite Larrañaga, argitalpenean eskainitako laguntzagatik; Luis Otano, eskainitako orientabide eta iradokizunengatik, eta bereziki Alejandro Campok koordinatutako programako prestakuntza-taldea.

Bartzelonako Unibertsitateko Hezkuntza Erakundearen Kudeaketa eta Zuzendaritza Masterreko ikasleei, 1997-1998 eta 1998-1999 ikasturteetako Ebaluazio Mintegietan parte hartu zutenak, nire eskerrak luzatu nahi dizkiet. Bai eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, 1996-97-98-99-2000 eta 2001 urteetan antolatutako ikastaroetan parte hartu zuten zuzendariek "EK-Rs" ereduaren arabera ebaluazio-diseinuak lantzeko agertutako interesa ere.

Bereziki emankorra izan da Penedés (Bartzelona) eskualdeko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek egindako lana; Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Sailak sustatu zuen Autoebaluazio Mintegian parte hartu zuten, eta 1998-1999 ikasturtean "EK-Rs" eredia ezarri zuten ikastetxeetako autoebaluazioa egiteko.

Amaitzeko, "EK-Rs" eredia ezartzen duten eta egun oraindik kudeatzen dituzten zenbait ebaluazio-diseinu honako liburu honetan argitaratzeko baimena eman duten ikastetxeei eskerrak eman nahi dizkiegu.

